

Bizitzaren iraunkortasuna

Ekonomia Solidario, Feminista eta
Ekologikoan oinarrituz eginiko ekarpenak



reas
euskadi

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

Yolanda Jubeto Ruiz
Mertxe Larrañaga Sarriegi
Cristina Carrasco Bengoa
Magdalena León Trujillo
Yayo Herrero López
Cecilia Salazar de la Torre
Cristina de la Cruz Ayuso
Lorena Salcedo Carrión
Ela Pérez Alba

Bizitzaren iraunkortasuna

Ekonomia Solidario, Feminista eta
Ekologikoan oinarrituz eginiko ekarpenak



reas
euskadi

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

Argitalpen hau kofinantzatu duten erakundeak:



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Argitalpen hau bi proiekturen barruan dago:

- Iparra eta Hegoa ekonomia solidarioko sareak indartzea: diskurtso kritiko kolektiboa sortu, sustatu eta horren inguruan sentsibilizatzea, Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatuta

- Eraldaketa eta kohesiorako tresnen analisia. Integrazio-esparru batetik, ekonomia feminista eta berrikuntza soziala aplikatzea. Unibertsitate-gizarte proiektuak 2012.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Bizitzaren iraunkortasuna: Ekonomia solidario, feminista eta ekologikoan oinarrituz eginiko ekarpenak

Reas Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Red de Economía Solidaria y Alternativa

Venezuela Plaza 1, 2. Ezk.-Ezk. • 48001 Bilbo

reaseuskadi@reaseuskadi.net

www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

ISBN: 978-84-941387-7-5

Lege zenbakia: BI-953-2014

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Itulpena: Labayru Institutua

Inprimaketa: Lankopi, S.A.



Aitorpena-Ez komertziala-3.0 lizentzia beraren pean partekatzea

Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Askatasun osoz kopiatu, banatu eta publikoki jakinaraz daiteke, baldin eta egileza aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Hori aldatu, eraldatu edo eratorritako obrarik sortzen bada, lizentzia honen pean soilik banatu ahal izango da. Lizentzia osoa.

Lizentzia osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| Aurkezpena | 5 |
| 01. Ekonomia solidarioa izango da, feminista bada Ekonomia feministak ekonomia solidarioaren eraketan egindako ekarpenak | 13 |
| <i>Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi</i> | |
| Sarrera: ekonomia solidarioaren eta ekonomia feministaren giltzarri bateratuak | 15 |
| Ekonomia solidarioaren printzipioen irakurketa ekonomia feministatik | 18 |
| Laburbilduta... | 24 |
| Bibliografia | 25 |
| 02. Ekonomia, lanak eta bizitzaren iraunkortasuna | 27 |
| <i>Cristina Carrasco Bengoa</i> | |
| Ekonomiaren itsutasun historikoa | 30 |
| Ekonomia feminista: joera androzentrikorik ez daukan ikuspegi ekonomikoa | 33 |
| Bizitzaren iraunkortasuna | 36 |
| Bibliografia | 41 |
| 03. Ekonomia Solidarioa eta Bizimodu Ona. Ekonomia berri baterako ikuspegi berriak | 43 |
| <i>Magdalena León Trujillo</i> | |
| Aurrekariak | 45 |
| Bizimodu Ona, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren dinamizatzaile gisa | 46 |
| Erronka komunak | 53 |
| Bibliografia | 54 |
| 04. Bizitza on batekin bateragarria izango den ekonomia eraikitzeko ikuspegi | 55 |
| <i>Yayo Herrero López</i> | |
| Ekofeminismo kritiko batek mundua birpentsatzen laguntzen digu | 58 |
| Ezer ere ezin da etengabe hazi mugak dituen planeta batean | 59 |
| Bizitzari eusteko produkzioa, eta ez bizitza suntsitzekoa | 60 |
| Bizitzako aldietarako politika bat | 61 |

| | |
|---|-----|
| Aberastasuna banatzea | 63 |
| Esperientzia alternatiboak jagotea, eta haietan parte hartzea | 64 |
| Taldekoa berreraikitzen, lankidetzat sustatu | 65 |
| Bibliografia | 67 |
| 05. Ekonomia sozial eta solidarioa: Tradizioaren eta modernitatearen arteko ezinbesteko harremana | 69 |
| <i>Cecilia Salazar de la Torre</i> | |
| Bibliografia | 78 |
| 06. Finantza etikoaren izaera politikoaren eta emantzipazio ahalmenaren gaineko irakurketa feminista | 81 |
| <i>Cristina de la Cruz Ayuso</i> | |
| Sarrera | 83 |
| Dirua, askatasunerako bitarteko gisa | 86 |
| Diruak eraikitzen dituen botere erlazioak | 89 |
| Non olet: diruaren eta haren gizarte-boterea objektibatzea | 89 |
| Finantza etikoetarako oinarritzko hiru akordio, eta amaierako koda bat (feminista hori ere), ohartarazpen modura | 92 |
| Bibliografia | 93 |
| 07. Ekonomia solidario eta feministak tokian tokiko garapenerako politika alternatiboekin egin dizkion ekarpenak: Ekuadorko Lojako kasua | 97 |
| <i>Lorena Salcedo Carrión</i> | |
| Lojako probintziako agroekologiaren esperientzia: antolatzekeko prozesuaren hausturak edo jarraipenak | 99 |
| Agroekologiatik ekonomia sozial eta solidarioa egindako iragaitzak | 105 |
| 08. Emakumeentzako mikrokredituak: Peruko erdialdeko oihaneko emakume kooperatibisten esperientzia generoko mikrofinantza solidarioetan | 113 |
| <i>Ela Pérez Alva</i> | |
| Sarrera | 115 |
| Historia bera barik, historian bertan zeresana duen oroimena azaltzea da helburua | 117 |
| Ubirikin eta Yurinaquin zirriparra denean, harriak daude bertan: gatazken bilakaera eta kontrola | 119 |
| Emakume eta erakunde moduan arriskatzea, erronka botatzea | 125 |
| Etorkizunari begira: elkartasunen sareak eta zainketa kontuan hartzen duen ekonomia feminista ehuntzea | 127 |
| Bibliografia | 129 |

Aurkezpena



Nabaria da bizitzaren iraunkortasunak prozesu sozial, politiko edo ekonomiko guztien ardatza izan behar duela, besterik ez bada ere, bizi sen hutsez, planetak eta gizakiak bizirik irauteko senak hartuta. Hala ere, sistema kapitalistaren eta –berarekin batera– pentsamendu neoliberalaren garapenak bizitzari berari balioa kentzea lortu du. Kapitalismoarentzat, emaitzen kontu batean jaso daitezken jarduera ekonomikoek, produktiboek edo espekulatiboek baizik ez dute balioa, jarduera horiek zuzen edo zeharka gizartean eta ingurumenean dituzten ondorioak aintzat hartu gabe, onurak maximizatzeko kate amaiezin batean sartuta.

Era horretan, kapitalismoak instrumentu gisa hartzen ditu pertsonak, ekoizle eta kontsumitzaile gisa betetzen duten zeregina baizik ez baitu kontuan hartzen. Horrela, alde batera uzten ditu oinarritzko alderdiak, bizitza erreproduzitzeko eta kontuz zaintzeko aukera ematen dutenak, eta, era berean, eskubideak ahazten (edo murrizten) ditu, ingurune eta egoera guztietan eta pertsona guztientzat bizitza duina, zuzena eta osasungarria izan dadin bide ematen duten eskubideak.

Izan ere, sistema ekonomiko honek ezkutuan utzi ditu bizitzaren erreprodukzioari eta pertsonen zaintzari lotuta dauden zereginak. Historian barrena emakumeek egin izan dituzten lanak dira horiek, beti ordaindu gabe bete izan direnak, batzuetan oso egoera larrietan, eta gizartearen behar adinako onarpena eta balioespena lortu gabe beti. Horiek horrela, ez da harritzekoa feminismoa eta, zehazki, Ekonomia Feministako ikasketak izatea kapitalismoak bere bizitzaren euskarriarekin duen funtsezko kontraesan hori aztertzeko ardura hartu dutenak. Era berean, mugimendu ekologistak eta Ekonomia Ekologistak kontraesan horixe aurkitu dute planetako ingurumeneko iraunkortasunari loturik.

AurkezpenGaur egun, itxuraz, ikuspegi *ekofeminista* horiek kritika sakonagoa egiten diote ekonomiaren ikusmoldeari, eta tradizioz ekoizpenari, banaketari, finantziarioari eta kontsumoari lotuta egon diren ziklo ekonomikoko praktikak errotik eraldatzeko proposatzen dute. Azken batean, pertsonak, planeta eta haien iraunkortasuna bera eraikuntza politiko, sozial eta ekonomikoaren ardatz gisa hartuta.

Eta lehentasunen eta ekonomiak giza-, gizarte- eta politika-harremanen esparruan duen zereginaren “subertsio” hori egitean, ikuspegi kritikoek eta eraldatzaileek Ekonomia Solidarioarekin egiten dute topo. Ekonomia Solidarioa kontzeptuak muga lausoak ditu oraindik, baina ekonomiaren eta bere praktiken eraldaketa sakona egitea proposatzen du. Eta ekonomia feministak eta ekologikoak funtsezko tresnak dituzte hori eraikitzeko.

Argitalpen honen bidez, aurrera egin nahi dugu, ikuspegi alternatibo hori prestatzeko lanetan. Ekonomia Solidarioa da ikuspegi hori, ekonomia eta harreman soziopolitikoak berriz aztertu nahi baititu, gizarte postkapitalista zuzenagoa, iraunkorragoa eta solidarioagoa izan dadin lortzeko. Eta ekonomia feministaren eta ekologikoaren oinarritzko ekarpenak sartu nahi ditu eraikitze-lan horretan.

Horixe da liburu honen hari gidaria. Zortzi lanen bidez, eta hainbat ikuspegitatik abiatuta, alde batetik, kritika egungoa eta egokia egin nahi diogu sistema kapitalistari, eta, horrez gain, hainbat ezaugarri aurkeztu nahi ditugu ekonomia eta gizarte berriz pentsatzeko, azkenean, bizitzaren iraunkortasuna ekonomiak eta gizarteak dituzten kezken eta helburuen ardatza izan dadin. Bestetik, hemen bildutako bederatzi egileek batera elkartzen dituzte ikerketen zorrotasuna eta gizarteko mugimendu eraldatzaileekiko atxikimendua, feminismoa, ekologismoa edo Ekonomia Solidarioaren garapena lantzeko.

Kasu batzuetan, ikuspegi kontzeptualagoak aurkezten dituzte, eta, besteetan, kasu zehatzen azterketetan oinarritzen dira. Eta, ezin bestela izan, aniztasun geografikoak mota honetako eztabaidei ematen dien aberastasuna jasotzeko ahalegina egiten dute denek. Izan ere, hegoaldeetik, Biziera ona bezalako azterketak jaso ditugu, erreprodukzioa eta bizitzaren zaintza ardatz gisa hartuta. Eta, hain zuzen ere, hegoaldean du tradizio eta garapen gehien Ekonomia Solidarioaren mugimenduak.

Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañagak oso artikulua aberasgarri batekin ematen diote hasiera argitalpen honi. Bertan, Ekonomia Solidarioaren printzipioen irakurketa egiten dute Ekonomia Feministaren ikuspegitik. Azterketak bide ematen digu bi diskurtso ekonomiko horien bat-etortzeaz hausnartzeko eta bi proposamenen integrazioarantz aurrera egiteko, egileek beraiek dioteenez, “ekonomia solidarioa izateko, feminista izan beharko baitu”. Harreman kapitalista eta heteropatriarkal zapaltzaileak gainditzea, harreman sozial eta ekonomiko zuzenak eta demokratikoak ezartzea, lana pertsonen gaitasunak garatzeko bide ematen duen prozesu gisa hartzea, bizitzaren eta planetaren iraunkortasuna bermatzea, zaintza-lanen balioa gehitzea, lankidetzaren eta elkarrekiko laguntzaren kultura bultzatzea, irabazi asmorik gabeko ekonomia babestea eta horrantz aurrera egitea, lurraldeari begiratzea, eta bere aldaketa

ekonomikoa eta soziala lantzea... Horra hor, egileek artikuluan barrena aztergai dituzten loturetako batzuk.

Cristina Carrascoren artikulua bidez, sakon landu ahal izango dugu Ekonomia Feminista, pentsamendu eraldatzailea eta kritikoa den aldetik. Haste-ko, artikulua argi eta garbi laburbiltzen du ekonomiak –bere eskola guztiek, erreprodukzioa-soberakina ikuspegia kenduta– zer-nolako itsumen historikoa izan duen merkatura zuzendutako ekoizpenetik kanpo dauden lanei eta prozesuei dagokienez. Horien aurrean, Ekonomia Feministak ikuspegi ekonomiko berri bat garatzen du, joera androzentrikorik gabekoa, eta ikuspegi analitikoak proposatzen du, esparru sozioekonomiko orokorrean eguneroko bizitzaren erreprodukzioaren eta ongizatearen berri emateko, kontzeptu berri bat ardatz gisa hartuta: bizitzaren iraunkortasuna. Cristina Carrascok dioenez, bizitzaren iraunkortasuna “definitzea ez da erraza”. Alde asko dituen nozioa da, hainbat iraunkortasun barne hartzen dituena: ekologikoa, ekonomikoa, soziala eta giza iraunkortasuna, bai eta haien artean dauden harreman guztiak ere. Hortik sortzen da bizitzari eusten dion katea. Nagusi den pentsamendu ekonomikoak beti ezkutatu du hori, eta, aldi berean, isilean gordetzen du egungo sistema sozioekonomikoak funtzionatzeko dituen baldintzak eutsiezina direla. “Ekonomia iraunkor batek, gizaki guztien beharrak betetzeko lan egin ahal izateko, eta, aldi berean, bere mundu sozial eta naturalak erreproduzitzeko duen gaitasunari eutsi ahal izateko, azpikoz gora jarri behar du ‘izozmendiaren’ erlazioa, ekoizpena eta merkatua komunitateen eta pertsonen zerbitzuan jarrita”.

Hegoko errealitatea eta, bereziki, Ekuadorren egoera aldatzeko izaten ari diren prozesuez egindako hausnarketa abiaburutzat hartuta, **Magdalena León**ek sakon lantzen du Ekonomia Solidarioaren eta Biziera Onaren arteko harremana. Bere artikuluan, eraikitzen ari garen paradigma ekonomiko berriari buruzko eztabaida teorikoa aberasten du, eta premiazko beharrezan batzuk aipatzen ditu, kontzeptu batzuk berriz ezarri behar baitira, bizitzaren iraunkortasuna ardatz gisa hartuta kapitalismo neoliberalaren eta ordena kolonialaren hautabide bat prestatu ahal izateko. Aldi berean, argi oharatzen digu ezinbestez ekin behar diogula “trantsiziorako bideragarritasuna eraikitzeko erronkari, liberalismoak finkatu edo egituratutako errealitatek abiatuta”. Egilearen ustez, Biziera Ona ikuspegia ez dago amaituta; eredu bat ere ez da. Aldaketa lortzeko aukera bat da, eraikitzen ari den paradigma bat, bizitzaren erreprodukzio hedatua ekonomiaren muinean jartzen duena. Eta aldaketarantz doan prozesu horretan, Ekonomia Solidarioa da egokiena eta baliagarriena sistema ekonomiko berria eraikitzeko oinarria izateko, gure ingurunean dauden edo azaltzen ari diren praktikak eta ikuspegiak berreskuratzeko eta berriz interpretatzeko bidea izateko.

Ildo berean, **Yayo Herrero**ren artikulua argi nabarmentzen du emakumeak gizonen mende egoteak eta naturaren ustiakuntzak bizitza –gizakiena zein

naturarena– menderatzeko eta bizitzari balioa kentzeko logika kapitalista berberari erantzuten diotela. Egileak azaltzen duenez, ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko eredu berriz pentsatu behar da, ekonomia biosferaren azpisistema bat izan dadin: metabolismo ekonomikoa berregituratu behar da, bizitzaren iraunkortasuna bermatuta. Egilearen ustez, Ekonomia Solidarioa ez da proposamen hutsa; benetako hautabide bat da ondasunen ekoizpena antolatzeke, eta pertsona guztien beharriak betetzea du xede. Izan ere, Ekonomia Solidarioa, materia eta energiaren degradazioa gutxitu daitekeen tokian balio ekonomikoa sortzeaz gain (adibidez, harremanezko ondasunak ekoiziz), oso bide indartsua da ekonomia zuzena gauzatzeko, aberastasuna metatzeko prozesua berriz orekatuz.

Cecilia Salazar de la Torre k ekarpena egiten dio eztabaidari, eta, ildo horretan, Ekonomia Solidarioak Bolivian izan dezakeen etorkizunaren azterketa eta horri buruzko hausnarketa hartzen ditu abiaburutzat, eta Ekonomia Solidarioak “ekoizpenaren eta erreproduktzioaren artean zubi hurbilagoak eratzeke” duen gaitasuna hartzen du aintzat. Egilearen ustez, gaitasun horrek ondo kontuan izan behar du oso testuinguru desberdinak daudela, eta, horien ondorioz, desberdintasun larriak sortzen direla Latinoamerikako eta Europako gizartearen artean. Ezinbestekoa da Boliviako demokrazia liberal modernoaren eta kapitalismoaren garapenaren prozesu historikoak aztertzea, Ekonomia Solidarioa garatzeko dauden oztopoak zein diren jakin ahal izateko, herrialdeko konstituzio berriari lege aldetik aurrerapenak egon arren. Boliviako errealtatean, bizitzaren iraunkortasunari lehentasuna emango dion eredu berrirantz jo ahal izateko, estatuak ezinbesteko aktore erantzunkidea izan behar du, emakumei dagozkien eskubideak bermatu ahal izateko.

Cristina de la Cruzek lantzen duen gaia interes handikoa da, baina, hala ere, orain arte, ez da azaldu Ekonomia Solidarioa eta Ekonomia Feminista gurutzatzen diren eztabaidan: finantza etikoak, Ekonomia Solidarioaren proiektu politikoa den aldetik, “guztiz feministak diren mikropolitikak ikasteko espazio moduan”. Ikasketa horren bidez, egileak oso irakurketa kritikoa eta argia egiten du diruaren ekonomiari buruz eta diruak harreman ekonomikoetan eta sozialetan duen eraginari buruz, Ekonomia Feminista abiaburutzat hartuta. Finantza etikoen izaera politikoa eta askatasunak zuzentasunez banatzeko duen konpromisoa, konfiantza eta elkartasun deszentralizatuan oinarritutako beste logika eta beste harreman batzuk egituratzeko finantza etikoek duten botere askatzailea, eta diruaren eta finantzazko harremanen neutraltasun faltua salatzean finantza etikoek duten balio eraldatzailea: horra hor bizitzaren iraunkortasunaren paradigma eraikitzeke ezinbestekoak diren hiru atal. Baina, gainera, Ekonomia Feministak funtsezko zeregin bat egin behar du beste paradigma berri hori eraikitzeke egiten dugun lanean, erne jarrarazteke zeregina: “modu ‘naturalean’ etengabe aurkitu ditzakeen

oztopoak hauteman behar ditu, bizitzari eusteko eta bizitza askatzailea izan dadin lortzeko ‘bestelako’ politika bat lantzeko duen eginkizun horretan aurrera egitea (‘naturaltasunez’) eragozten duten trabak”.

Hegoaldera joz berriz, **Lorena Salcedo**ek aurkezten digun esperientzia praktikoa, Ekonomia Solidarioak eta Feministak bat egiten dute landaguneetako emakumeak ahalduz. Ekonomia Solidarioak eta, zehatzago, Ekuadorreko Loja probintzian ekoizteke eta banatzeko dituen dinamikek sortu dituzten parte-hartze prozesuetan, emakumeek gune egokiak aurkitu dituzte eztabaida egiteke eta negoziazioan aritzeko, eta ikusgaitasun ekonomikoa eta onarpen soziala eta politikoa lortzeko. Lojan, nekazaritzako erakundearen proiektu politikoa bilakatu da agroekologia. Proiektuak lotura estua du luraren zaintzarekin eta elikadura-burujabetzarekin, bai eta soberakinak merkaturatzeko hautabideekin (azoka askeekin, tokiko bermea duten sistema parte-hartzaileekin...) eta ongizatea sortzen duen tokiko ekonomiaren dinamizazioarekin ere. Ingurune horretan, agroekologia ez da ekoizteke teknika huts bat. Horrez gain, antzinako jakituriak eta harreman komunak berreskuratzen ditu, horiek guztiak emakume nekazariak gordetzen baitituzte gehienbat: “emakumeak arduratzen dira nekazaritzak behar dituen eguneroko ekintzak egiteaz, osotasun baten zati bat baita nekazaritza: haztea, zaintzea, elikatzea, partekatzea, irakastea, aurre egitea...”.

Azkenik, Peruko erdialdeko oihaneko kafe-soroetako kooperatibetatik, **Ela Pérez Alva** emakumeen “historia markatzen duen memoria” baten berri ematen digu. Mikrofinantza solidarioen estrategiak erabiliz, aurrerapen garrantzitsuak lortu dituzte gaitasunak garatzeko, pertsonak ahalduz, hezkuntza eta osasuna sustatzeko, indarkeriari aurre hartzeko... Hala ere, aurrerapen horiek lortu ahal izateke, emakumeek oso modu aktiboan hartu behar izan dute parte, eta osoko ikuspegia duen mikrofinantzen estrategia garatu behar izan dute, kreditua sustapen eta prebentzioko beste ekintza batzuekin antolatuz. Lan egiteke molde horren bidez, beren beharrik betetzera eta beren interesei erantzuna ematera zuzendutako ekintzak antolatu ahal izan dituzte. Hala ere, izandako lorpenak gorabehera, artikuluak zehatz aztertzen ditu emakumeek esperientzia horretan gainditu behar izan dituzten gatazkak eta sortu diren ikasketa ugariak, betiere, emakumeen bizipenak eta ahotsak abiaburutzat hartuta.

Espero dugu ahots horiek arlo ekonomikoko hautabideen eta eztabaiden aberasgarri izatea. Izan ere, horixe da Euskal Herriko Unibertsitateke (UPV/EHU) eta Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareke (REAS) irakasleek partekatzen ditugun Euskadi Ekonomia Solidarioke ikerketa-taldearen helburua.

Gure ustez, gero eta garrantzi handiagoa du unibertsitateko ikerketa-arloan dauden lagunen eta mugimendu sozialen praktikak garatzen eta eraikitzen aritzen direnen arteko elkarlanak. Elkarlan horri esker, argitalpen hau atera ahal izan dugu, bi proiektuen esparruan. Alde batetik, “Gizartea eraldatzeko eta bateratzeko tresnen azterketa. Ekonomia Feministaren eta gizarteko berrikuntzaren integrazio-esparrutik ezartzea” proiektua dago, UPV/EHUren 2012ko Unibertsitatea-Gizartea deialdikoa (2013an eta 2014an garatzekoa). Eta, bestetik, “Ipar eta Hegoko ekonomia solidarioko sareak indartzea: diskurtso kritiko kolektiboa sortzea, sustatzea eta sentsibilizatzea” proiektua, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2012ko garapenerako hezkuntzako deialdikoa (2013an eta 2014an betearaztekoa). Bi proiektuek Ekonomia Solidarioari lotutako gaien ikerketa, prestakuntza eta zabalkuntzako ekintzak bateratzen dituzte. Hortaz, eskerrik asko bi instituzio horiei, eman duten laguntzagatik.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu bederatzi egileei. Ez da erraza era honetako lanak aurkitzea, argitalpen honetan aurkituko ditugun ekarpenak bateratuta. Haien prestasunari eta ondo egindako lanari esker lortu ahal izan dugu. Horrez gain, funtsezkoak izan dira REAS Euskadiko Zaltoa Pérezek egin duen koordinazio-lana eta Marraren diseinu eta maketazio zaindua.

Bide berriak zabaldu nahi ditugu Ekonomia Solidarioaren garapen kontzeptuarean eta praktikoan. Ikerketaren arloan eta mugimenduaren garapenari begira egindako ekarpenaz gain, gure harri-koskorra ekarri nahi dugu, beste era bateko harremanak sortzeko hala planetarekin, nola pertsonen eta herrien artean, ildo horretan, helburu nagusia bizitzaren iraunkortasuna izan dadin, hau da, bizitza duin, bidezko, zuzen eta osasungarri baten iraunkortasuna.

Marian Díez eta Carlos Askunze

(UPV/EHU eta REAS Euskadiko Ekonomia Solidarioko Ikerketa Taldea)

01 Ekonomia solidarioa izango da, feminista bada

Ekonomia feministak ekonomia solidarioaren eraketan egindako ekarpenak

Yolanda Jubeto Ruiz

Mertxe Larrañaga Sarriegi

Ekonomia Aplikatua I, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco –UPV/EHU–.



Sarrera: ekonomia solidarioaren eta ekonomia feministaren giltzarri bateratuak

Artikulu honetan, ekonomia solidarioaren eta ekonomia feministaren arteko loturei buruz hausnartu nahi dugu. Argi eta garbi dago lotura horiek egon badaudela, bi ikuspegiak ohiko ekonomia kritikatzeko dutela eta, kritika horren bidez, “bidezkoagoa den beste ekonomia baten” bila dabilzala kontuan hartuz gero. Dena dela, beste kontu bat izango litzateke bien arteko lotura horiek sakon aztertu diren eta lotura horiek inplizituak edo esplizituak diren.

Gure ustez, ekonomia solidarioak (ES) eta ekonomia feministak (EF) nagusi den sistema ekonomikoa eta teoria ekonomiko hegemonikoak bultzatzen dituen suposamenduen eraketa kritikatzeko dituzte. Efk jakin badaki pentsamendu ekonomikoan eragin handiena duten eskolek eta, batez ere, eskola neoklasikoak erabilitako suposamendu eta metodologia askok genero-isuri handia dutela. Hori dela eta, modu kritikoan aztertu behar dira berriro, haien proposamenak inpartzialak² eta ezarpen unibertsalekoak zirela hartu delako kontuan. Eragile ekonomiko nagusiaren irrealtasuna azpimarratzen da: *homo economicus*-a. Hain zuzen ere, izaki hori arrazionala da beti, berekoa, independentea, ez du ez sentitzen ez jasaten, erabat buruaskia da, osasuntsua, ez gazteegia ez zaharregia, azal zuria du eta, nola ez, beti bete-betean dihardu merkatuan, irabazi ekonomikoaren bidez bakarrik lortutako norberaren ongizatearen bila (Mattahei, 2010). Bestetik, ESk ere *homo economicus*-a kritikatzeko du, jardueraren ekonomikoetan banakako jokabidearen printzipio bakartzat hartutako norberaren interesetik haratago doazen beste motibazio, zentraltasun eta asmo batzuk daudela nabarmentzen duenean.

Hartara, emakumeen eta gizonen funtzionamendu ekonomiko desberdina azaltzeko orduan, estereotipoetara jotzen dugu sarritan. Gaur egun ere, estereotipo horiek indar handia dute, eta, tradizioari begira, desberdintasun biologikoekin egon dira lotuta. Estereotipo horiek, gainera, zenbait talde bereizteko eta sustatzeko erabiltzen direnez, eurekin haustea oso garrantzitsua dela uste

² Ferber, Marianne A. eta Nelson, Julie A. (ed.) (1993): *Beyond economic man. Feminist Theory and Economics*. The University of Chicago Press.

dugu. Estereotipo horiek alde batera utzi beharreko ekonomiarekin daude lotuta, eta EFk berak agerian jartzen du zein diren:

- Gizonezko subjektua: berekoa da, bere gogobetetasuna eta irabazia baino ez ditu bilatzen, helduaro osoan zehar arduraldi osopean lantzen duen merkatuaz baino ez da arduratzen, buruaskia da, ez du oroimenik eta ez du justizia, elkarrekikotasun eta elkartasun sentipenik.
- Emakumezko subjektua: altruista da, pertsonak zaindu eta ordaindu gabeko ugalketa-lanez arduratzen da maitasunagatik, beretzat sari nahikoa da bere familiaren maitasuna eta aitorpena jasotzea, bere premiei barik gainerakoek beharrei ematen die lehentasuna, mendekoa da eta merkatan parte hartzeko aukera du edo ez. Partaidetza hori, ordea, familiako bizimoduaren aldaketan baldintzapean egongo da beti.

EFk nabarmentzen du familiak eurak oso garrantzitsuak direla, pertsonen bizikalitaterako funtsezkoak diren ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzte-eta (etxeko lanak eta zainketetako lanak). Hala ere, behin eta berriro azterketa ekonomikoetatik kanpo utzi eta gutxietsi egin dituztela azpimarratzen du. Ildo beretik, ESK azpimarratzen du gizarte-ongizatea sortzeko eta kudeatzeko orduan merkaturak bera ez dela nahikoa, beste instituzio batzuek ere parte hartu behar dutelako bertan. Euren artean, gainera, familiak, Estatua eta erkidegoa ere nabarmentzen dira (Álvarez, 2010).

Bitxia bada ere, azterketa ekonomiko neoklasikoko tresnen bidez ohiko ekonomiak azterketa ekonomikoan bertan familiak ere kontuan hartu dituenean, hau da, pertsonaia horren ezaugarriak familiako kideei ezarri nahi izan zaizkienen (G.S. Beckerren *La nueva economía de la familia*), familia-burua “dikta-dore onbera” izan da bat-batean. Horrelaxe gertatu da, ezinezkoa izan delako erabilgarritasunak eranstea. Horren ondorioz, diktadore onberak bere erabilgarritasunen barruan sartu ditu familiaren gaineratikoarenak. Beraz, ez da bere gogobetetasunaz bakarrik arduratzen, familiako kide guztien ongizateaz baizik. Hori dela eta, merkaturako subjektu berekoa subjektu solidarioa izango da etxean, hori nola gertatu den ondotxo ez dakigun arren.

Lehenengo eta behin, geure buruari galdetu behar diogu gizonezkoak eta emakumezkoak omen diren ezaugarri horien errealitateari eta oinarriari buruz. Emakumezkoek dagokienez, beti etxean daukaten betiko zereginarekin dute lotura, eta, beharbada, egoera hori gairatzeko garaia iritsi da. Familiak emakumeen artean daukan garrantzia oso desberdina da, eta, era berean, zeregin horretan ematen duten denbora bera ere bada desberdina. Horrez gain, oro har, ahaztu egiten zaigu (zenbait azterketa feministatan ere gauza bera gertatzen da) aldaketa itzelak gertatzen ari direla ordaindu gabeko etxeko lanak eta zainketetako lanak hornitzeko orduan. Edonola ere, aldaketak aldaketa, mendeko pertsonak zaintzean giza inbertsio handia egin behar da laguntzaren

arloan. Gainera, lan hori leraren edo maitasunaren berezko emaitza izango baltz bezala, laguntza horren zati handiena emakumeek inolako ordainik jaso gabe garatzen duten bitartean (eta beste zatia soldatapeko emakumeek oso baldintza ezegonkorretan garatzen duten bitartean), generoagatiko desberdintasunen iturri handia izango da lan hori (Nussbaum, 2012).

EFren eta ESren iritziz, pertsonak eta euren bizi-baldintzak izan behar dira azterketen helburu nagusia, eta lanak eurak honako honexekin egon beharko dira lotuta: gizarteari begira beharrezkoa den ekoizpena, oinarritzko premien estaldura eta espeziearen ugalketa zabaldua (ale honetan bertan ikusi Cristina Carrascoren artikulua). Sistema ekonomikoa ikusteko eta aztertzeko modu horiek ohiko ekonomiaren muga faltsuak hausten dituzte, eta tradizioari begira azterketa horien oinarria izan diren dikotomiak gairatzeko aukera ere ematen dute. Izan ere, oraindik ere, oso arruntak dira hezkuntza formalean.

EFk honako dikotomia hau hautsi nahi du, esaterako: esparru ekoizleak eta kontsumitzaileak zorrotz bereiztean sortzen den dikotomia, horren arabera enpresek baino ez dutelako aberastasuna sortzen eta familiak kontsumitzaileak baino ez direlako. Izan ere, esparru pribatuari barik esparru publikoari ematen dio lehentasuna, eta bien artean dauden lotura estuak uzten ditu ezkutuan. Alde horretatik, emankorra dena/ez dena dikotomia gairatzea ere bada helburua, horren arabera ordaindu gabeko lanak ez direlako emankorrek eta, horren ondorioz, azterketa ekonomikotik kanpo geratuko liratekeelako. Halaber, ESK faltsutzat jotzen dituen zenbait dikotomia ere hautsi nahi ditu, baina, batez ere, enplegu emankorrek/emankorrek ez diren enpleguak dikotomia. Hori dela eta, nabarmentzen du ez dela zuzena ES merkataritzakoak eta monetarioak ez diren jardueretan bakarrik oinarritzen dela esatea, hau da, badirudi nola-baiteko “parasito-ekonomia” dela, aberastasunaren, hazkuntzaren eta mozkin handien sortzaile bakarra izango litzatekeen merkatu-ekonomiaren aldean. Dikotomia faltsu hori hausteko orduan erabiltzen den argudioetako baten arabera, familietan nahiz erkidegoetan ordainik jaso gabe gizarteratzeko garatzen diren lanen garrantzia nabarmendu beharra dago, merkataritzako ekoizpenak onura ateratzen die-eta (Levesque et al., 1989).

Beraz, hasiera batean, bi ikuspegiak ekonomia hautaketa arrazionalaren zientziaz jotzen duen ohiko azalpena jartzen dute kolokan. Hartara, honako hau da gaur egun akademian ekonomia zer den adierazteko orduan gehien erabiltzen den azalpenetako bat: “bere gurari mugagabeei aurre egitean jendeak bere baliabide mugatuak nola erabiltzen dituen aztertzea” (Parkin, 1995). Hau da, eskasiaren ondorioz sortutako arazoak ditu helburu (eskasiaz betetako munduan bizi garela diosku Parkinek, baita ohiko ekonomialari ugari ere), pertsonen gurariak mugagabeak dira-eta. Garrantzitsuena ez dira premia materialak, gurariak baizik. Hori dela eta, baliabide urri horien kontrolagatiko borroka da lehia. Premisa horietan oinarrituta, eredu ekonomikoak eratzen

dira, eta, bertan, merkatu kapitalista omen da baliabideak esleitzeko bitarteko eraginkorrena.

Nolanahi ere, ez da ekonomia zer den azaltzeko modu bakarra, beste ikuspegi batzuk ere badaudelako aukeran. Izan ere, zabalagoak dira, eta ez dituzte eskasia nahiz lehia bakarrik kontuan hartzen arazo ekonomikoak konpontzeko orduan. Hartara, guretzat oso interesgarria da François Houtartek eskaintzen diguna (2006). Autore horren ustetan, “gizaki guztion bizitza fisiko eta kulturalaren oinarri materialak bermatzea da ekonomiaren berezko eginkizuna. Bertan, hain zuzen ere, harreman sozialak berdintasunezkoak izan behar dira, jarduera kolektiboak modu demokratikoan garatu behar dira, kultura aniztasuna kultura arteketasunaren oinarria dela aitortu beharra dago eta espiritualtasuna irekia bezain anitza izan behar da. Hori guztiori, gainera, gizakien eta naturaren arteko sinbiosian egon behar da oinarrituta”. Ikuspegi demokratikoagoa eta berdintasunezkoagoa da, eta are gehiago errespetatzen ditu natura bera nahiz zenbait jatorri eta kulturatako gizakien arteko harremanak. Beraz, antzekotasun handiagoak ditu EFk eta ESk ekonomiari buruz egindako azalpenekin.

Ekonomia solidarioaren printzipioen irakurketa ekonomia feministatik

Ekonomiaren ikuspegi horiek egiaztatu ondoren, azterketa ekonomikoen subjektuen eta objektuen inguruan ezarritako mugen beharrezko hausturan geure ekarpen xumea egin nahian, guretzat oso garrantzitsua da ekonomia feministak eta ekonomia solidarioak eztabaida horietan egindako ekarpenei buruz hausnartzea. Hori dela eta, ESren ezaugarriak eta EFren funtsezko zenbait elementu zehazteko orduan Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) defendatutako printzipio eta postulatu nagusien artean dauden loturen laburpena egin nahi dugu, bien artean dauden antzekotasun ugariak agerian jartzeko eta antzemandako desadostasunak gainditu egin daitezkeela adierazteko.

Lehenengo printzipioa ekitatearena da. ESk defendatu egiten du gizakien garapen pertsonal nahiz sozialerako eta ingurumen-garapenerako oinarri materialen hornikuntza iraunkorra lortzea dela ekonomiaren eginkizun nagusia. Era berean, “ekonomia sozialaren tradizioaren esparruan, jarduera ekonomikoaren kudeaketan txertatu nahi ditu gizartea eta herritarren arteko harremanak arautu behar dituzten balio unibertsalak: ekitatea, justizia, senidetetasun ekonomikoa, elkartasun soziala eta demokrazia zuzena” (REAS, 2011).

Alde horretatik, ES sortzeko oinarritzko elementua da ekitatea, eta honelaxe azaltzen da zer den REASek 2011n ekonomia solidarioaren inguruan egindako gutunean: “balio honek pertsona guztiak duintasun bereko subjektuak

direla aitortzen du, eta, haien gizarte-maila, generoa, adina, etnia, jatorria, gaitasuna... edonolako delako ere, menderakuntzan oinarritutako harremanen menpe ez egoteko daukaten eskubidea babesten du”. Era berean, ekitatea bera berdintasunetik haratago doala uste du, desberdintasunen aitortpenarekin nahiz errespetuarekin lotzen baitu berdintasuna.

Bestetik, EFk era guztietako proposamen zabalak hartzen ditu kontuan, eta honako hauxe dute helburu: emakume eta gizonen arteko gizarte-harremanetan (zentzu zabalean) ekitatea bilatzea eta emakumeek betidanik jasan behar izan dituzten bereizkeriak gainditzea. Horretarako, ordea, gaur egun munduko zati handiengan nagusi diren harreman kapitalista heteropatriarkal zapaltzaileei aurre egin behar zaie. Era berean, ESk berak berdintasunezko harreman sozio-ekonomiko demokratikoak ezartzea ere badu helburu, giza premiak harreman horizontalen bitartez estaltzea lehentasunezkoa izan dadin eta euren xedea irabazi asmo hutsa izan ez dadin, besteak beste.

Feminismoaren ikuspegitik, zientzia ekonomikoaren ustezko helburua “gizakiok geure biziraupenerako hornikuntza nola antolatzen dugun aztertzea izan beharko litzateke. Beraz, hornidura ekonomikoa eta bizitzaren sostengua aztergai nagusiak dira, azterketa hori zer ikuspuntutatik egiten den kontuan hartu gabe: merkatua, familia edo gobernuaren ekintza” (Nelson, 1996). Hori dela eta, azterketa ekonomikoaren xedea izan behar dira historian zehar sistema ekonomiko androzentriko ezagunetan emakumeek betidanik jasan dituzten bereizkeriak.

Printzipio hori, beraz, erraz lotu daiteke gizarte bakoitzean historian zehar baztertutako mendeko zenbait taldek jasaten dituzten bereizkeriak gainditzeko prozesua. Hain zuzen ere, horixe bera ere defendatzen du ESk. Agerikoa denez, talde horietan funtsezkoa da jasaten dituzten zapalkuntzen eta bereizkerien arteko loturak aztertzea, bertan generoa dimentsio nabaria dela eta lehen aipatutakoekin gurutzatuko dela konturatuko garelako. Horretarako, sistema sozio-ekonomikoan emakumeen eta gizonen nortasunak, bizi-baldintzak eta jarrerak zailtzen dituzten desberdintasunak gainjarri egiten direla kontuan hartu beharko dute jardun solidarioek.

Ekonomia solidarioak nabarmentzen duen bigarren printzipioak funtsezko elementutzat jotzen du lana, pertsonen zein erkidegoaren bizi-kalitatea lortzeko orduan eta herritarren, herrien nahiz estatuen arteko harreman ekonomikoak sustatzeko orduan. Lanari esker, pertsonen euren gaitasunak garatu ditzakete, eta lan horrek biztanleen benetako premiak estaltzea izan behar du helburu. Puntu horretan, REASek nabarmentzen du batez ere emakumeek pertsonen zainketa arloan egindako lanak bere ekarpena daukala, nahiz eta gizartean behar bezala aitortuta ez dagoen eta berdintasunez banatuta ez dagoen (REAS, 2011).

Lanari dagokionez, José Luis Coraggiok proposatutakoaren arabera (Coraggio, 1999), ESk³ “lanaren ekonomia” izeneko sistemarentz egin beharko luke aurrea, enpresa-ekonomia kapitalistarekin eta ekonomia publikoarekin batera iraun ahal izateko. *Lanaren ekonomia* lana bera baliabide nagusizat hartu beharko luke, baina ez baliabide bakartzat. Beraz, azpisistema horren logika ez da diru-kapitala eta kapital politikoa pilatzea, giza kapitala metatzea baizik: guztion bizitzaren ugalketa zabaldua, alegia⁴. Hori dela eta, ekonomiako sektore egitura-tua, antolatua eta autoarautua izango litzateke, gizarteko kide guztien ugalketa zabaldua erdietsi ahal izateko. Ugalketa zabaltzen denean, ez da nahitaezkoa diru-sarrera gehiago eta ondasun material gehiago eskuratzeko aukera izatea. Bizi-kalitateak hobera egin dezake honako arlo hauetan gertatutako aldaketaren ondorioz: kontsumoaren kalitatea, gizarte-harremanetarako ereduak, habitata eta familia-unitateen bizitza elikatzen duen testuingurua.

Lanari buruzko azterketa funtsezko elementua izan da ekonomia feministak hasiera-hasieratik egindako hausnarketan. Izan ere, lanaren eta enpleguaren arteko berdinketa gainditzea izan du helburu, baita familian zein erkidegoan bertan egindako eta ongizatea nahiz bizitzaren iraunkortasuna sorrarazten duten lan guztiak balioestea ere, teoria ekonomikoak ezkutatu egin ditu-eta. Era berean, lan-merkatuan lehendik zeuden desberdintasunak ere nabarmendu ditu (bereizketa bertikala eta horizontala, kontratuen modalitateetan, jarduera-sektoreetan eta soldata-bereizkerian, besteak beste). Lehen esan dugun bezala, lanaren kontzeptuaren mugak zabaltzean ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren arteko ikuspegi dikotomiko hori ere hausten da, eta gizonen nahiz instituzioek etxeko lanetan eta zainketetako lanetan izan beharreko baterako erantzukizunaren nahitaezko zeregina sortzen da. Baterako erantzukizunean aurrera egiteko, ordea, laneko eta merkataritzako ordutegiak aldatu behar dira, baita ordaindutako lanaldiaren iraupena bera ere. Horrez gain, aztertu egin behar da nola bateratu daitezkeen emakumeen zein gizonen bizitza-zikloekin eta, azken batean, denboren, espazioen zein lanen erabileren antolaera sozialarekin. Badirudi aldaketa horiek lortezinak izango direla, kapitalismoaren osteko ekonomiarantz abiatzen ez bagara.

Gure iritziz, ESk bere jardueren artean hartu behar du kontuan genero-desberdintasun horiek gainditzeko prozesua, eta, horretarako, demokratikoagoak eta berdintasunezkoagoak diren egiturak eratu behar ditu, bere printzipioetan defendatzen duen bezala.

³ Autoreak herri-sektoreen ekonomia du hizpide, baina ESn ezartzerik badagoela uste dugu.

⁴ Autoreak adierazitakoaren arabera, familia-unitateko kideen bizitza historiari begira aldagaria den mailan mantentzea izango da ugalketa bakuna, betiere, garai eta kultura bakoitzaren moralaren arabera familia edo familia-unitate horien ugalketarako minimo moduan onartzen bada. Ugalketa zabalduaren kontzeptua erabiltzen denean, ordea, bizi-kalitateak hobera egin duela adierazi nahi du. Bestela esanda, ugalketa zabaldua denean, bizi-kalitateak hobera egingo du aztergai den epealdian.

REASen hirugarren printzipioa, oster, ingurumenaren iraunkortasunarena da. Bertan, hain zuzen ere, jarduera emankor eta ekonomiko guztiek naturarekin izan beharreko harremana azpimarratzen da. Naturarekiko harremana oso ona izan behar da, aberastasun nahiz osasun iturria da-eta. Hori dela eta, ezinbestekoa da aztarna ekologikoa, gure jardueren ingurumen-eragina, etengabe eba-luatzea. Hori dela eta, natura errespetatzen duen ekonomia defendatzen da.

Joan den mendeko 70eko hamarkadan ekofeminismoa sortu zenetik, batez ere, eta, ondoren, ekonomia ekologikoarekin zituen loturak aztertu zirenean, EFK nabarmentzen du bizitzaren iraunkortasunak gizakiarekin eta planetarekin daukala zerikusia eta naturaren nahiz emakumeen esplotazioak zeresan handia duela gaur egungo sistema kapitalistan.

Alde horretatik, 1970eko hamarkadan sortu ziren utopia feministak ere oso ekologikoak ziren, eta honako helburu hauei ematen zieten lehentasuna: “deszentralizazioa, hierarkikoak ez diren egiturak, demokrazia zuzena, landa-ingurune biziraupen-ekonomia, teknologia leunak eta menderakuntza patriarkaletiko askatasuna”. Etorkizunerako proposamen horietan, “hierarkikoak ez diren egitura politiko demokratiko zuzenak ezin litezke inoiz abian jarri, antzeko egitura ekonomikorik ez balego (deszentralizatuak, bateratuak), eta alderantziz. Horren ondorioz, Barbara Holland-Cunzen esanetan (Kuletz, 1992), “hirigunearen eta landa-ingurunearen arteko dualismoa desagertzen da, bai eta eskulanaren eta lan intelektualaren artekoa, esparru publikoaren eta pribatuaren artekoa eta ekoizpenaren eta ugalketaren artekoa ere”. Esan gabe doa ideia horiek oso lotura estua dutela lehen aipatutako eta garai berean sortutako ekofeminismoarekin, baita lana bera ekoizten denagatik (erabilera-balioagatik) eta ez bakarrik sortutako mozkinagatik balioesten duten harreman horizontal bezain demokratiko horiek bultzatzen dituen ESrekin ere.

Funtsean, proposamen horiek kapitalismoa hedatzean orokortu den ikuspegiari aurre egin nahi diote, horren ondorioz gizakiek natura zeharo kontrolatu zezaketela zioen mitoa sortu zelako. Hori dela eta, natura bera beste ekoizpen-faktore bat zela hartu zuten kontuan (lurra eta bere osagaiak baliabide natural ustiagarri bihurtu ziren). Beraz, bazegoen natura bera pribatizatzerik, merkaturatzerik eta kapitalaren interesen zerbitzura jartzetik (Polanyi, 2003). Sistema kapitalistako analista askok sistemaren epe luzerako iraunkortasuna utzi dute alde batera, euren kalkuluetan planetaren mugak eta esplotazio-jarduera kapitalistek gizaki gehienentzat dauzkaten ondorioak kontuan hartu ez dituelako. Joera nagusia horixe bera izan da, azken hamarkadotan egin diren hainbat txosten zientifikotan aurkakoa egiaztatu bada ere eta ekonomia ekologikoak nahiz ekofeministak larregikeria horiek salatu badituzte ere.

REASen laugarren printzipioa lankidetzarena da. ESren ustez, pertsonen eta erakundearen arteko lankidetzaren sustatu beharra dago, bidezko merkataritza-

harremanak eratu nahi izanez gero. Horrela, bada, konfiantza, baterako erantzukizuna, gardentasuna eta errespetua sortu ahal izango dira.

Ekonomiaren oinarritzko arazoa zein den azaltzeko orduan⁵, biziaren ugalketa materialarekin eta biziraupenarekin lotutako harreman sozialak antolatzean pertsonak ezarritako eta eutsitako loturen multzoaren azterketa dela esan dezakegu. Hartara, sistema ekonomikoek forma zehatza hartu dute historian zehar, giza eta gizarte harreman horiek eratu direneko egitura sozialen arabera.

Urteen joan-etorrian iraunkorra izan nahi duen edozein erkidego eta herritako egitura ekonomikoari eusten dioten gizarte-harremanen funtsezko ezaugarrien artean, lankidetzaren balioa nabarmentzen dugu, baita gizakion artean eta gizakion nahiz natura babeslearen artean dagoen elkarmenpekotasuna ere. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte, erkidegoko kideak gara, eta, bertako familia zein gizarte arloko unitateen bidez, erkidego hori zenbait erataria arduratzen da bizirauteko eta kalitateko bizimodua garatzeko behar ditugun zainketez. Giza bizitzaren izaera sozial hori eta beste pertsona batzuek bizirauteko eta garatzeko duten premia ez dira industrializazioaren aurretiko gizartearen ezaugarri bereizgarria, gizarte guztiena baizik.

Gurea bezalako masa-kontsumoko gizarteetan, balio handia ematen zaio norberaren autonomiari. Bertan, gainera, ekoizpen-maila eta batez besteko errenta-maila areagotu diren neurrian, gero eta zaurgarriagoak izan dira biztanleak. Izan ere, gizarte horiek osatzen dituzten gizakien arteko elkarmenpekotasuna areagotzen da, lanaren banaketa oso nabaria delako. Heilbronnerrek, esaterako, honako hauxe aitortu zuen XX. mendeko 60ko hamarkadan Ipar Amerikako Estatu Batuetako gizartea aztertu zuenean: zenbat eta “aberatsagoa izan nazioa, orduan eta agerikoagoa izango da bertako zenbat biztanle ez diren bakarrik eta laguntzarik gabe bizirauteko gai”. Horrez gain, honako hauxe ere azpimarratzen zuen: “gure ugaritasuna bermatuta egongo da, pertsona-talde handien lankidetzaren antolatua garatzen den bitartean”. Esaldi horiek euren testuinguru historikoan aztertuz gero, AEBetako barne-ekonomiari buruz hausnartu genezake, baita nazioarteko harreman ekonomikoari buruz ere. Era berean, inspirazio-iturria eta oso adierazgarriak ere badira guretzat, lankidetzak gizartearen biziraupenean daukan garrantziari buruz hausnartzen dugunean.

Ohiko ekonomiak, oster, lehia lehenesten du sistema ekonomiko kapitalistaren funtzionamenduari giltzarrietakoa izango balitz bezala. Izan ere, bere ustetan, lehiaren bidez baino ez dago mozkin handiak erdiesteko eta kapitala metatzeko besteko emaitza ekonomikoaren lorpenean aurrera egiterik. Aztergai

⁵ Hona hemen azalpen horren inspirazio-iturria: Robert L. Heilbroner (1964): *La formación de la sociedad económica*. Kultura Ekonomikoko Fondoak: Mexiko DF.

ekonomiko nagusia bertako kideen arteko lehia denez, azterketatik kanpo geratzen da mozkin handienaren logikaren arabera ez diharduten merkataritza-harremanetako lankidetzaren, trukaturako ondasunen erabilera balioesten baitute. Horrez gain, biziraupena sustatzen duten harreman sozialak ere baztertzen dira, ez direlako merkaturatik igarotzen. Euren artean, etxeko lanak, zainketetako lanak eta auzo-lanak nabarmentzen dira.

Lankidetzaren eta sareen kulturak sinergiak sortu nahi ditu, informazioa gizarteratzeko; jakintzak, baliabideak, espazioak nahiz ondasunak partekatuz; eta, azken finean, ahalegin bateratuaren bidez euren arteko osagarritasuna lortzeko. Logika hori, ordea, ez dator bat jardura ekonomikoaren ikuspegi hegemoniko murriztailearekin, apurka-apurka merkataritzako jardura ekonomikoa isolatu duelako esparru politikotik nahiz bizitzaren ugalketarako oinarritzakoak diren gainerako jardueretatik, nahiz eta bere euskarria ziren. Merkaturako ekonomiaren oinarria izan arren, euren kabuz araututako merkaturaren falazia abian egon dadin, ezinbestekoa izango da “gizarteak nola edo hala haren eskakizunei men egitea [...]. Merkaturako ekonomia industriako elementu guztiak hartu behar ditu kontuan, baita eskulana, lurra eta dirua ere. Edonola ere, eskulana eta lurra gizarte osoa osatzen duten gizakiak eurak baino ez dira, baita gizarte guztietako ingurune naturala ere. Elementu horiek merkaturako mekanismoan sartzen direnean, gizartearen beraren muina merkaturako legeen menpe jartzen da” (Polanyi, 2003). Efk nahiz Esk merkaturako kapitalisten gorentasuna gaituzten nahi dutenez, gizakien arteko lankidetzari ematen diote lehentasuna bizi-baldintza duinak bermatzeko orduan.

Bosgarren printzipioak jardura solidarioa irabazi asmorik gabea izan behar dela defendatzen du. Hori dela eta, giza eta gizarte sustapena izan behar da ekimen solidarioen xede nagusia. Beraz, irabazi asmorik gabeak izan behar dira funtsean. Dena dela, horrek ez du esan nahi bertako zenbait jardueratan soberakinik sortu behar ez denik. Edonola ere, etekin horiek gizartera itzuliko dira zenbait jarduerari emandako babesaren bidez: proiektu sozialak, ekimen solidario berriak edo garapenerako lankidetzako programak, besteak beste. Esk eta Efk aldarrikatzen dute jardura ekonomikoetan banakako jokabidearen printzipio bakartzat hartutako norberaren interesetik eta irabazi asmotik haratago doazen beste motibazio, zentraltasun eta asmo batzuk daudela. Esk, gainera, “behar besteko argitasuna ere badauka, aberastasunaren sorrera aberasteko prozesu pribatuaren helburuarekin ez nahasteko” (Álvarez, 2010).

Seigarren printzipioak ingurunearekiko konpromisoa aldarrikatzen du, hau da, ekimen solidarioek garatzen direneko ingurune sozialarekin hartuko dute konpromisoa. Hori dela eta, beste erakunde batzuekin lan egin behar da, eta sareetan parte hartu behar da, esperientzia solidario zehatzek eredu sozio-ekonomiko alternatiboaren sorrera sustatu dezaten. Esko jardunak zenbait testuingurutan eratu direnez, honako honexen eraginpean daude euren eza-

garriak: lurralde horietako kokapena eta oroimen historikoa; esperientzia bateratuen, lankidetzaren esperientzien eta auzo-esperientzien azalpena eta bi- zipena; eta horrelako ekonomien eraketa bera. Emakume ekonomialari femi- nistek nabarmentzen dute azterketak eta aldaketa-proposamenak errealitate zehatzetara egokitu behar direla eta errealitate horiek era guztietakoak izan daitezkeela, emakumeak eurak bezala. Nolanahi ere, antolatutako emaku- meen taldeen partaidetza izan duten jabekuntza ekonomikorako prozesuetan, egiaztatu ahal izan da nolako konpromisoa daukaten euren ingurunearekin eta emakumeak etengabe kezkatuta daudela euren familiaren arazoengatik. Hori dela eta, batzuetan, emakumeek euren inguruneari emandako lehenetsunari buruzko eztabaida sustatu da, euren interes estrategikoen gainetik ere jartzen dutelako esparru hori.

Laburbilduta...

Merkatu kapitalistaren ereduari erreparatuz gero, merkataritzaren esparrua jarduera ekonomiko guztien kudeaketaren helburua da, eta ez dira jarduera ekonomikotzat jotzen biziaren iraunkortasunarekin zerikusia duten jarduera guztiak, ez direlako merkatutik bertatik igarotzen. Izan ere, justifikatu egiten da merkataritza-osagairik ez dutenez nekez kuantifikatu daitezkeela eta erraz baztertu daitezkeela (Waring, 1988; Pujol, 1992). Horrez gain, ez dira plane- tan bizi diren pertsonen premiak kontuan hartzen, merkatu kapitalistan parte hartzeko beste diru-baliabiderik ez daukatenean. Horren aldean, Efk eta ESk sistema ekonomikoaren, bere printzipioen eta helburuen ikuspegi alternatiboa proposatzen dute.

Efk eta ESk aldarrikatzen dute pertsonak eurak, giza harremanak eta oinarri- ko premien estaldura izan behar direla helburu nagusia eta ez masa-kontsu- moko gizarteak etengabe eratutako gurariak, bere xedea irabazi asmoa delako eta ez taldeko gizon nahiz emakumeen funtsezko premien estaldura orekatua. Azken batean, ESk eta Efk elkarmenpekotasunean, elkarrekikotasunean eta demokraziaren zein gardentasunaren bultzadan oinarritutako harreman eko- nomikoak defendatzen dituzte, pertsonen arteko ekitatea euren jarduketako ardatz gidari nagusia dela kontuan hartuta.

Helburu solidarioak dituzten ekimen asko eta asko daude, baina oraindik ez daude behar beste egituratuta, eta ez dira behar bezala agerian jarri. Orain, be- raz, ikuspegi feminista eta solidarioa egituratu beharra dago elkarrekin, honako honexetan oinarritutako ongizate kolektiboa lehenesten duten gizarteetako giza jarduerak eratzeko modu berria egia bihurtu dadin: ekitatea, baterako erantzuz- kizuna, demokrazia ekonomikoa, elkarrekikotasuna eta giza zentzuan aberasten gaituzten balio guztiak. Izan ere, eurei esker, jakin badakigu aberastasun mate- rialaren metaketak mugak izan behar dituela eta tokian tokiko nahiz maila globa-

leko ekoizpen, banaketa eta kontsumorako ereduak aldatu behar ditugula. EFren eta ESren arteko loturei buruzko hausnarketak bide horretatik doaz, eta, gure ustetan, funtsezkoa da behar bezala bultzatzea eta agerian jartzea, bidezkoagoa den munduaren eraketan aurrera egin ahal izateko.

ESren printzipioak erraz txertatzen dira EFren helburu eta proposamenetan. Hala ere, beti ez daude berariaz adierazita. ESren printzipioetan genero-ikus- pegia berariaz ez agertzea ez da salbuespenezkoa, behin eta berriro gertatzen baita alternatibotzat jotako teoria gehienetan. *Gaitasunen ikuspegia* bezalako garapen teorikoek eta *bizimodu onaren* proposamenak bezalako beste gara- pen praktikoago batzuek EFren helburu gehienak partekatzen dituzte, baina ez dute berariaz egiten, unean uneko erreferentzietan eta erreferentzia oroko- rretan izan ezik. Ahanztura hori, aldiz, ez da halabeharrezkoa, eta baliteke genero-berdintasunaren aldeko borroka garrantzi urriko gaia dela dioen ideia egotea horren azpian. Beraz, ESk eta Efk paperean printzipio berberak dituz- tela ikusi dugu. Orain, ordea, printzipio horiek benetako ekimen solidarioetan modu praktikoan ezartzea da erronka.

Ildo horretatik, ekonomia solidarioa feminista eratzeko orduan, arakatu eta sakondu beharreko arlo asko daudela uste dugu. Arlo teorikoan sakontzen jarraitu beharra dago, baina gai orokor eta zehatz praktikoagoei buruzko eztabaida ere ireki daiteke. Lehenengo eta behin, ES lagungarria izan dai- teke benetan, “beste era bateko ekonomia” eratzeko orduan? ESk ekar- penik egin dezake (eta nola), gizarte ez-sexista eta solidarioaren proiektu feminista egia bihurtu dadin? ESk badu aberastasunaren banaketa berdin- tasunezkoagoa sustatzerik, emakume txiroei baliabide sozio-ekonomikoak eskuratzeko aukera emanez gero? ESk badu autokudeatutako prozesuak sortzerik, emakumeentzako kalitateko enpleguak sortu ahal izateko? ESk badu bermatzerik emakumeek euren premien araberako ondasunak eta zer- bitzuak eskuratzeko aukera izango dutela? (Corbeil et al., 2002). Galdera horien erantzuna baiezkoa bada, hau da, haien interes estrategikoak alde batera utzi gabe ESk emakumeen premia praktikoak estaltzen baditu, ESren eta EFren ideiek antzekotasun handiak dituztela esan genezake, bai eta eta euren jarduketak bide on beretik doazela ere.

Bibliografia

- Alvarez, Santiago (2010): “Potencialidades y desafíos de la economía solidaria”, *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global* 110.
- Coraggio, José Luis (1999): “De la economía de los sectores populares a la economía del trabajo”. Mintegi honetan aurkeztutako hitzaldia: “Economía dos setores populares. Entre a realidade e a utopia”, CAPINA, CEADE, CE- RIS, CESE eta Salvadorreko Unibertsitate Katolikoa (UCSAL), Salvador Bahía,

azaroak 8-9.

Corbeil, Christine; Descarries, Francine; eta Galerand, Elsa (zuz.) (2002): Actes du colloque L'économie sociale du point de vue des femmes. *Cahier du LAREPPS*, 02.-03. zk.

Cortina, Adela (2013): *¿Para qué sirve realmente la ética?*, Paidós Ibérica.

Ferber, Marianne A. eta Nelson, Julie A. (ed.) (1993): *Beyond economic man. Feminist Theory and Economics*. The University of Chicago Press.

Heilbroner, Robert L. (1964): *La formación de la sociedad económica*. Kultura Ekonomikoko Fundoa: Mexiko DF.

Houtart, François (2006): Isabel Rauberren *Sujetos políticos* liburuko hitzau-
rra, Ed. Pasado y presente, XXI.

Kuletz, Valerie (1992): Barbara Holland-Cunzi egindako elkarrizketa. *Ecología Política*, 4. zk., 9.-21. or.

Levesque, Benoît; Joyal, André; eta Chouinard, Omer (1989): *L'autre économie: une économie alternative ?*, Quebec, Presses Universitaires du Québec.

Mattahei, Julia (2010): "Más allá del hombre económico: crisis económica, economía feminista y economía solidaria". *Cayapa. Revista Venezolana de Economía Social*, 10. alea, 19. zk., urtarrila-ekaina, 2010, 65.-80. or., Andeetako Unibertsitatea, Venezuela.

Nelson, Julie A. (1996): *Feminism, objectivity and economics*. Routledge: London and NY.

Nussbaum, Martha (2012): *Crear capacidades. Propuestas para el desarrollo humano*. Paidós Estado y Sociedad.

Polanyi, Karl (2003): *La gran transformación*. Kultura Ekonomikoko Fundoa: Mexiko DF.

Parkin, Michael (1995): *Microeconomía*. Addison-Wesley Iberoamericana.

Pujol, Michelle A. (1992): *Feminism and Anti-feminism in Early Economic Thought*. Edward Elgar Publishing Limited. 228. or.

REAS (2011): *Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna*. Sareen Sarea, maiatza.

Waring, Marilyn (1988): *Counting for nothing. What men value and what women are worth*. Allen & Unwin, Port Nicholson Press. Gaztelaniako itzulpe-
naren izenburua: *Si las mujeres contarán. Una nueva economía feminista* (1994). Vindicación feminista, argitalpenak.

02

Ekonomia, lanak eta bizitzaren iraunkortasuna

Cristina Carrasco Bengoa
Bartzelonako Unibertsitatea



Artikulu honetan, izenburuan aipatutako hiru kontzeptuei buruz hausnartuko dugu hurrenkera horretan: ekonomia, lanak eta bizitzaren iraunkortasuna. “Ekonomia” hitzaren esanahia nahikoa nahasia da gaur egun. Ekonomia grezierako *oikos* (etxea) eta *nomos* (administratzailea) hitzetatik dator, hau da, etxea administratzeko artea. Ondoren, XVII. mendean, “ekonomia politikoa” terminoa erabiltzen hasi ziren, hiria administratzeko arteaz hitz egitean. Gaur egun, ordea, “ekonomia” terminoak bi esangura horiek galdu ditu. Batzuetan, benetako prozesu sozioekonomikoetan gertatzen dena du hizpide, eta, beste batzuetan, fenomeno horiek azaldu eta interpretatu egiten dituen diziplina moduan erabiltzen da. Fenomenoak bakarrik dira, baina fenomeno horiek ulertzeko eta interpretatzeko modua oso-oso desberdina izan daiteke. Alde horretatik, prozesuak oro har aztertzekeo itsutasun historikoa egon da diziplinan. Salbuespen nabariak salbuespen, merkatuko mugetara murriztu da arlo ekonomikoaren ikuskera. Hori dela eta, lanaren kontzeptua enpleguaren sinonimotzat hartzen da gaur egun, eta merkatutik kanpo garatzen diren lan guztiak baztertu dituzte azalpen horretatik. Batez ere, guretzat etxeko lana eta zainketetako lana dira interesgarrienak¹.

Ekonomia feministak ekonomiaren arloko ikuspegi tradizionalak hautsi ditu, eta etxeetatik egindako lan guztia sartu du zirkuitu ekonomikoetan, lan hori barik ez dagoelako merkatuko ekoizpenaren funtzionamendua ulertzerik. Horretarako, Ricardoren eta Marxen ugalketaren ideia berreskuratu duen arren, ugalketa sozialaren ideia zabalagorantz eraldatu du. Bizitzaren iraunkortasunaren ideien barruan, ugalketa sozialaren ideia hartzen da kontuan. Hala ere, haratago ere badoa, prozesu sozioekonomiko moduan ugalketa soziala beharrezkoa dela baina nahikoa ez dela azaltzen du-eta. Horrez gain, biztanle guztien, emakumeen eta gizonen, bizi-baldintzak izan behar dira lehentasunezko helburua, eta ulertu behar da zainketa-lana eta bere faktore subjektibo guztiak beharrezko jarduera nagusiak direla, bizitzak gizatasun-baldintzetan jarraitu dezan.

¹ Honako hauxe izango dira etxeko lana eta zainketetako lana: ohituraren arabera etxeko lantzat hartu diren jarduera guztiak (esate baterako, garbitzea, ikuztea, erostea...) eta pertsonak zuzenean zaintzeko zereginak.

Ekonomiaren itsutasun historikoa

Adam Smithen lanaren argitalpena omen da pentsamendu ekonomikoaren hasiera: “Nazioen aberastasunaren ezaugarriari eta arazoiei buruzko ikerketa” edo “Nazioen aberastasuna”. Ondoren, ordea, pentsamendu horrek ez zuen ibilbide intelektual bakarra jarraitu. Historian, pentsamendu ekonomikoaren bi eskola handi nagusi egon direla esan daiteke². Lehenengo eta behin, Smithekin hasitako eta XIX. mendeko azken laurdenean Karl Marxekin amaitutako eskola klasikoa. Eskola horrek “ekonomia politikoa” (political economy) izeneko pentsamendua garatu zuen, eta, horren arabera, giza premiak estaltzeko baliabide materialen ekoizpena eta banaketa gobernatzeko dituzten lege sozialak aztertzen ziren (Barber 1996). Azalpen horri erreparatuz gero, eduki materiala nabarmentzen da, baina lege ekonomikoaren izaera soziala ere bai. XIX. mendeko azken laurdenean, ostera, eskola marjinalista edo neoklasikoa sortu zen, eta aurreko pentsamenduekin hautsi zuen erabat. Beraz, ekonomia politikoa izena galdu zen, eta “ekonomia” (economics) baino ez zen erabiltzen horri buruz hitz egitean³. Dena dela, baliteke hori garrantzitsuena ez izatea. Ekoizpena barik aztergaia bera merkatua zenez, gizarteari buruzko hausnarketa filosofiko historikoak desagertu ziren, bai eta faktore sozialak ere. Era berean, ugalketaren kostuak, soldaten fondoa, gizarte-mailak eta antzeko kontzeptuak ere baztertu ziren, eskasiari, erabilgarritasunei edo maximizazioei buruz hitz egiten hasteko. Azken batean, zientzia soziala izateari utzi zion ekonomiak, zientzia logiko formal bihurtzeko (Barbé 1996).

Nolanahi ere, bi eskolen ardatz nagusia berbera da: ez bata ez besteak ez dituzte euren taula analitikoetan sartu merkaturako ekoizpenetik kanpo garatzen diren lanak. Adam Smithen hasitako –eta, ondoren, David Ricardok zein Karl Marxek jarraitutako– lanaren balioaren teoriaren arabera, lana (industrial) balioaren iturria da. Teoria horrek, hain zuzen ere, kontzeptuari zentraltasun handia ematen dionez, berriro zehazteko orduan, elkarketa sinbolikoa egiten du lanaren eta soldatapeko lanaren artean, hau da, lana bera enpleguaren sinonimoa izango da. Teoria horretan, objektuen balioa hartuko da kontuan, eta balio horrek lotura zuzena izango du objektu horiek ekoizteko beharrezkoa den lan (industrialaren) kopuruarekin. Marxek geroago sortuko zuen gainbalioaren kontzeptuak tradizio horri erantzun zion, eta, horren ondorioz, lan-indarraren balioan ez dira etxeko lan eta zainketetako lan guztiak kontuan hartuko, nahiz eta ugalketari dagokienez ezinbestekoak diren (Dalla Costa 1972, 1982, Gardiner 2000, Himmelweit 2000).

² Agerikoa denez, beste pentsamendu-korronte batzuk egon dira (keynesiarra, sraffiarra...). Edonola ere, 30 urteko agerpen politiko eta akademikoa izan zuen keynesiarra alde batera utzita, gainerakoak gutxiengodun korronteak izan dira pentsamendu ekonomikoaren barruan.

³ Ingelesean, termino desberdinak erabiltzen direnez (political economy eta economics), ondo baino hobeto adierazten da nolako aldea dagoen bi eskoletako paradigmatan. Euskaraz, ostera, “ekonomia” hitza errepikatzen denez (ekonomia politikoa eta ekonomia), terminologiak ez du hain zehatz islatzen paradigmaren arteko desberdintasun hori.

Hartara, industrializazioaren hasieratik, tradizio liberalaren oinordeko ekonomia-ikuspegi dikotomikoari eman zitzaion hasiera. Horren arabera, banaketa nahasi bezain anbigua egiten da espazio sozial bakar eta antagonikotzat hartutako esparru publikoaren eta pribatuaren artean: esparru publikoa gizonena da (boterea eta aitoren soziala dituen eremu politiko eta ekonomiko), eta esparru pribatua, emakumeena (boteretik ez daukan etxeko eremua). Esparru pribatuko jarduera edo partaidetza, beraz, ikusezinaren linbora mugatuko da, eta ez du inolako aukerarik izango balioespen soziala lortzeko. Edonola ere, bitxia bezain harrigarria da familietan batez ere emakumeek garatutako etxeko lana eta zainketetako lana pentsamendu klasikoan kategoriatzat hartu ez izana. Izan ere, aitortzen zen lan hori ezin garrantzitsuagoa zela umeak zaintzeko eta biztanleak ugaltzeko orduan (oso gai garrantzitsua da, garai hartako umeen heriotza-tasa oso handia zela kontuan hartuta), eta, horren ondorioz, langileen ugalketa historikoaren kostutzat hartutako soldatan zegoen islatuta (Picchio 1992).

Dena dela, ekoizpen (industrial) eta banaketatik haratago zeuden prozesu sozialak behatzean ekonomialari klasikoek zeukaten sentsibilitate urriak txarre-eragin zuen eskola marjinalista sortu zenean. Ekoizpena barik aztergaia bera merkatua izan zenean, ulertzeko modukoa zen merkaturako garatzen ez ziren jarduera guztiak ekonomian bertan kontuan hartu ez izana. Hartara, etxeko lana eta zainketetako lana ikusezin egiten ziren, ezkutatu egiten ziren edo ez zuten aitortu nahi izan nolako garrantzi erabakigarria zuten pertsonen bitzita eta lan-indarra ugaltzeko orduan⁴. Are gehiago, emankortasun eta erabilgarritasun marjinaliari lehenetsua ematean, pertsonen bizi-baldintzak ez ziren ekonomia neoklasikoaren kezka eta helburua izan. Horrela, bada, oso ohikoa da ekonomia jakin bat ondo doala entzutea, bertako hazkuntza ekonomikoa nabaria delako, nahiz eta biztanleen ehuneko handia txiroa izan edo desberdintasun sozial ikaragarriak egon. Ekonomia neoklasikoko individualismo metodologikoaren (eta bere ordezkaria den “homo economicusaren”) ondorioz, pertsonen bizi-baldintzak ez dira kezka soziala, etxeko mundu “pribatuan” konpondu beharreko arazoa baizik, besteak beste.

Oso deigarria da ekonomiako korronte heterodoxoak ere itsutasun historiko horren eraginpean egon izana eta merkaturatik kanpo garatutako prozesuak edo lanak kontuan hartu ez izana. Ekonomia ekologikoak, ostera, natura bera kontuan hartzen duen sistema proposatzen du, eta ekonomia feminista bete-betean bat dator jarrera horrekin. Dena dela, ekonomia hori alde batera utzita, korronte neoklasikoek, marxistek, instituzionalistek, erradikalek

⁴ Paradigma neoklasikoan, “Familiaren ekonomia berriaren” barruan eztabaidatu da etxeko lanari buruz (Becker 1981). Dena dela, teoria neoklasikoko arrazionaltasunaren, individualismoaren eta maximizazioaren printzipio berberetan oinarrituta dagoen ikuspegiak ez garrantzitsua gizartea eraldatzeko aukerak eskaintzen dituen fenomenoaren azalpena. Aitzitik, emakumeen desberdintasuneko egoera soziala justifikatu eta legitimatu egiten du.

edo, oro har, ekonomia neoklasikoa kritikatzeko duten korranteek merkatuko mugak zehaztutako ikuspegi estuari eusten diote oraindik. Euren aztergaiak (teoria neoklasikoko metodologia, azterketa, emaitzak eta ondorio politikoak kritikatzeko dituzte) errenta-desberdintasunak, txirotasuna, garapenaren arazoak, politika ekonomiko neoliberalak... dira, hain zuzen ere. Edonola ere, euren azterketak egoera berean egiten dira, ekonomiaren ikuspegi zabalagoa haustea proposatu gabe.

Nolanahi ere, artikulu honetan hizpide dugun gaiari dagokionez, bidezkoa da aitortzea pentsamendu heterodoxoko zenbait korranteek eta, modu nabarian, "ugalketa-soberakina" izeneko ikuspegiak (izan ere, metodologiaren aldetik bereizgarritasuna ematen dion ikuspegiak da) pentsalari klasikoek ugalketaren inguruan zeukatzen ideia berreskuratu dutela. Paradigma horretan (pentsamendu-korrante horiek aipatzen ez duten arren), hain zuzen ere, badago etxeko lana eta zainketa-lana nolabaiteko erraztasunaz eta zentzuaz kontuan hartzerik, funts-funtsezko lana delako ugalketa sozialari dagokionez.

David Ricardo eta Karl Marx pentsalari klasikoek ugalketaren ezaugarrietan oinarritutako azterketa ekonomikoa proposatu zuten, eta, eredu horiek ondoren garatu zirenez, eskola sraffiarra dela esan ohi da. Autore horiek, merkatuko oreken inguruko kezka zuten autore neoklasikoen aldean, baldintza materialak buruz eztabaidatu zuten, sistema sozialak jarraipena izan zezan. Izan ere, horrelako baldintzarik egon ezean, komunitatearen biziraupena bera egongo litzateke arriskuan, edo ez litzateke jatorrizkoak bezalako baldintzetan ziurtatuko, behintzat. Beraz, euren biziraupena bermatu nahi duten gizarte guztien oinarritzeko premisa ugalketa bera izan beharko litzateke, hau da, ekoizpen, banaketa zein kontsumorako zenbait prozesu antzera errepikatu beharko litzateke gutxi gorabehera, zikloa behin eta berriro hasi ahal izateko. Epealdi bakoitzeko beharrezkoak diren baliabideak (baliabide naturalak, produktu materialak eta pertsonak) ezin dira epealdi horretarako erabilgarri daudenak baino handiagoak izan. Bertako ekoizpen-baldintzak berregiteko gai ez den sistema ez da bideragarria, eta desagertu egingo da. Hori dela eta, denborazko dimentsioa hartu behar da kontuan (jarduera sozioekonomikoa garatzen deneko jarraikako epealdiak aztertu behar dira), edozein sistema sozial aztertzeke funtsezko elementua da-eta. Dena dela, denbora prozesuetako funtsezko elementutzat jotzea oso garrantzitsua den arren, ekonomia ofizialak alde batera uzten du oro har.

Ugalketa-prozesuetan, sistema ez da ezinbestean lehengo moduan berregiten ziklo bakoitzaren aurretik. Benetako sistema sozioekonomiko guztiak egonkortasun-faktoreak eta aldaketa-faktoreak kontuan hartzen dituen egitura dira. Beraz, egitura hori osatzen duten prozesu konplexuen bilbea aztertu beharko litzateke, horien bidez pertsonak (gizonek eta emakumeek) euren bizimodu ekonomiko zein soziala ugaltu eta ekoizten dutelako eta euren burua nahiz inguruko harreman-egiturak aldatzen dituztelako (Barceló 1981).

Dena dela, ikuspegi neoklasikoaren aldean ugalketaren ikuspuntuak ahalmen handia badu ere, ekonomialari klasikoek eta, ondoren, sistema ekonomikoak ikuspegi horretatik aztertzen jarraitu zutenek ez zituzten etxeko lana eta zainketetako lana ekonomiaren osagai moduan kontuan hartu. Aurrerago ikusiko dugunez, mugimendu feministak eskainitako ideia berrien⁵ eta, batez ere, familiek lan-indarraren ugalketan egindako lanaren zeresanaren eraginez, ugalketa sozialaren ideia handitu da, merkatuan bertan garatzen ez diren lanak zein prozesuak kontuan hartu ahal izateko. Hirurogeiko hamarkadatik, gaur egungo ekonomia feministak lekukoa hartu zuen, eta multzo teoriko propioa garatzen hasi zen. Gaur egun, ordea, era guztietako jarrerak bere egiten dituen arren, badago eraldaketarako pentsamendu moduan zehazten duten oinarritzeko zenbait ideia nabarmenak.

Ekonomia feminista: joera androzentrikorik ez daukan ikuspegi ekonomikoa

Hasteko, ekonomia feministak diziplina ekonomikoaren kritika sakona egiten du, bere aztergai merkatuko muga estuen barruan lekurtzen duelako eta, horren ondorioz, ekoizpenerako harreman kapitalisten eraginpean garatzen ez diren lanak ekonomikoak ez direla kontuan hartzen duelako. Diziplinaren ikuskera itxi bezain murriztaile hori (gorago ikusi dugun bezala) ekonomia-eskola guztien ardatz nagusia izan da, ekonomia ekologikoarena izan ezik. Hori dela eta, agerikoa da ekonomialariek ezintasun teoriko ikaragarria dutela edo, besterik gabe, itsutasun patriarkalaren eraginpean daudela.

Ekonomia feministak egitura dualista bezain hierarkikoa kritikatzeko, mundu publikoa zein merkataritza-ekonomia bete-betean aitortzen dituelako. Horrez gain, ekonomiaren beraren mugak ere handitzen ditu, zirkuitu ekonomikoetan monetizatuta ez dagoen ekonomia kontuan hartu ahal izateko. Hori dela eta, esparru analitiko berriak garatu eta azterketa ekonomikoak erabilitako kontzeptu nagusiak zehaztu behar dira berriro. Ekonomiaren begirada berri horri esker, badago diziplinaren ohiko begirada estuagoaz garatu ezin ziren azterketak egiterik. Besteak beste, horri esker, salatu daiteke merkataritzako eremua eta merkataritzakoa ez den eremua argi banatzen dituen ikuspegi ofizialaren ondorioz familietan batez ere emakumeek garatutako etxeko lanaren balioa gutxietsi dela. Hain zuzen ere, emakumeek egiten dutelako galdu du bere balioa, gizarte patriarkalaren emakumea izatea delako gehien gutxiesten dena. Emakumeek etxeko lana egiteko erantzukizuna euren gain hartu dutenez, ez dituzte gizonek bezalako baldintzak merkatuko lanean ari direnean. Beraz,

⁵ XX. mendeko hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan, mugimendu feministak etxeko lanaren faktore horiei buruz eztabaidatu zuen, eta horietatik izan dira ekonomia feministaren aurrekaririk hurbilenak. Gaur egun erabiltzen den ugalketa sozialaren ideiak eztabaida horietan bertan ditu bere sustraiak.

emakumeek lan-zama handiagoa dute, denbora antolatzen arazoak dituzte, euren soldatak txikiagoak dira, pentsio urriagoak jasotzen dituzte... Azken batean, emakumeen txirotasun berezia da nagusi. Bestetik, ekonomia feministak garatutako eskema berriek bi lanen arteko lotura jarri dute agerian. Merkaturako lanari esker merkaturako ondasunak erosteko beharrezkoa den diru-iturria lortzen badute ere, familiako etxeko lana ere garatu beharra dago, biztanle guztiak eta, batik bat, merkaturako lanerako beharrezkoa den lan-indarra ugaltzeko. Hori dela eta, ageri-agerikoa da merkataritza-sistema kapitalistak inolako autonomiarik ez duela eta familietan soldatarik gabe egindako lanarekiko mendetasuna duela.

Merkataritzaren begirada estutik askatuta eta etxeko esparruaren azterketan oinarrituta, ekonomia feministak gero eta gehiago aztertzen ditu lan horren ezaugarri bereizgarriak, helburua bera pertsonak zaintzea denean. Beraz, zainketa-lanaz edo, besterik gabe, zainketaz arduratzen hasten da. Zainketaren ezaugarri bereizgarriak beste idazki batzuetan azaltzen direnez, bibliografia horretara joko dugu⁶. Hala ere, zainketaren jatorrizko xedea pertsona guztiak zaintzea eta biztanleei ongizatea ematea bada ere, nabarmendu nahi genuke gizarte patriarkalaren helburu zehatzagoa ere badagoela, hau da, gizon helduak familiako erantzukizunetatik eta denboratik askatzea, merkaturako, gizarte kapitalistan balio zein aitoren soziala daukan eremuan inolako murriztapenik gabe lan egiteko aukera izan dezaten. Merkaturaren funtzionamendua bizi-euskarri hori ematen du egintzat (funtsean, gainera, emakumeek eurek egiten dute elkarrekiko mendetasunen sarearen bitartez), eta, hori eduki ezean, ez lukete izango gizarteratutako eta emozionalki egituratutako eta ziurtatutako lan-indarrak.

Ekonomia feministak ugalketa sozialaren ideia ere berreskuratzen du, eta, ideia hori azaltzeko modu bakarra ez dagoen arren (eratorpenak eratorpen eta ñabardurak ñabardura), bat dator esaterakoan kontzeptu horrek lotura estua daukela hainbat puntuekin: gizarte bakoitzean amatasunaren eraketa soziala kontuan hartzen duen ugalketa biologikoarekin; hezkuntza nahiz ikaskuntza prozesuak kontuan hartzen dituen lan-indarraren ugalketarekin; eta sektore publikoaren, familien nahiz merkaturaren partaidetzapean garatu daitezkeen zainketen premien estaldurarekin. Horrela, bada, zainketaren ekonomia ugalketa sozialerako prozesuetako funtsezko faktorea da ekonomia feministarentzat. Beraz, helburua ez da pertsonen ugalketa salgaiak ekoizteko prozesua izango balitz bezala kontuan hartzea, zainketa soldatapeko lantzat jotzea eta denborak nahiz lekuak arrazionalizatzea, salgaien ekoizpenaren kostua murrizteko eta ugalketaren eraginkortasuna handitzeko. Aitzitik, sistema sozioekonomikoan

⁶ Azken hamarkadan, askotan idatzi dute zainketari buruz. Hemen, horri buruzko artikuluen bilduma dago ikusgai: Carrasco et al. 2011. Espainiako eremuan, Pérez Orozcoren zenbait idazki dira interesgarriak. Esate baterako, ikus Pérez Orozco 2006.

eta bere azterketan goitik beherako aldaketak ezartzea da helburua, ugalketa sozialaren eta giza premien zenbait dimentsio agerian jarri ahal izateko (Picchio 1999). Hori dela eta, merkataritzaren esparrua eta etxeko esparrua zurruntasunez banatzen duen ikuspegia gaitzesten da, eta gauza bera gertatzen da etxeko esparrua merkataritza-sisteman kontuan hartu beharreko aldaera berria dela usten duen ikuspegiarekin ere. Zainketaren ekonomia ikuspegi ekonomikoetan hartzen da kontuan, biztanleen bizi-baldintzen iraupenean funtsezko ekarpena duela erakutsi nahian. Dena dela, zainketa bera ez da prozesuko beste elementu bat izango balitz bezala txertatzen, merkataritza-sistemak zainketaren ekonomiarekin duen mendetasuna agerian jartzen duen erabateko ikuspegi-aldaketaren adierazgarri da eta.

Etxeko lana eta zainketa-lana (euren edukiagatik eta bertan emandako denbora globalagatik⁷) funtsezkoak dira ugalketaren zein bizitzaren arloko prozesuetan, eta, lan horiek garatu ezean, ezinezkoa izango litzateke merkaturako lana bera ere garatzea (Himmelweit 2002). Hain zuzen ere, etxean eta zainketen arloan garatzen den lan handiagatik baino ez dago abian gaur egungo sistema ekonomikoa. Lan horrek merkaturako ekonomia kapitalistaren eraikinari eusten dio, eta gainbalioaren ezkutuko iturria ere bada, kostuak (emozionalak ere bai) merkataritza-esparrutik etxeko esparrura igarotzen direlako. Bosch et al.-ek ondo baino hobeto azaltzen dutenez, “zainketaren ekonomiak giza bizitza sozialaren bilbeari eusten dio, zenbait sektore ekonomikoren arteko tentsioak orekatzen ditu, eta, horren ondorioz, eraikin ekonomikoaren oinarria ere bada” (Bosch et al. 2005: 337). Labur esanda, etxeko lana nahiz zainketetako lana agerian jartzean eta garapen ekonomikoetan kontuan hartzean, produktu sozialarekin lotura estua dutela ikusi ahal izan da. Era berean, horri esker, orain are garde-nagoak dira errenta, aberastasuna eta lanaldia banatzeko moduak. Mekanismo horiek guztiak sexuaren/generoaren arabera egituratuta daudenez, eragin desberdina dute emakumeen zein gizonen bizi-kalitatean eta ongizatean.

Horrela, bada, eraldaketarako prentsamendua da ekonomia feminista. Sistema ekonomikoarekin eta sistema hori legitimatzen duen ekonomia ofizialarekin haustea proposatzen du, merkaturari eta mozkinari barik pertsonen bizitzari, ongizateari eta bizi-baldintzei ematen dielako lehentasuna. Ongizate horretan, gainera, funtsezko elementutzat jotzen du zainketa. Kapitalaren logika barik, bizitzaren logika lehenesten du ekonomia feministak. Indarrean dagoen eredu kolokan jartzean, emakume nahiz gizonentzako mundu bateratua sustatzen da diskurtso nagusitik haratago eta berdintasunaren ideia hutsetik haratago. Ekonomia feministak beste era bateko mundu-ikuskerak, munduarekin harremanetan jartzeko beste modu bat proposatzen du, eta,

⁷ 2009-2010eko Denboraren Erabilerrari buruzko Inkestan (INE 2011) eskainitako informazioaren arabera, Espainiako etxeko lana eta zainketetako lana merkataritzako lanari emandako denboraren %111koak dira, gutxi gorabehera.

bertan, pertsonentzat diseinatu eta egiten da ekonomia. Proposamen hori erabateko aldaketa da, gainera, zeren, hori lortzeko, hainbat gauza egin behar dira: denborak eta lanak (merkataritzakoa eta zainketetako) berrantolatu; egunez eguneko bizimodua aldatu; kontsumorako nahiz ekoizpenerako egitura berria ezarri; eta, nola ez, balioak eurak aldatu. Dena dela, badago besterik. Ekonomia feminista garatu egin da, eta garatzen jarraitzen du, instituzio akademikoen eta zenbait mugimendu sozialen arteko etengabeko komunikazioan. Hala ere, hori ezin liteke beste era batera egin, multzo teorikoa ez ezik ibilbide-orri politikoa ere badelako. Zenbait arlotako pertsonen arteko elkarreragina gertatzen denean, era guztietako galderak sortzen direnez (oso zaila da akademian bertan egitea), beste zenbait eztabaidagai nagusi ere badaude: botere-harreman sozialak, erantzukizun indibidualak, erantzukizun sozialak, pertsonen subjektibotasunak...

Seguruenik, pertsonentzako ekonomiaren ideia hori berria ez dela eta beste kolektibo batzuek ere gauza bera proposatzen dutela aurpegiatu ahal didate. Halaxe da, bai, baina badago arazorik, batzuek eta besteok ez ditugulako modu berean ulertzen ongizatea, bizimodu ona edo biztanle guztientzako bizi-baldintza onargarriak. Oro har, horrela uste duten taldeek ongizatearen dimentsio anitzeko ikuspegiari eusten diote, Amartya Senak proposatutako ildotik. Bertan, hain zuzen ere, osasuna, hezkuntza, elikadura... hartzen dira kontuan, baina horretarako erabilitako ikuspegia oso estua dela uste dugu, etxetik haratago dagoen mundua bakarrik kontuan hartzen duen gizonezko begiradari eusten diolako. Gizonezko begirada hori, gainera, bi faktoretan islatzen da funtsean. Lehenengo eta behin, emakumeok gero eta hobeto ikasi dugu ongizatearen osagaitzat hartutako elementuen irakurketak emakumeak utz ditzakeela kanpoan. Osasuna bera hartuko dut horren adibide moduan: tradizioaren arabera erabilitako osasun-adierazleek gizonen gorputzaren ezaugarriak hartzen zituzten kontuan. Ugalketako osasun-gaiak arlo horietan lan egiten duten emakumeen presioagatik hasi ziren kontuan hartzen. Lan-merkatuko bereizkerien ondorioz, laneko osasun-arazoak oso desberdinak dira emakume eta gizonentzat, eta, oro har, gizonenak baino ez dira kontuan hartzen. Horrez gain, ez dira etxeko lanaren garapen eta erantzukizunagatik sortutako osasun-arazoak ere kontuan hartzen... Bigarrenez, bizimodu onaren aldeko taldeek ez dute inoiz kontzeptu horretan zainketaren egitatea bera kontuan hartzen, hau da, ondo zainduta egotea ez dute ongizatearen funtsezko elementutzat jotzen. Zoritxarrez, diskurtso feministaren berezitasuna baino ez da hori.

Bizitzaren iraunkortasuna

Lanaren eta ekonomiaren kontzeptuak kolokan jartzean, ekonomia feministak bizitzarako erabat beharrezkoa den lana (etxekoa eta zainketetako) jarri ahal izan du agerian, eta, horrez gain, ekonomia ofizialeko ereduak, azterketei eta

politiken proposamenei egin ahal izan die erronka. Joera androzentrikorik ez duen “politika ekonomikoaren” begirada berri hori ez dator bat ekonomiaren kontzeptuekin, ez azalpenetan, ezta motibazio edo helburuetan ere. Aitzitik, zainketaren gaineko emakumezkoen esperientziari balioa ematen dionez, jarduera nagusitzat hartzen du. Beraz, ez du “gizon berekoien” ideia printzipio orokor moduan onartzen, eta giza elkarmenpekotasunaren ideia suspertzen du haren ordean.

Etxeko lanak lan-indarraren ugalketan daukan zeresanaren azterketari, zainketaren “aurkikuntzari” eta ugalketa sozialaren ideiarekin esker, ekonomia feministak bizitzaren iraunkortasunaren kontzeptua sortu ahal izango du. Azterketarikuspegi horren arabera, batetik, ugalketa soziala funtsezko elementua izango da sistema sozioekonomikoan, eta, bestetik, zainketetako lana elementu erabakigarria izango da ugalketa sozialean nahiz biztanleen bizi-baldintzetan. Hori dela eta, mozkinaren lorpenetik bizitzaren zainketara igaroko da helburu soziala. Horren ondorioz, bide berriak irekiko dira, paradigma ekonomikoa aldatzeko eta, arlo aplikatuan, ekintza sozial, politiko nahiz ekonomiko berriak egiteko eta ezartzeko.

Ugalketa sozialaren printzipioa unibertsala da, funtsezko elementura garamatza-eta: ugalketarako baldintzak eman ezean, gizarteak ezin izango du bere jarraipena bermatu. Ugalketarako baldintza horiek, gainera, biztanleak, mantentzeko beharrezko ondasunak zein zerbitzuak, eta ekoizpen-prozesuen etengabeko berrasierarako beharrezko inputak ugaltzeko dituen aukeren eraginpean daude gizarteak. Ugalketaren kontzeptu horretan ere, argi adierazten da natura errespetatzen duen ekomendetasun-harremana ezartzen dela, etorkizuneko belaunaldien bizitza ziurtatzeko asmoz. Azken batean, gizartea ugalketarako baldintzak erreproduzitzeko gai ez bada, –lehentxeago edo geroxeago– desagertu egingo da. Hala ere, bigarren printzipioa etiko-ideologikoa denez (lehenengo helburua biztanle guztientzako bizi-baldintzak jartzea izango da), ez da unibertsala izan behar. Nahiz eta biztanle-taldeen arteko desberdintasunak handiak izan, gizarteak badu bertako ugalketarako baldintzak ziurtatzerik. Izan ere, gizarte esklabistak esklaboen lanean oinarritu ziren euren ugalketa bermatzeko.

Ikuspegi horretatik, etxeko lana eta zainketetako lana funtsezkoak dira bi printzipio horien oinarritzeko euskarri moduan. Batetik, lan-indarraren ugalketan eta, horren ondorioz, sistemaren ugalketan nolako zeresan erabakigarria duten ikusi ahal izan dugu. Bestetik, lan-indarra ez ezik, biztanle guztiak ere mantendu behar dira giza bizitza duin bezain betearen baldintza egokietan. Iraunkortasunetik egindako azterketari esker, gizarteak gaur egun eta hurrengo belaunaldietan jarraitzeko dituen aukerak ikertu daitezke. Horrez gain, biztanleen, emakumeen nahiz gizonen, bizi-kalitatea, berdintasun-maila eta justizia soziala nolakoak diren ere aztertu daitezke.

Beraz, begirada berri horren helburua ez da azterketetan “emakumeen gaia” txertatzea, esparru sozioekonomiko orokorrean bertan eguneroko bizitzaren ugalketarako eta ongizaterako prozesuen berri ematen duen ikuspegi analitiko berria proposatzea baizik. Gizarteak pertsonen bizi-estandarrek eta adin guztietako emakume zein gizonen bizi-kalitatea lehentasunezkoak direla onartzen badu, zainketetako jarduera funtsezkoa dela aitortuko duenez, ezarritako eredia hautsiko du ezinbestean. Arazoa aztertzeke modu hori berdintasun hutsetik baino askoz haratago doa, gainera. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ez ezik, tradizioari begira ezkutuan egon den ezaugarri sozial unibertuala ere nabarmenduko du: mendetasunaren ideiarekin estu lotuta dagoen zaurgarritasun sozial eta indibiduala (Addabbo eta Picchio 2009, Bosch *et al.* 2005).

Horrela, bada, bizitzaren iraunkortasuna ugalketa sozialerako prozesu historikoa da, banakako nortasunetan eta harreman sozialetan etengabe egokitzten diren premiak estaltzeko dimentsio anitzeko prozesu konplexu bezain dinamikoa, alegia. Halaber, prozesu hori etengabe berrerratu beharra dago, eta, horretarako, behar beste baliabide material eduki beharko dira, baina, neurri handi batean, etxean soldatarik gabe egindako lanak eskainitako maitasun eta zainketako testuinguruak zein harremanak ere bai (Carrasco 2001, Addabbo eta Picchio 2009, Picchio 2005). Kontzeptu horri esker, arlo ekonomikoaren eta arlo sozialaren artean dagoen lotura sakonaren berri eman daitekeenez, ekonomia bera beste ikuspegi batetik aztertuko da, mendetasunaren dimentsioen artean dagoen elkarlotura estua hartuko duelako kontuan eta, azken batean, pertsonen, emakumeen nahiz gizonen, bizi-baldintzak joko dituelako lehentasuntzat.

Ez da batere erraza iraunkortasuna zer den azaltzea. Dimentsio anitzeko nozioa da, eta zenbait iraunkortasun hartzen ditu kontuan, baina, batez ere, ekologikoa, ekonomikoa, soziala eta gizatiarra, baita euren artean dauden elkarlotura guztiak ere. Hartara, termino orokorretan baino ez dago iraunkortasuna zer den ulertzerik. Lehendik zeuden harreman-motak euren artean gurutzatzen direnez, bilbe handia eratzen da, eta oso zaila da era bateko eta besteko harremanak zein diren bereiztea. Desberdintasunezko harreman hierarkikoak daude; patriarkalak, kapitalistak edo arraza/etnia arlokoak, esaterako. Hala ere, afektuen, elkartasunen edo elkarrekikotasunen ondorioz sortutako zenbait harreman horizontal ere badaude.

Iraunkortasunaren nozioan kontuan hartzen diren arloak eta prozesuak bizitzari eusteko katea izango balira bezala ulertu eta antolatu daitezke. Iraunkortasun globala osatzen duten dimentsio guztiak iraunkorrak izan behar dira, baita garatzen direneko arloen arteko loturak ere. Iraunkortasun ekonomikoa lortzeko, epe labur eta luzerako oreka egon behar da ekoizpenaren, kontsumoaren eta inbertsioaren artean, hau da, produktu sozialaren ekoizpenaren, banaketaren eta erabileraren artean (Recio 2010). Iraunkortasun ekologikoak,

ostera, ekonomiak bere oinarri naturala hondatu gabe aurrera egiteko daukan gaitasunarekin du zerikusia. Azkenik, iraunkortasun soziala erdietsiz gero, benetako aukera egongo da, pertsona guztiek bizi-baldintza egokiak eduki ditzaitez. Horretarako, lanen banaketa eta ondasunak nahiz zerbitzuak eskuratzeko aukera berdintasunezkoak izan beharko dira, eta, era berean, termino sozio historikoetan zehaztutako oinarritzko premiak estaltzeko modukoak ere izan beharko dira. Euren artean, gainera, zainketak eskuratzeko aukera egongo da lehentasunezko tokian.

Nolanahi ere, gaur egungo sistema sozioekonomikoaren funtzionamendurako baldintzak jasanezinak dira erabat. Maila oinarritzkoenetik, betidanik bizitzari eutsi eta eusten dion naturatik hasiz gero, badakigu ekonomia kapitalistak, gizarte patriarkalak eta kultura teknologiko androzentrikoak naturarekin daukaten elkarreaginaren ondorioz sortu direla tokian-tokian nahiz oro har gero eta handiagoak diren arazo ekologikoak. Jokabide hori, hain zuzen ere, itsutasunaren, handikeriaren eta naturaren osagai guztiekin ezinbestean eduki beharreko mendetasun-loturekiko erabateko errespetu faltaren adierazgarri da. Hona hemen ekoizpenaren eta kontsumoaren gaur egungo egituraren ondorioz sortutako fenomenoak, bertan ingurune naturalarekin harreman iraunkorrik ez daukan merkataritza-hazkuntza ekonomikoa bakarrik kontuan hartzen duen ordena sozio-sinbolikoa delako nagusi: baliabide berriztagarriak eta ez-berriztagarriak agortzea, era guztietako kutsadurek bere horretan irautea, klima aldatzea eta biodibertsitatea bete-betean galtzea (Carrasco eta Tello 2012). Hala ere, krisi ekologikoak ere lotura estua dauka desberdintasunen, txirotasunaren nahiz miseriaren arazo larriekin, eta, gaur egun, ingurumenaren suntsipenaren beraren ondorioz sortutako txirotasun-modu berriekin ere bai.

Bigarren arloa zainketarena da. Bizi-zikloan zehar, giza bizitza duinaren alde garatutako etxeko eta zainketetako lan eskergaren bidez bakarrik mantendu eta garatu ahal izan dira gizakiak. Dena dela, badakigu lan hori emakumeek eurek garatu behar izan dutela beti, gizarte patriarkalak gutxietsitako eta ekonomiak inoiz ez aitortutako zeregin gogor bezain isilaren erantzukizuna hartu dutelako euren gain. Azken hamarkadotan, “zainketen krisia” sortu da, zenbait faktorerengatik: bizi-itxaropena luzatzeagatik, zahartzapen demografikoa areagotzeagatik, emakumeek lan-merkatuan gero eta partaidetza handiagoa izateagatik eta zainketetarako zerbitzu publikoen eskaintza urria izateagatik. Hori dela eta, agerikoa da emakumeen lan-eskaintza ez dela uste bezain mugagabea (Picchio 1999, Bakker 2003, Pérez Orozco 2007). Nolanahi ere, oraindik ere emakumeak eurak prozesu horren euskarri nagusia direnez, gaitzera itzela da eurentzat, eta zainketak gero eta ezegonkorragoak dira. Horren adierazgarri, gaur egun bizitzaren zainketarako antolakuntza soziala jasanezina dela esan beharra dago. Batetik, antolaera horretan, zainketaren zereginak etxera lekualdatu dira, eta, bestetik, oraindik ere, emakumeak baztertzen dituen desberdintasun tradizional patriarkala da nagusi.

Azkenik, modu ironikoan (lehenago aipatutako guztia birtuala izango balitz bezala) “benetako ekonomia” izena hartzen duen merkatu kapitalistako ekoizpenean, merkaturako diren ondasun eta zerbitzuen ekoizpena hartzen da kontuan. Lehen esan dugunez, ekoizpen horren helburu bakarra gehieneko mozkin lortzea da⁸, eta, horretarako, ez ditu kontuan hartzen ez pertsonen bizi-baldintzak, ezta naturan eragindako ondorioak ere. Beraz, gure ikuspegitik, ezin da iraunkorra izan pertsonen bizitzari barik mozkinen lehentasuna ematen dien jokabide hori. Sistema horretako erabakiak, gainera, modu pribatu bezain deszentralizatuan hartzen dira, norberaren onura handienaren bila. Hori dela eta, ez dator bat ekoizpen nahiz kontsumorako prozesuen arteko epe labur eta luzerako orekan eta errentaren, lanen zein denboren berdintasunezko banaketan oinarritutako sistemarekin, hau da, sistema iraunkorrarekin.

Labur esanda, erabat jasanezina da gehieneko mozkinetan oinarrituta dauden gizartearen gaur egungo funtzionamendua. Merkatu kapitalistaren logika giza bizitzaren iraunkortasunaren aurkakoa da, eta sistema sozialari eusteko oinarriak suntsitzen ditu. Natura eta etxeko nahiz zainketetako lana gaur egungo sistema ekonomikoaren oinarritzko bi zutabeak dira. Hori dela eta, zutabeak alde batera utziz gero, sistema bera eraitsi egingo litzateke ezinbestean. Izan ere, hazkuntza ekonomikoaren eta mozkinen zati bat bi iturri horietatik dator, gainera: baliabide naturalak ustiatzeko edo erauzteko eritmoak azkartzen dira, eta, batez ere, emakumeek egindako zainketa-lanak areagotzen dira. Zenbait emakume autorek “izebergaren ekonomia” moduan sinbolizatu dute egoera hori: ur-marraren gainetik, ekoizpena zein merkatu kapitalista egongo liriteke; eta, azpitik, natura nahiz zainketaren ekonomia, hau da, giza bizitzari eusten dioten esparruak. Dena dela, diziplina ekonomikoak esparru horiek ezkutatzen dituen, pertsonen bizi-baldintzen gaineko erantzukizun guztiak saihesten dira.

Azken batean, diziplina ekonomikoaren ikuspegi estuaren ondorioz, ezinezkoa izan da sistemaren iraunkortasuna eta iraunkorrezintasuna aztertzea eta horri buruz eztabaidatzea. Gizartearen gaineko begirada maskulinoak mundu publikoari eta merkataritzari baino ez die eman lehentasuna, eta, tradizioz, horixe bera izan da gizarteak gizonei esleitu dien lekua. Unibertsala omen den begirada horren eraginpean, gainerako arloak ezkutuan geratu dira. Hori dela eta, euskarri-kateko esparru guztiak eta euren arteko loturak agerian jartzea da ekonomia feministak eta ekonomia ekologikoak garatu ez duten zeregin garrantzitsuenetakoa. Izan ere, bertako mundu bateratu sozial eta naturala ugaltzeko gaitasuna galdu gabe gizaki guztien premiak asetzeko lan egiten duen ekonomia iraunkorrak “izebergaren” posizioa alderantzikatu behar du, ekoizpena zein merkatua komunitateen eta pertsonen zerbitzura egon daitezten.

⁸ Jakina denez, sektore publikoak eskaintzen dituen zerbitzuek ez dute jabetza pribatuaren bidez egindako ekoizpenaren berezko helburu hori.

Bibliografia

- Addabbo, Tindara eta Antonella Picchio (2009). “Living and Working Conditions: Perspectives, Concepts and Measures” in Bernard Harris, Lina Gálvez eta Helena Machado (ed.). *Gender and Well-Being in Europe*, Farnham eta Burlington: Ashgate.
- Bakker, Isabella (2003). “Neo-Liberal Governance and the Reprivatization of Social Reproduction: Social provisioning and Shifting Gender Orders” in Bakker eta Gill (ed.). *Power, Production, and Social Reproduction*, New York: Palgrave Macmillan.
- Barbé, Lluís (1996). *El curso de la economía*. Bartzelona: Ariel Economía.
- Barceló, Alfonso (1981). *Reproducción económica y modos de producción*. Bartzelona: Ediciones del Serbal.
- Becker, Gary (1981). *A Treatise on the Family*. Cambridge MA: Harvard University Press. [Gaztelaniazko itzulpena, *Tratado sobre la familia*, Madril: Alianza Editorial 1987].
- Bosch, Anna, Cristina Carrasco eta Elena Grau (2005). “Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo” in Enric Tello, *La historia cuenta*. Bartzelona: El Viejo Topo.
- Carrasco, Cristina (2001). “La sostenibilidad de la vida humana: ¿un asunto de mujeres?”, *Mientras Tanto*, 82, 43-70. or.
- Carrasco, Cristina, Cristina Borderías eta Teresa Torns, (2011). *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y política*. Madril: CIP-Ecosocial eta La Catarata.
- Carrasco, Cristina eta Enric Tello (2012). “Apuntes para una vida sostenible” in Maria Freixanet (koord.), *Sostenibilitats. Polítiques públiques des del feminisme i l'ecologisme*. Col·lecció Grana, 30. zk. Bartzelona: Institut de Ciències Polítiques i Socials.
- Dalla Costa, Mariarosa (1982). “Percorsi femminili e politica della riproduzione della forza-lavoro negli anni '70”, *La Critica Sociologica*, 61, [Gaztelaniazko itzulpena in “Trayectorias femeninas y políticas de reproducción de la fuerza de trabajo en la década de 1970”, Mariarosa Dalla Costa, *Dinero, perlas y flores en la reproducción feminista*, Madril: Akal, 2009].
- Dalla Costa, Mariarosa (1995). “L'arcanodella riproduzione oggi” in *Capitalismo Natura Socialismo. Rivista internazionale di ecologia socialista*, V. urtea [Gaztelaniazko itzulpena in “El arcano de la reproducción hoy”, Mariarosa Dalla Costa, *Dinero, perlas y flores en la reproducción feminista*, Madril: Akal, 2009].
- Gardiner, Jean (2000). “Domestic Labour Revisited: a Feminist Critique of Marxist Economics” in Susan Himmelweit (ed.).

Himmelweit, Susan (ed.) (2000). *Inside the Household: From Labour to Care*, London: MacMillan Press Ltd.

Himmelweit, Susan (2002). "Making Visible the Hidden Economy: The Case for Gender-Impact Analysis of Economic Policy", *Feminist Economics*, 8(1), 49-70. or.

Pérez Orozco, Amaia (2006). *Perspectivas feministas en torno a la economía: el caso de los cuidados*. Madril: Kontseilu Ekonomiko eta Soziala, Colección Estudios, 190.

Pérez Orozco, Amaia (2007). "Amenaza tormenta: la crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico". *Revista de Economía Crítica*, 5, 7-37. or.

Picchio, Antonella (1992). *Social Reproduction: the Political Economy of the Labour Market*. Cambridge: Cambridge University Press.

Picchio, Antonella (1999). "Visibilidad analítica y política del trabajo de reproducción social" in Cristina Carrasco (ed.), *Mujeres y Economía*, Bartzelona: Icaria.

Picchio, Antonella (2005). "La economía política y la investigación sobre las condiciones de vida" in Gemma Cairó eta Maribel Mayordomo (konp.). *Por una economía sobre la vida*, Bartzelona: Icaria.

Recio, Albert (2010). "Capitalismo español: la inevitable crisis de un modelo insostenible", *Revista de Economía Crítica* 9, 198-222. or. www.revistaeconomiacritica.org

Ekonomia Solidarioa eta Bizimodu Ona. Ekonomia berri baterako ikuspegi berriak

Magdalena León Trujillo

Ekonomista feminista, Emakumeak Ekonomia Eraldatzen Latinoamerikako Sareko –REMTE– kidea eta Gizarte Zientzien Latinoamerikako Kontseiluaren –CLACSO– “Feminismoa eta Aldaketa, Latinoamerikan eta Kariben” lantaldeko kidea



Aurrekariak

Bizimodu Ona/Ongi Bizitzea Ekuadorko eta Boliviako¹ konstituzioetan txertatu dute, gizarteen antolaketarako printzipio eta aldaketarako eragile giltzarri modura ulertuta, eta esperientzia historiko berdingabea izan da, zalantzarik gabe. Izan ere, zibilizazio mailako paradigma berri edo inflexio mugarri bat planteatzeaz gainera eta proposamen horretan aurrera egiteko hastapeneko baldintzak jartzeaz gainera, ikuspegi integral eta orokortzailearen konplexutasuna gorabehera, erronka bat ere jarri du mahai gainean: neoliberalismoak markatu edo egituratutako errealitate batetik trantsiziorako bideragarritasuna eraikitzeke erronka, hain zuzen ere. Hala, alderdi utopikoenek bat egiten dute alderdi aplikatuenekin, erronkaz beteriko garai eta testuinguru politiko batean.

Bizimodu Ona, goian aipatutako konstituzio eta paradigma terminoetan, ez da ikuspegi itxi edo amaitua, eta, are gutxiago, eredu². Prozesu konstituziogileen eskutik sortu zen, antzinako ikuspegiaren eta bilaketa garaikideen *sintesi berri* modura; kapitalismo neoliberalaren eta ordena neokolonialaren balizko alternatiba modura, eta bide 'propioa' irekitzeko printzipioak, esperientziak eta ikuspegiak artikulatzeko aukera emango duen ideia modura. Ildo horretatik, baditu elementu fundatzaile batzuk, nolabait esateko: betetasunezko bizitzaren lorpen kolektiboa proposatzen du, lankidetzan, osagarritasunean, elkartasunean eta justizian oinarrituta eta bizitza harturik sistema bakar, elkarrreraginezko eta aniztun gisa, gizakien eta naturaren arteko elkarrreragin gisa. Bizitzaren erreproduktzio hedatua bermatzen duten oreken eraikuntza etengabea da.

¹ Bi herrialde horiek, ingurune bereko beste batzuekin batera, Hiritar Iraultza eta Iraultza Demokratiko eta Kulturala izeneko aldaketa prozesuen sustatzaile dira, hurrenez hurren, estatuen *birfundazioa* ardatz dutela. Ekuadorko Errepublikako Konstituzioa 2008ko irailean onartu zuten, eta Boliviako Nazio Anitzeko Estatuarena, berriz, 2009ko otsailean. Artikulu honetan Ekuadorko kasua hartu da erreferentzia orokor modura.

² Politika publikoaren berehalako zehaztapenei aurre eginez, Bizimodu Ona 'metafora' edo 'ilusio inspiratzaile' modura interpretatu izan da kasu batzuetan, eta haren formulazioaren izaera orokorra erakusten du horrek.

Ekonomiaren esparruan, hasiera-hasieratik erakutsi zuen bazuela gaitasuna ordura arte modu nolabait paralelo edo sektorialean ziharduten planteamendu eta esperientzia alternatiboak uztartzeko. Hain zuzen ere, Bizimodu Onak ekonomiaren muinean argiago kokatzen ditu bizitza eta bizitzaren erreproduktzioa, eta, horrela, proiektatu egiten dira, hedatu egiten dira edo balio berriez hornitzen dira pentsamendu eta analisi ekonomikorako joera alternatibo askotarikoak, hala nola, ekonomia feminista, ekonomia ekologikoa, ekonomia ekumenikoa, zeintzuek hartzen baitute bizitzaren erreproduktzioa funtsezko prozesu material eta ekonomiaren xedetzat.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) eta Bizimodu Onaren arteko erlazioa pentsatzea bestelako ekonomia baten ikuspegiari buruzko eztabaiden agendaren baitan sartzen da; baina, aldi berean, zerikusia du trantsizioarekin, enuntziatu handiak politika eta ekintza bihurtzeko garaian errealitateko datu modura nabarmentzen diren baldintza zehatz orotarikoekin. Esparru horretatik abiatuta, elkarreragin batzuk ikertuko ditugu hemen, trantsizioak eta birkontzeptualizazio premiek dakartzaten paradoxa eta ziurgabetasunen erdian gertatzen direnak; baina zertzelada batzuk baino ez ditugu emango, berria den horren lanketa modura.

Bizimodu Ona, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren dinamizatzaile gisa

Bizimodu Onaren ekonomia etorkizunera begirako erronka da, batik bat; baina, ikuspegi gisa, berehalako baliagarritasuna erakutsi du esperientzia ekonomiko garaikideak azalera ateratzeko, balio berriez hornitzeko eta berrinterpretatzeko; baliagarritasuna erakutsi du esperientzia horien eraldaketa ahalmenak aurkezteko aniztasun eta demokratizazio ekonomikotik abiatu behar lukeen trantsizioaren giltzarri modura³.

Nabarmentzeko gertaera da, lehenik eta behin, ESS konstituzioan *sistema ekonomiko* gisa txertatu izana. Bizimodu Onaren enuntziatu eta helburuekin batera-

³ Trantsizioaren gaia garrantzizkoa da, baina orobat da berria eta gutxi landua. Marxismoak, doktrina sendoa eta gaurkotasan betekoa izanik ere, ez zuen eman formulazio osorik gai horri buruz. Hobsbawmek zera dio Marxek kapitalismoaren ordezkapenari buruz egindako aurreikuspenaz: ordezkapena 'sozialismoa ekarriko lukeen langileria zabal batek *'desjabetzaileak desjabetuz' gertatuko zelako aurreikuspena ez zegoen kapitalismoaren mekanismoaz egin zuen analisis oinarrituta, a priorizko zenbait aurreikuspenetan oinarrituta baizik... haren analisis, ikusten zen etorkizunari begirako itxaropena, baina ez hartatik eratorria'* (Hobsbawm, 2011, 24). Gaiger brasildarrak *'Marxek aztertutako feudalismotik kapitalismorako trantsizioa'* aipatzen du, eta planteatzen du *'trantsizioa iraupen luzeko prozesuetan ainguratzen dela, eta, hala, gizartearen bizitzan garrantzi berezia duen ezohiko unea dela... Indarrean dagoen sistemaren baitan konponezinak diren egiturazko gabezia kritiko batzuk behar ditu, elementu multzo berri bati loturik, osotasun koherente bat eratzeko, zeina izango baita erreproduzitzeko eta bere erreproduktzio logika gizarte sistemari ezartzeko gai'* (Gaiger, 2007, 94-95).

garría edo koherentea izango den eredu alternatibo bat identifikatzeko garaian, ESS jo zen egokien, haren alderdi praktiko eta etikotik, kapitalismoaren profil alternatiboaren esperientziak, analisiak eta diskurtsoak uztartzen dituen heinean, nahiz eta ez dagoen ikuspegi sistemiko hori biltzen duen teoria sendorik.

Ekuadorko Konstituzioaren 283. artikulua zera dio: *'Sistema ekonomikoa soziala eta solidarioa da; gizakia du subjektu eta xede; harreman dinamiko eta orekatsua sustatzen du gizartearen, Estatuaren eta merkatuaren artean, naturarekin harmonian; eta bizimodu ona ahalbidetzeko baldintza materialen eta ez-materialen produktzioa eta erreproduktzioa bermatzeko helburua du'*.

Konstituzioan Bizimodu Ona zuzenean ESSrekin identifikatuz, inoiz ez bezalako baldintzetan berreskuratu, balioetsi eta perspektiban kokatu ahal izango dira mendeko ekonomiako praktikak eta jarduerak, bizi iraupenari lotuta egon direnak edo pixkanaka azaleratuz joan direnak, nagusi den kapitalismoaren metaketa ereduarekin duten lotura dutela ere.

Berehalako inplikazio gisa, esan daiteke *'...benetako ekonomia aniztasuna eta aniztasun horren erlazio, logika, tentsio eta protagonista askotarikoak ezagutzeko edo azaleratzeko modu bat dela. Aukera ematen du iraupenerako eta erreproduktziorako antolatzen diren produktzio eta lan-moldeak ikusteko, batzuk aspaldikoak –hala nola, komunitate edo lantegi artisaua–, berriagoak beste batzuk –adibidez, kooperatibak–, baita entitate ekonomiko modura berriki ikusten hasitakoak ere, esaterako, etxeak'* (León, 2009).

Sistema bat ESSko sistema izendatzean, zabaldu egiten da agenda, eta lehentasuna galtzen dute haren ikuspegi sektorialekin –jarraibide jakin batzuen arabera ziharduten unitateen agregazio edo multzo batek osatutako esparrua– edo hibridazioak –hau da, ekonomia sozial eta solidarioaren sektorearen edo moldearen eta beste batzuen arteko elkarreragina eta bizikidetzatza–. Sistemaren erronka planteatuta, ikuspegi integrala eta politika ekonomikoko tresna jakin batzuk garatu behar dira, ekonomiak osotasunean bereganatu ditzan, idealki, funtzionamendu sozial eta solidarioarako jarraibide eta irizpideak. Eta hori ez da lortuko dagoeneko garatutako kontzeptu eta gailuen 'eskala aldatuta': ikuspegi makroekonomiko berri eta integral baterako jauzia egin beharra dago horretarako.

Halako erronka aurrez aurre izanik, nola lagun dezake Bizimodu Onak ESSko sistema bat proiektatzen?

Bizitza eta bizitzaren erreproduktzioa⁴ ardatz hartuta, beste ate bat zabaltzen da kapitalismoaren logikarekiko lehiarako, merkatuaren logikarekiko lehiarako.

⁴ Konstituzioaren artikulua horrek aipatzen duenez, 'gizakia du subjektu eta xede', baina Bizimodu Onaren ikuspegi horretan, *bizitza* oro har ez dagokio giza bizitzari soilik, baizik eta izaki eta forma bizidun guztien arteko sistema konplexu eta elkarreraginezkoari.

Bizitzaren erreproduzioa sistema integral gisa hartzeak zabaldu egiten ditu ekonomiaren mugak eta ziklo ekonomikoaren ikuspegia. Abiapuntu eta bide ‘heterodoxo’ moduan, horixe islatzen du Ekuadorko Konstituzioak, zenbait elementuren bidez⁵:

- Konstituzioaren testu osoan, pertsoneri, kolektibitatei eta eskubideei ematen zaie *lehtasuna*; esparru horretan mugitzen da ekonomia.
- *Bizimodu Onaren eskubideak* finkatzen dira -hala nola, uraren eta elikaduraren gaineko eskubide berriak-, baita eskubide horiek bermatzeko sistematik biltzen dituen *Bizimodu Onaren Erregimena* ere.
- *Garapenaren erregimena* ‘sistema ekonomiko, politiko, soziokultural eta ingurumeneko multzo egituratu, iraunkor eta dinamiko da, zeinaren bidez bermatuko baita bizimodu ona, *sumak kawsay* deritzona’, eta zenbait eduki berri zehazten dira horren baitan: partaidetzan oinarrituriko plangintza, elikadura subiranotasuna, subiranotasun ekonomikoa, lan-formak eta horien ordainketa, produkzio faktoreen demokratizazioa, truke ekonomikoa eta bidezko merkataritza.
- *Sistema ekonomikoa subiranotasun ekonomikoaren* baitan kokatzen da.
- *Antolaketa ekonomikorako hainbat molde* aitortzen dira: ‘publikoa, pribatua, mistoa, herrikoa eta solidarioa’, sektore kooperatibistak, elkarteak eta komunitateak barne hartuta.
- *Produkzioaren askotariko antolaketa moldeak* agertzen dira, adibidez, ‘... komunitarioak, kooperatiboak, enpresa publiko eta pribatuak, elkarteak, familiak, etxeak, autonomoak eta mistoak’.
- *Lana* gizarte eskubide modura birdefinitzen da, eta *eskubide ekonomiko eta ekonomiaren oinarri* modura; gainera, ‘lan-molde guztiak aitortzen dira, mendekotasunezko harremanetan oinarrituak nahiz autonomoak, norberaren mantenuko eta giza zaintzako zereginak barne hartuta’.
- Aitortzen da *‘jabetza eskubidea, molde guztietan*, gizarte eta ingurumen eginkizun eta ardura atxikita dituela’. Jabetza forma hauek, hain zuzen ere: ‘... publikoa, pribatua, komunitarioa, Estatuarena, elkarteena, kooperatiboa, mistoa’.
- *‘Jarduera ekonomikoak* bakarka nahiz taldean *garatzeko eskubidea*’ ezartzen da, ‘solidaritate, gizarte erantzukizun eta ingurumen erantzukizuneko’ printzipioekin bat etorrira (aurreko adierazpeneko ‘legeari atxikitako enpresa askatasuna’ haren ordez).
- Sistematikoki erabiltzen dira ‘unitate ekonomikoak’ edo ‘ekoizpen unitateak’ izenak, ‘enpresak’ izen generikoaren ordez.

⁵ Gai horri buruz, ikusi León T. 2008 (a).

- *Estatuak* “garapen nazionala *planifikatu* behar du; pobrezia erazi behar du, eta sustatu behar du garapen iraunkorra eta baliabideen eta aberastunaren birbanaketa parekidea, bizimodu onera iristeko”; erabakiak hartzeko *partaidetzako mekanismoak* aurreikusten dituen funtzio bat da, gainera.
- *Estatuak sektore estrategikoen gaineko kontrol eta erabakimen esklusiboak* ditu, ‘garrantziagatik eta neurriagatik ekonomian, gizartean, politikan eta ingurumenean eragin erabakigarria duten sektoreetan, eta eskubide eta interes sozialen erabateko garapenera bideratu beharko dira’.
- Politika ekonomikoaren eta zerga politikaren bidez, Estatuak bere gain hartzen du *diru-sarrera eta aberastasun nazionalak egoki banatzeko helburua*, transferentzia, ordain eta subsidioen bidez.
- Era berean, konpromiso aktiboa hartzen du politika jakin batzuk garatuz ‘ekoizpen faktore eta baliabideen metaketa saihesteko, horien *birbanaketa sustatzeko eta pribilegioak edo berdintasunik eza ezabatzeko*’
- *Erabaki ekonomikoetarako pizgarriak edo mugak* aipatzen dira: zer ekoizpen lotzen den balio erantsi handiko ekoizpena sustatzearekin, enplegu duina sortzen duen ekoizpenarekin, ingurumenari kalte egiten ez dion ekoizpenarekin; zer ekoizpen lotzen den sektore guztien ekoizpen nazionalarekin, bereziki elikadura subiranotasuna eta energia subiranotasuna bermatzeari eta enplegua eta balio erantsia sortzeari begira’.
- Finantza sistemak bere esparrua zabaltzen du; hain zuzen ere, ‘... sektore hauek ditu osagai: publikoa, pribatua, eta herritar eta solidarioa’, azken horretan sarturik ‘aurrezki eta kreditu kooperatibak, elkarteak eta erakunde solidarioak, kutzak eta banku komunalak, aurrezki kutzak’.

Postulatu horien giltzarrietako bat da Estatu indartzea eta lehengoratzea, ez soilik ekonomiaren *erregulatzaille* modura, baizik eta *eragile* modura (sektore estrategikoak, sektore publikoa). Bide horretatik, nola antola daitezke enpresa publikoak eta funtziona dezakete enpresa horiek ESSren irizpideekin bat etorrira? Gaingitu egin behar da merkatuetarako sarbidearen edo merkatuekiko lehiaren muga –behin eta berriz errepikatzen den auzia da nola izan dezaketen ESSek erosketa publikoetarako edo beste merkatu nitxo batzuetarako sarbidea–, espazio nazionalan nahiz nazioartekoan ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituzten –irabazi asmoko nahiz irabazi asmorik gabeko– unitate publikoen (oraindik enpresa deituen) ekoizpen eta kudeaketa eskemetara jotzeko.

Giltzarri aipagarria da, halaber, planifikazioa, baldintza berri hauetan kontrol publikoaz haratagoko hedadura eta esanahia harturik. Bizimodu Ona, bizitzaren erreproduzio hedatua eta onura komuna lortzeko, gizarteak bere gain hartu behar ditu eraldaketarako helburuak eta baliabide zehatzak, onartutako

adostasun konstituzionala aplikatuta. Ildo horretatik, plangintza berriak birdefinitu eta birkokatu egiten ditu baliabideak eta xedeak, kontuan harturik premia gero eta handiagoen eta muga biofisikoen –besteak beste– arteko oreka gizarte erantzukizuneko auzi bihurtu beharra dagoela errealitate berrian⁶. ESSren ikuspegitik, horrek tentsioa sortzen du autogestioaren printzipio eta helburuarekin. Nola uztartu plangintza eta autogestioa? Nola egokitu helburu komun handi horien lorpenari?⁷

Izendapena ere funtsezko alderdia da, testuinguru global batean gaudenez, inplikazio globalak baititu. Mundu osoan gauzatutako prozesu baten bidez, ‘sistema kapitalista’ izenaren ordez ‘merkatu sistema’ izenaren erabilera ezarri zen (Galbraith, 2004), eta izen horrek desitxuratu egin zituen eragileak, botereak, interesak, berdintasunik ezak eta kontraesanak. Merkatu sistema entitate neutral eta ‘natural’ gisa ez ezik, truke askeko sistema soil gisa ez ezik⁸, esparru, erlazio eta esperientzia ekonomikoak ezezko eran izendatzeko bide gisa ageri da, eta, bide horretatik, zer *ez diren* adieraziz –konparazioz– izendatzen dira horiek guztiak.

Hala, ekonomia garaikidearen sailkapenean, esaterako, ‘*ekonomia merkantila, ekonomia ez-merkantila eta ekonomia ez-monetarioa*’ izenak erabiltzen dira (Laville, 2004, 22), eta lan *ez-ordaindua* izena erabili izan da, luzaroan, zaintzaren ekonomiari atxikitako lanaren parte bat edo esparru hori oro har izendatzeko.

Bizimodu Onaren eta hark atxikita daraman aniztasunaren printzipiotik abiatuta, merkatutik eta merkantilismotik bizitzaren erreproduktzioa lerratzen da ekonomia-esperientzien, esparruen eta erlazioen konparazio eta baliozkotze irizpidea; horrela, izenak aske gelditzen dira, eta baiezko eran zabal daitezke, gertaera ekonomiko horiek bizitzari dagokionez dituzten ezaugarriak, funtzioak eta ekarpenak islatzeko moduan, betiere, indarrean dagoen kapitalismoaren egiturazko ezaugarrien erregistroa baztertu edo ezkutatu gabe.

Bizimodu Onak, halaber, zaintza eta zaintzaren ekonomia birkokatzen ditu. Bizitza-molde guztien elkarreragina –ez soilik giza bizitzarena– zaintza proze-

⁶ Ekuadorren, Konstituzioaren aurreko Garapenerako Plan Nazionalaren ordez, Bizimodu Onerako Plan Nazionala jarri zuten abian; tresna horrek gidatu zuen gobernuaren kudeaketa 2009-2013 bitartean, eta beste plan bat landu dute 2013-2017 aldirako.

⁷ Horrek zaildu egingo luke ekonomia ekonomikoak proposatzen duen ariketa kritiko-erakitzaile hau: etengabe ‘...*ebaluatzea zer den bizitzarekin eta guztion onurarekin bateragarria*’ (Duchrow eta Hinkelammert, 2003, 183).

⁸ Fase neoliberallean, baliabide eta erlazio ororen merkantilizazioa aldarrikatzen du kapitalismoak; hau da, horien pribatizazio eta kontrol erabatekoa, enpresa irizpideen arabera eta metaketaren zerbitzura. Horrela, merkatu-gizarte bat eratzten du materialki eta ideologikoki, merkatua trukerako mekanismo gisa hartzetik oso urrun.

suetan oinarritzen da, eta prozesu horiek lotura estua dute, halaber, lanarekin. Bizitza zaindu eta babestu egiten da, eta lana eta baliabideak behar dira xede horiek betetzeko. Bizitzeko baldintzak sortzeko dinamika material eta immaterialetan, funtsezko kategoria ekonomikoa da zaintza.

Bizitzaren orotariko adierazpenak loratzeko, egitea eta egiten uztea batzen dituen zaintzen logika bat behar izan da; zuzeneko lanarekin eta esku-hartzeekin batera birsortze eta berritze prozesuetarako laguntza ‘pasiboa’ baina presentea ematen duen logika bat (hala ikusi da bizitzaren oinarritzko elementuetan –uretan eta lurtean, adibidez– errotutako erlazioetan). Zaintzek, beraz, gainditu egiten dute giza bizitzari mugatutako sektore edo esparru ikuspegia, eta prozesu ekonomiko guztietarako beharrezko eta zeharkako logika modura ageri dira.

Ildo hori, gainera, baliagarria izan daiteke ekonomia feministaren eta ESSren arteko erlazioa birplanteatzeko. Erlazio hori inplizitu edo lauso egon da luzaroan, esparru horren partetzat hartzen diren esperientzien ‘feminizazio’ erlatiboa gorabehera. Haren azpian edo atzean, tentsioak sumatu dira elkartasunaren eta elkarrekikotasunaren artean, eta joera ikusi da lana sexuen arabera banatzen duten ereduak eta generoaren ikuspegitik bidegabeak diren beste eskema batzuk erreproduzitzeko. ESSk idealizatutako ‘unitate’ ekonomikoei begiratzeko halako joera bat izan da, ‘prozesu’ ekonomiko konplexu eta kontraesankorrei begiratzekoa baino gehiago, eta, horren eraginez, murriztuta egon da emakumeek Bizimodu Onaren bidez beste termino batzuetan baliozkotzen diren praktika, ekarpen eta eztabaidak berreskuratzeko eta ulertzeko espazioa.

Produktibitatea funtsezko kategoria da; sarritan, teknika eta neutral gisa hartu eta aplikatu izan da, eta hura berritu ezean aingura bihurtzeko arriskua dago. Beharrezkoa da produkzio sistemikoaren, sektoreen edo faktoreen ikuspegitik haratago jotzea, eta produktibitatea birkontzeptualizatzea, Bizimodu Onari begira, adierazi ez dezan hazkunde mugagabea eta eragingarritasun halaber mugagabea, baizik eta oreken sorrera eta erabilera optimoa, baldintza jakinetan –askotarikoak eta denboran zehar aldakorrak–, epe luzera begirako bizitza zikloen erreproduktzioa bermatzeko. Koadro honetan bildu dira, hain zuzen ere, birkontzeptualizazio horretarako elementu batzuk.

| Bizimodu Onerako produktibitatea | | | |
|----------------------------------|--------------------------------------|---|---|
| | Ikuspegi konbentzionala | Produktibitate sistemikoa | Bizimodu Onerako produktibitatea |
| Testuingurua | Kapitalismoari atxikia. | Kontzeptu aurreratuak paradigma neoliberallean: merkatu librea, baldintza eta jomuga. | Bizimodu Onaren ikuspegiarekin bateragarria izango den formulazio berri baten premia. |
| Helburuak | Irabaziak maximizatzea. | Eraginkortasuna maximizatzea. 'Gehiago lortzea, gutxiagorekin eta beti'. Bezeroen gogobetetasuna. | Iraunkortasun eta aniztasun ekonomikoa maximizatzea, giza eta ingurumen orekei eutsiz. Pertsona gehiago laneratzea justiziazko baldintzetan. |
| Oinarriak | Hazkunde mugatua. | Hazkunde mugagabea, merkatuak zabaltzea. Merkatuak herritarren premiak asetzen ditu. Merkatuarekiko lotura premiak asetzeko bidea da. Estatuaren eta gobernuaren funtzioa enpresen lehiakortasuna ahalbidetzea da. | Hazkunde kontrolatua, plangintza. Askotariko produkzio eta erreprodukzio logikak sendotzea. Produkzioa, bizitzaren zerbitzura. Planeta, bizi sistema gisa. |
| Erreferenteak | Merkatua. Enpresak. Negozioak. | Enpresak. Negozioak. Enpresa-kudeaketa (erabateko kalitatea, bezero gogobeteak). Akzioduna. Enplegatua. Bezeroa. | Herrialdea. Ekonomia unitate eta eragileen aniztasuna. Baliabideen erabilera arduratsua. Eskubideak. |
| Balioak | Lehiakortasuna. Irabazia. | Berrikuntza? | Lankidetzeta, elkartasuna, osagarritasuna. |

Egilea: M. León T.

Azken batean, Bizimodu Onak ESSrako eszenatoki, erronka eta aukera berriak markatu ditu, baina beharrezkoa da kontzeptuak eta estrategiak birsortzea eta muga sektorialak gainditzea, ikuspegi sistemikoetara jotzeko, trantsiziorako tresna eta bide zehatzak bilatuz.

Erronka komunak

Bizimodu Onaren eta ESSren proposamenek aurrekari komun bat dute: *esperientzia*. Aurrekari horrek, aldi berean, aukera adierazten du, bideragarritasuna. Hain zuzen ere, gure errealitateetako prozesuetan, erresistentzietan eta alternatiben bilaketan errotuta daudelako, lehian ari dira eta bidea irekitzen dute baldintza konplexu eta kontraesanezkoetan, baita aldaketarako indar-korrelazio positiboko testuinguru soziopolitikoetan ere, Ekuadorkoan, esaterako.

Proposamen horiek elkar sendotzen dute, elkar elikatzen dute; baina, era berean, beren bideragarritasuna mehatxatzen duten aingura neoliberalen pisua ere jasaten dute. Ildo horretatik, hauek dira erronka nagusiak:

- Proposamen horien izaera ekonomiko, sistemiko eta zibilizazio mailakoa berrestea eta sendotzea. ESSk zuzeneko eta zeharkako presioak jasaten ditu: baztertu eta ekonomiaren parte 'sozial', sekundario eta iragankor modura kokatu nahi duten presioak, hain zuzen ere⁹. Bizimodu Ona esparru filosofiko, kultural, sozial eta are ingurumeneko modura aintzat hartu ohi da, baina ez zaio zorrotasun ekonomikorik aitortzen. Politika publikoari dagokionez, instituzionaltasunak eta politika ekonomikoen baitako neurriek ESS osatzeko zailtasunean islatzen da hori, ESS gizarte esparruan soilik aintzat hartzen baita oraindik sarritan.
- Nortasun eta izen propioak finkatzea eta garatzea ESSren prozesu eta ekonomia unitateetarako. 'Ekintzailatza' izen orokorrak desitxuratu egiten ditu arlo honen berezko aniztasuna eta izaera; eredu bakar eta goren modura enpresa eredu kapitalista jartzen duen eta bitarteko ideologiko guztiak (bereziki eta oso modu kezagarrian hezkuntza sistema, maila guztietan) baliatuz zabaldu den teoria eta politika ekonomikoaren diseinu neoliberalerako estrategia baten mende gelditzen da.
- Estatuarekiko erlazioa ikuspegi berri batetik aztertzea. Hegoaldeko errealitateetan, bereziki *aldaketa bideratzen ari diren* herrialdeetan, neoliberalismoarekiko lehiaren ardatz nagusia Estatua lehengoratzea izan da, Estatua birfundatzea, arlo publikoa berreraikitzea, merkantilizazioaren nagusitasunari eta interes pribatuei aurrea hartzeko. Batzuetan,

⁹ Esparru ekonomikoa eta soziala arau neoliberalen arabera konfiguraturata egoteak ondorio bereziak ekarri dizkio ESSri (Ikusi León T., 2008 b).

autogestioan erroturiko Estatuaren kontrako diskurtsoarekin nahastu ohi da neoliberalismoan erroturiko diskurtsoa.

- Berriro aurkitzea eta lantzea errealitate orotan presente dauden bizitzaren oinarritzko elementuekiko loturak, horien alderdi materialak eta ekonomikoak. Bizimodu Onak nabarmentzen dituen gizakien arteko eta naturarekiko erlazio horiek testuinguru indigena edo landa testuinguruekin lotu ohi dira, mundu urbanoaz aparteak balira bezala, mundu urbanoaren merkataritza-kodeek eta kode ‘modernoek’ bizi prozesuak eta erlazioak *kosifikatu* dituzten heinean. Ardatz modura bizitza jartzen duen proposamenetik abiatuta, edozein testuinguru eraldatzeko bidea eskain dezake Bizimodu Onak.

Bibliografia

Duchrow, Ulrich eta Hinkelammert, Franz J. 2003. *La vida o el capital. Alternativas a la dictadura global de la propiedad*, DEI, San Jose, Costa Rica.

Gaiger, Luiz Inácio, 2007. ‘La economía solidaria y el capitalismo en la perspectiva de las transiciones históricas’, in *La economía social desde la periferia. Contribuciones latinoamericanas*, José Luis Coraggio (org), Altamira, Buenos Aires.

Galbraith, John Kenneth 2004. *A economia das fraudes inocentes*, Companhia das Letras, Sao Paulo.

Hobsbawm, Eric 2011. *Cómo cambiar el mundo*, Paidós / Crítica, Buenos Aires.

Laville, Jean-Louis (comp.) 2004. *Economía social y solidaria. Una visión Europea*, Altamira, Buenos Aires.

León T., Magdalena 2008 (a). ‘Democracia y diversidad económicas: un esbozo de las transformaciones constitucionales’, *Entre Voces* aldizkaria, GDDL, Quito.

2008 (b). La economía solidaria en la búsqueda de un ‘nuevo modelo’”, in *Economía social y solidaria*, América Latina en movimiento 430. zk., ALAI – RILESS, Quito.

2009. ‘Cambiar la economía para cambiar la vida. Desafíos de una economía para la vida’, in *El buen vivir. Una vía para el desarrollo*, Alberto Acosta eta Esperanza Martínez (bild.), Abya-Yala, Quito.

04

Bizitza on batekin bateragarria izango den ekonomia eraikitzeko ikuspegi

Yayo Herrero López

Ecologistas en Acción-eko koordinatzailea.



Pertsonen bizitzak bi mendekotasun saihestezin izaten ditu, ohiko ekonomia-aren eskema teorikoetan ikusezinak diren bi mendekotasun, nahiz eta giza izaeraren oinarritzko atalak izan.

Lehenik eta behin, naturaren mende gaude. Eta bizirik irauteko behar dugun guztia naturatik badator ere, ematen du mendebaldeko gizarteak ez direla horretaz jabetzen, eta errotiko haustura ezartzen dute pertsonen eta gainerako mundu biziaren artean. Hori, gainera, guztiz malkartsua bihurtzen da ekonomia kapitalistaz hitz eginez gero.

Baina, horretaz gainera, elkarren guztiz mendekoak garen izakiak gara. Gure bizitza-ziklo osoan zehar, beste pertsona batzuek eskaintzen diguten lanorduen mende bizi gara. Gure gorputzak hauskorrak dira, eta zahartu egiten dira, gaixotu eta, azkenik, hil egiten dira. Bakardadean bizirautea guztiz ezinezkoa da.

Kapitalismoa eta ideologia neoliberalak giza bizitzaren mendekotasun material bi horiei atzea emanda bizi dira, eta ez diete jaramonik egiten mendekotasun horiek gizartei ezartzen dizkieten mugei edo hertsatzei. Ekonomiak gorputzen eta lurraldeen gainetik hegan egingo balu gisa jokatzeko dute, mugei begiratu ere egin gabe, eta ekonomikoaren –merkatuan moneta-terminoetan neurtzen dena– eta ez-ekonomikoaren –dirutan neur ezin litekeen guztia– arteko dikotomia ezartzen dute.

Mundu publiko eta agerikoa merkatuaren eta ekonomiaren mundua da, pribatua ez-ekonomikotzat jotzen diren harremanena. Ere mundu publikoa produkzioaren eremua da, eta pribatua erreproduzioarena. Azken hori, azaldu-tako mekanismoaren arabera, hutsala, bigarren mailakoa bihurtzen da, edo, besterik gabe, ez da existitzen.

Logika dual eta erredukzionistatik, ohiko adierazle ekonomikoak ez dira gauza iraunkortasunaren eta ongizatearen ikuspegitik ezinbestekoak diren prozesuak, ondasunak eta lanak aberastasun gisa kontabilizatzeko, eta, are gehiago, haien narriadura eta konponketa aberastasun bezala kontabilizatzeko gai dira. Halatan, gerrarekin, gaixotasunekin edo ingurumenaren suntsipenarekin

lotutako negozioak, azkenerako, aberastasun gisa jartzen dira moneta-truke bezala jasotzen dituzten adierazleetan.

Mundua ulertzeko modu horrek, azkenerako, jabetza pribatua eta hazkunde ekonomikoa sakratutzat hartzen dituen fundamentalismo ekonomikoa elikatu du; berdin da baliabide mugatuak agortzen badituzte, hondakinak jasan ezinezko neurrietaraino sortzen badituzte, pertsonen arteko desberdintasun izugarria eragiten badute eta biosferaren eta gizartearen konplexutasuna erabat sinplifikatzen badute ere.

Ekofeminismo kritiko batek mundua birpentsatzen laguntzen digu

Ekologismoa kritikoa da ikuspegi nagusi horrekiko, eta baliabide mugatuak dituen Lur planetaren eta etengabeko espansionismoan oinarrituta dagoen eta metaketaren dinamikak eraginda hazten den sistema sozioekonomikoaren arteko gatazkaz ohartarazten digu. Feminismoak, era berean, beste kontraesan sakon bat erakusten du: giza erreproduzioaren eta ongizatearen eta kapital-metaketarako prozesuaren artekoa.

Ekofeminismoa filosofia eta jardunbide feminista da, eta gaur egungo kontraesanak birpentsatzeko, ikusmolde nagusiak iraultzeko eta gizakien eta naturaren arteko harreman mota berriak proposatzeko, gure ustez, beharrezkoak diren gakoak eskaintzen ditu; naturako prozesuen dinamikarekin harmoniaz eraikiko den bakearen kulturarantz abiatzeko, hain zuzen ere.

Ekofeminismo guztiek ikuspuntu berbera dute; hau da, emakumeek gizonen aurrean duten mendekotasunak eta naturaren ustiapenak logika berberari erantzuten diotela: gizakion zein naturaren bizitzaren azpirakuntzari eta baliogalerari. Ekofeminismoak mendebaldeko mundu-ikuskerari eusten dioten oinarritzko kontzeptuen (zientzia, ekonomia, lana, produkzioa...) berrikusketa kritikoa egiten du. Merkatuen helburu nagusia ez bada gizakion beharrak asetzeari, ez da zentzuzkoa haiek gizarte-antolaketaren oinarri pribilegiatua izatea, ez da zentzuzkoa ohiko ekonomiaren logika izatea lurraldea eta pertsonen denbora antolatuko dituen edo politika zuzenduko duena.

Horregatik, erdigunean pertsonon bizitza jarriko duen ekonomia eraikitzeak asmoa duen edozein ekimenek, gure iritzian, ikuspuntu hori jaso behar du. Gako nagusietako bat biosferaren mugak onartzea da, eta ezinezkoa dela neurrigabeko erauzketaren eta hondakinak sortzearen bidezko hazkundeak. Muga hori abiapuntutzat hartuta, galdera hauei erantzuteko gauza izango den ekonomia eraikitzea da erronka: Pertsona guztion zer behar ase behar dira? Zein dira behar horiek ase ahal izateko ezinbesteko ekoizpenak? Zein dira helburu hori lortzeko gizartearen nahitaezkoak diren lanak eta jarduerak?

Erantzunak kontuan hartuta, ikusmolde androzentrikoa gaindituko duen ekoizpen-, banaketa –eta kontsumo– eredu birpentsatu beharko genuke, ekonomia biosferaren azpisistema gisa jarriko lukeen eredu.

Ezer ere ezin da etengabe hazi mugak dituen planeta batean

Lur planetaren materialak ez dira agortezinak, eta, beraz, materialon erauzketa eta erabilera ezin liteke mugagabea izan. Edozer jarduerak sortzen dituen hondarrek eta hondakinek degradatzen dituzten isurbideek ere badituzte mugak.

Baliabide berriztaezinak mugatuta daude; dagoena baino ez dago. Berriztagarriak, kantitateari dagokionez, ez daude mugatuta, baldin eta erabilera zuzena bada eta birsortzeko erritmoak errespetatzen badira. Eguzki-energia ez dago mugatuta, ez kantitateari dagokionez, ez erabilera-tasari dagokionez; baina energia jasotzeko egiturari dagokionez (fotosintesia egiten duten izakiak edo eguzki-plakak), ordea, mugatuta dago.

Planetak mugak baditu, bai baliabide-iturrien ikuspuntutik, bai hondakinak degradatzeko aukeretatik, bertan ezin liteke ezer ere mugagabe hazi. Sistema ekonomikoa, ezinbestean, biosfera-sistemaren barruan dago, materialak eta energia behar ditu, eta hondakinak eta beroa isuri behar ditu. Ondorioz, sistema ekonomikoa ezin liteke mugagabeko hazkundearen terminoetan antolatu.

XX. mendean, gizateria, termino ekologikoak kontuan hartuta, mundu huts batean bizitzetik, *mundu bete batean bizitzera* pasatu zen. Pertsonen gizarteek eta haien ekonomiek biosferan eragin txikia zuten garaiak iraganeko kontua dira. Mathis Wackernagelek zuzentzen zuen zientzialari talde baten arabera, gizateriaren eskari globalak 1980an gainditu zuen lehenengoz Lurraren birsortzeko gaitasuna. Handik bi hamarkadara, pertsonen eskariak, gutxi gorabehera, %20an gainditzen zuten biogaitasun hori¹. Harrezkero, gero eta egoera jasanezinagoan gaude.

Beraz, irten egin behar dugu logika maltzur horretatik. Mugak dituen planeta batean ezinezkoa da neurrigabeko hazkundeak ezartzea; erabat murriztu behar da energia –eta material– erauzketa, eta askoz ere hondakin gutxiago sortu behar da. Biosferaren mugetara egokitu behar dira. Hazteagatik haztearen fundamentalismo ekonomikoa gainditzeko ez dugun arte, eta hazkunde horri eusten dioten ekoizpenen izaera kontuan hartu gabe jarraitzen badugu, prozesu ekonomikoa ez da bateragarria izango iraunkortasunarekin eta berdintasunarekin.

¹ Wackernagel M. & Rees, W (2001). *Nuestra Huella Ecológica. Reduciendo el impacto humano sobre la Tierra*. LOM Ediciones. Txileko Santiago, 2001.

Planeta mugatu batean materialki hazten jarraitzea ez da iraunkorra, eta aukera bakarra baino ez dago, energia –eta material– erauzketa errotik murriztea, eta askoz ere hondakin gutxiago sortzea, alegia; hori guztia, biosferaren mugetara egokitu arte, hain zuzen ere. Esfera ekonomikoaren tamaina murriztea ez da aukerako kontua. Petrolioia eta mineralak agortzeak, klima-aldaketak eta naturako zikloen aldaketek horixe eragingo dute. Gizateriak, nahitaez, gutxiagorekin bizitzera ohitu beharko du, eta egokitzapen horretarako bi bide daude: baliabideak erabiltzeko borroka latz baten bidez edo berregokitzeko prozesu lasai baten bidez, berdintasun-irizpideak erabilita.

Paradoxikoki, buru-belarri jarraitzen dute neurritz gain kontsumitzen jarrai dezagun adoretzen. Agintariak eta eragile ekonomikoek pertsonak poltsikoan dugun euroetako bakoitza gastatzeko eskatzen digute, ekonomia susperitzeko; baina horrek agerian uzten du kontsumitzailearen subiranotasunaren iruzurra. Aitzitik, kontsumitzeko betebeharrari lotuta gauzkate, edozer egiten dute erabat irrazionala den eredu hau eror ez dadin.

Bizitzari eusteko produkzioa, eta ez bizitza suntsitzekoa

Zer ekoitzi behar dugun zehazteko, giza beharrei erreparatu behar diegu lehenik eta behin. Behar horiek bidezko modu batean asetzeko hura ekoitzi behar da; hau da, guztiontzat.

Naturak ekonomia iraunkor eta produktibitate handi baterako eredua ematen digu. Naturekin bateragarria izango den ekonomia, funtzionatzeko modua kopian diona, gehienbat baliabide berriztagarrietan eta gertukoetan oinarritzen dena izango da, ziklo materialak itxiko dituen eta naturaren erritmo geldoak errespetatuko dituen.

Ziklo materialak ixten laguntzeko, Naredok dio, lurrazaleko mineralak erauzteko eta erabiltzeko kostuak erregistratu ez ezik, *birjartzeko kostuak ere idatzi*² behar direla; hau da, hondakinak baliabide natural bihurtzekoak. Izan ere, eta egin ezean, kontu ekonomikoetan degradazioa kendu ezean, natura-ondarea suntsitzen jarraituko genuke.

Zerga-sistema ekologikoak, ildo horretan, aldatu egin nahi du zergen oinarria; alegia, balio erantsiaren ordez, baliabideak sistema ekonomikora erauztean (eta hondakinak sortzean) eragiten den isuri materiala ezarri nahi du oinarri gisa.

Horrez gain, premiazkoa da *arretaren printzipioa* ezartzea; hau da, galarazi egin behar dira lurraldeetarako eta pertsonentzako kaltegarriak ez direla erakutsi ez duten teknologiak eta produktuak.

² Naredo, J.M. (2006) *Raíces económicas del deterioro ambiental*. Madril. Siglo XXI.

Eta ez da nahikoa zer eta zenbat ekoitzi jakitea; zenbat kontsumitu daitekeen ere zehaztu behar da. Horretarako, eskaria kudeatzeko politikak ezar litezke, ahal denaren gainetik kontsumitzen duten pertsonen eta gizarte-sektoreen kontsumoa murrizteko, bai Iparraldean, bai Hegoaldean. Horrela, ekonomia-aren metabolismoko parte diren materialen eta hondakinen kopuruaren murrizketa garbia lortuko dugu.

Ekoizpen-eredu berri bat ezartzeko, lurraldeari begiratu behar diogu, eta ekonomia berrantolatu behar da, bokazioak errespetatuta. Eredu lehor batean ezinezkoa da laborantza ureztatua erabiltzea, edo hari luzaroan eustea, eta ez da zentzuzkoa eremu erdibasamortutar batean golf-zelai bat ezartzea.

Mugimendu ekologistek eta feministek lurraldea eta hirigintza antolatzeke egindako proposamenek beste ikuspuntu bat ezartzen dute, lurraren gainean pauso arinagoa egingo duen bizitza-forma bat diseinatzeke.

Tokiko eta eskualdeko merkatuak eta merkaturatzeko zirkuiturik laburrenak sustatzea ezinbestekoa izango da jatorri fosileko energia-iturriak gainbehera dituen eta berotegi-efektua eragiten duten gas gutxiago bota beharko dituen mundu batean.

Metabolismo ekonomikoa birmoldatzeko beste ardatzetako bat motordunen mugikortasuna murriztea izango da; hau da, gizarte-antolaketa gertutasunaren eta motor gabeko garraioen bidez antolatuta (eta motorduna izan behar bada, garraio publikoa).

Bizitzako aldietarako politika bat

Laneko (lan guztietako) denboren berrantolaketa ere bada ardatz politikoe-tako beste bat. Ordaindutako lan jardunaldia murriztuz gero, eta, era berean, gizartean laneko denbora guztiak (ordainduak eta etxeokak) banatuz gero, bestelako gizartea antolatu ahal izango litzateke.

Historian zehar, enplegua ekonomiaren atzeraldi sasoietan suntsitu izan da, eta horiek izaten dira desiragarriak ez diren jarduera ekonomikoek hitz egiteko unerik txarrenak. Hala ere, planetaren mugei eta gizakiaren ongizateari erreparatuz gero, eta bizi dugun krisitik atera nahi badugu, jarduera batzuek behar egin beharko dute, bizitzarako kaltegarriak direlako eta ez dituztelako gizakion beharrak asetzen.

Edozer sektoretan, ekoizpen-ehuneko aldaketak balioestean, printzipio bakarra ezin liteke enpleguari eustea izan, hori adabakiak jartzea baino ez delako eta ez duelako egiturazko arazorik konpontzen.

Gizarterako desiragarriak ez diren sektore edo jardueretako enpleguei (arma-ekoizpena, energia nuklearra, automobilgintza edo finantza –edo higiezin–burbuilen inguruan sortu diren lanpostuak) ezin zaie eutsi. Lan horiek egiten dituzten pertsonak beharrezkoak dira, eta, beraz, sektoreak desegin ahala, berregituraketa plana eta laguntza publiko handiak ere ezarri beharko liriateke, bestelako ekoizpen-eredu baterako trantsizio justuak ezartzeko.

Baina, lan-eredua berregituratzeari dagokionez, behinena gizarterako beharrezkoak diren lanak ezartzea, agerraraztea eta balioestea da (gizakion ongizaterako ezinbestekoak direnak; ordainduak zein ez). Nahitaezkoa da etxeetan gizartearen erreprodukzioa ahalbidetzen duen lana lan gisa aitortzea, eta ez da nahikoa lan hori garrantzitsua dela esatea; patriarkatuak lana sexuaren arabera banatzeko ezartzen duen eredia gaingitu behar du, eta emakumeen eta gizonen artean banatu behar da.

Pertsonen ongizateari egiten dioten ekarpenaren arabera zerrendatuko bagenitu lanak, zaintza-lanak lehenetsitako batean leudekeela ikusiko genuke. Erdian bizitzari eustea jarriz gero, gizartearen erreprodukzioaren eremuak eta “etxeko ekoizpenen” arloak ikusezintasuna gaingitzen dute, agerian jartzen dira, eta lehen mailako nukleo ekonomiko bihurtzen dira.

Hondakinak ateratzeko eta sortzeko bidean atzera egiteko modu bat (lankidetzaz sustatzeaz gain) ondasun material tradizionalen –ingurumen-inpaktu handikoak– ekoizpen-eskaria ondasun erlazionalak bideratzea izango litzateke; izan ere, haientzat, ekonomia solidarioak edo zibilak berariazko abantaila konparatiboa du.

Mauro Bonaiutik ondasun erlazional³ gisa izendatu dituenen “ekoizpena” bultzatzea da kontua. Ondasun erlazionalak norberak bakarrik goza ezin ditzakeen “ondasunak” dira, eskaintzen duenaren eta eskatzen duenaren arteko harremana eskatzen dute, esate baterako, pertsonentzako zerbitzuak (zaintza, ongizatea, laguntza); baina baita zerbitzu kulturalak, artistikoak edo espiritualak ere.

Ondasun erlazionalen ekoizpen hori “zaintzaren ekonomiakoa” da, pentsalari feminista askok azpimarratu duten bezala.

Riechmannek dio Estatuak ondasun publikoak ekoizten dituela, merkatuak ondasun pribatuak eta “hirugarren sektoreak” (batez ere emakumeek bermatzen duten etxeko ekoizpena ere barne) “elkarbanaketako ekonomiako” berezko ondasun erlazional kolektiboak⁴.

³ Bonaiuti, M. (2006) *A la conquista de los bienes relacionales* en Colectivo Revista Silence, Barcelona. Leqtor 42. eta 43. or.

⁴ Riechmann J. (2008) *Op.Cit.* 317. or.

Aberastutako gizarteetan badago bizitza-kalitaterako berariazko eskaria. Baina eskari hori ezin liteke ase ondasun tradizional gehiago ekoiztuta. Arretarako, zaintzarako, ezagutzarako eta parte-hartzerako eskaria da. Era horretako ondasunak ekoizteak materia – eta energia-kantitate oso txikiak degradatzea eragiten du. Baina, hala ere, etorkizuneko balio-ekoizpenaren parte garrantzitsua izan litezke.

Herrialde txirotuetan, horrek esan nahi du ezin ditugula, beste ezeren gainera, garapenaren izenean gizarte-loturak eta familia-sareak hautsi, garapen horrek, arrazoi ekologiko eta ekonomikoengatik, ezin izango dituelako mendebaldeko garapenaren ezaugarriak bereganatu.

Ekologiari dagokionez, era horretako aldaketa baten ondorioak oso desiragarriak izango liriateke; izan ere, gizarte-produkzioak produkzio materialak baino materia eta energia kopuru askoz ere txikiagoak erabiliko litzuzke. Baliabideen higadura oso mugatua izango litzateke; hau da, balio eta ongizate maila oso handiak izango genituzke. Beste alde batetik, giza jardueran oinarritzen da, eta teknologiak ezingo luke ordezkatu, industria tradizionalen kontrakoa, beraz. Kontsumo-ondasunak ikaragarri murriztea izango litzateke kontua, ondasun iraunkorak eta erlazionalak egiteko, eta ohiko ekonomiaren itsukeria gaingituko genuke, ongizatea eta balioa kontsumitu genitzakeen ondasunen emarira mugatzen duelako.

Ikuspuntu horretatik, lotura argia dago iraunkortasun ekologikoaren eta erreprodukzio ekonomiko-sozialaren artean. Pertsona guztien beharrak aseko dituen ondasunak ekoiztearen bidezko ekonomia solidarioa zabaltzeak ez du soilik materiaren/energiaren degradazioa murriztea lortzen den lekuan bertan sortzen balio ekonomikoa, izan ere, ekonomia justua eraikitzeko bide indartsua ere bada, gaur egun ikusten ari garen aberastasunaren kontzentrazio-prozesuak berrerekatu egingo litzuzkeelako. Ondasun eta zerbitzu asko, etorkizunean, irabazi asmorik gabeko erakundeek egin ahal izango litzuzkete, ekonomia solidarioaren irizpideen arabera; adibidez: kalitatezko nekazaritza –eta elikadura– produkzioa, tokian oinarritutako energia-produkzioa, artisautza, zerbitzuak, kasu bakan batzuk aipatzearen.

Era horretako ondasunak ekoizteak materia –eta energia– kantitate oso txikiak degradatzea eragiten du. Baina, hala ere, etorkizuneko balio-ekoizpenaren parte garrantzitsua izan litezke.

Aberastasuna banatzea

Tradizioak agintzen du banaketa merkataritza-produkzioaren hazkundearen mende dagoela. Ohiko ekonomiak errezeta bakar bat baino ez dauka ongizatea lortzeko: haztea, banaketaren auzi gogaikarriari itzur eginez. Hala ere, gaur

egungo produkzio-ereduan, fisikoki mugatuta dagoen gure planeta honetan, hazkundea ezinezkoa da. Hala, ongizatea berriz ere lotzen zaigu banaketarekin, funtsean politikoa den auziarekin.

Lurraren banaketa bera ere auzi nagusia da berez. Kontua nekazaritza industrialari, hirigintzako espekulazioari, galipotaren zabalkundeari eta porlanari lurra kentzea da, tokian tokiko nekazaritza sistema ekologikoak ezartzeko.

Gutziz premiazkoa da hiritarren oinarrizko errentari edo soldata osagarri buruzko ikerketak eta eztabaidak egitea. Era berean, interesgarria izango litzateke gehieneko errenta ezarri ahal izatea ere. Kolokako eta gutxi ordaindutako lanpostu asko eta asko dauden bezala, soldata garbia murriztu ahal izango luketenak ere badaude, bizitza-baldintzetan eraginik izan gabe.

Desberdintasunak murrizteak jabetzaren inguruko eztabaida dakarkigu mahai gainera. Gure gizarteak bertako kide diren pertsona guztien eskubideen berdintasuna babesten du, baina, aldi berean, berez onartzen du jabetza-eskubideetan alde ikaragarriak egotea. Kultura iraunkor eta bidezko batean bereizi egin beharko lirarteke erabilerari lotutako jabetza eta metaketari lotutakoa, eta azken hori mugatu.

Metaketa mugatzeko eta desberdintasun mailak murrizteko, ezinbestekoa da finantza-zabalkunde globalizatua eragotziko duten arauak ezartzea, banke-txeen neurria arautzea, haien jarduna kontrolatzea, diru finantzarioa eta banka-dirua sortzeko aukerak mugatzea, eta zerga-paradisua kentzea, oligarkek beren ondarea eta negozioak Estatuko legeetatik kanpo jartzeko biderik izan ez dezaten.

Aberastasunaren birbanaketa zuzen baten alde eginez gero, zerbitzu publiko indartsuak eta zerga-sistema progresiboa izango genituzke, eta gastu publikoaren lehentasuna ongizatera bideratuko litzateke: osasunera, hezkuntzara, herritarrak babestera eta zaintzera.

Esperientzia alternatiboak jagotea, eta haietan parte hartzea

Gaur egungo eredu aldatu eta giza bizitzaren eta naturaren iraunkortasuna erdigunean jarriko duen beste eredu baten alde lan egiteak ez du esan nahi esperientzia eta ekimen alternatiboak ezin abiaraz daitezkeenik. Are gehiago, proiektu solidario eta iraunkor autogestionatuek kolokan jartzen dute neoliberalismoaren nagusitasun ekonomikoa eta kulturala.

Milaka dira Estatu osoan nekazaritza ekologikoko kooperatibetan antolatuta dauden pertsonak; finantza-zerbitzuetarako kooperatibak ere badaude

(adib.: Coop 57 eta Banca Ética Fiare); zaintzarako sareetan antolatuta dauden pertsonak ere bai, haurren beharrei aurre egiteko; adindunentzako egoitza autogestionatuak egiteko egitasmoak daude, elkarlaguntzan oinarrituak; kooperatiba integralerako eta gizarte-merkaturako proiektuak; komunikabide alternatiboak...

Esperientzia horiek gizarte-laboretegi handiak dira, eta bertan parte hartzen dutenen behar zehatzak asetzen dituzte. Garrantzitsua da proiektu horiek zaintzea eta maitatzea, nahiz eta txikiak izan eta oraindik alternatiba global bat ez izan.

Ikuspuntu ekologikoa eta feminista ezinbestekoak dira ekonomia politikoan. Haiek gabe, ia ezinezkoa da biosferarekin bateragarria izan litekeen eta desberdintasun mota guztiei erantzun egiten duen eredurik sortzea. Ikuspuntu batak zein besteak babesten dute bizitzaren iraunkortasunari lotutako ekoizpen-eredua eta bizitza hori erdigunean ipiniko duen eredu ekonomikoa.

Pentsamendu kritikoaren hainbat alorretan egin dira proposamen bideragarriak, eta, beharbada elkarrekin ondo lotuta ez dauden arren, gauzatzeko modukoak dira. Hor daukagu egiteko garrantzitsu bat: ikuspegi partzialak gainditzea, eta kontakizun komun batean sartzea guztiak.

Hala ere, erronkarik handiena oldar neoliberalaren eta, oraindik, urria den gizarte-erantzunaren arteko indar-korrelazio desberdinari aurre egitea da. Arazorik handiena, gure ustez, bizi ditugun garaiotako neurrien gogortasunaren eta haiei aurre egiteko dugun gaitasunaren arteko alde handia da. Gaur, al-daketa eragin ahal izateko botere politikoa falta zaigu.

Hauxe da gakoa: bildu eta bateratuko gaituen gizarte-mugimendua sortzea, galga jartzeko eta eraikitzeko gauza izango den mugimendua. Ezin pentsa gezake gizartearen eta ingurumenaren kolapsoa laguntzera etorriko zaigunik. Ez badugu mugimendua sortzen, kapitalismo honek atzetik ekar lezakeena are okerragoa izan liteke.

Taldekoa berreraikitzen, lankidetzaz sustatu

Gure “mundu bete” hau ingururik ez duen mundu gisa ere ulertu behar da. Globalizazioa zer den argitzeko eskaintzen diren azalpen guztiak ideia bakarrean batzen dira: *mundua ingururik gabe geratu da, bazterrik gabe, kanpoalderik gabe, aldiririk gabe*⁵. Gure mundua sistema bat da; hau da, ez du ezer ere uzten bertatik kanpora, dena sartzen du barruan, lotu eta integratu egiten du, kanpoan ez du ezer ere aske, isolatuta, independente uzten.

⁵ Innerarity, D. (2004) *Un mundo sin alrededores*. *El Correo*, 2004ko maiatzaren 23a.

Ingururik gabeko mundu batean krisi ekologikoak, osasun publikoak, merkatuek, teknologiak edota politikak guztiari (globalari) eta tokikori eragiten die. Interdependentzia saihestezina da, eta haren mende dago giza espeziearen biziraupena. Gure egoera latzetik ateratzeko, lankidetzan aritu behar dugu, eta talde-estrategiak ezarri behar ditugu.

Giza espeziea inguruan beste milioika izaki bizidun dituela garatu izan da, eta biosfera bakar batean guztiak. Eboluzioaren prozesu historikoan zehar lankidetzarako elkarrekintza-sare konplexu bat sortu da izaki bizidun guztien artean, ekosistemek iraun ahal izateko. Horrela, naturan dena dago elkarrekin lotuta, eta espezieen artean sinbiosi-harremanak dira nagusi; hau da, espezie desberdin biren edo gehiagoren arteko mendetasun-harremanak, lankidetzaharremanak, lehiakortasunaren aurrean.

Merkatu-ekonomiak ez die gizartearen oinarrizko beharrei erreparatzen. Carrascoren esanetan, giza bizitzaren iraunkortasunaren eta etekin ekonomikoaren artean, mendebaldeko gizarteek bigarren horren alde egin dute. Horrek esan nahi du pertsonak ez direla lehentasunezko gizarte-objektua, baizik eta ekoizpenaren zerbitzura daudela⁶. Guztiz kontrakoa, kontsumo-gizarte modernoaren ezaugarria individualismoa da, eta lanean eta gizartean lehiakortasuna sustatzen da. Merkatu-ekonomiaren estrategia herritarra edo norbanakoa isolatzea izan da; salgaien kontsumoa eta moneta-zerbitzuak areagotzeko, hain zuzen ere. Kontsumismoa helburu bihurtu da; kontsumismoa da orain pertsonen bizitzaren objektua, bertan oinarritzen dira arrakasta eta gizarteko onarpena, baita, antza denez, zorientasuna ere.

Zorientasuna eta diru-sarrerak lotzen dituzten hainbat azterketa soziologiko egin dira, esate baterako, 1990 eta 2000. urteen artean 65 herrialdetan baino gehiagotan egindakoa. Azterketa horiek diote diru-sarrerak (eta kontsumoa, beraz) paraleloki hazten direla atalase-maila bateraino, urtean 13.000 dolar inguruko diru-sarreretaraino. Orduan, balio horretatik aurrera, kontsumoaren igoerak beherakada bat ere eragin dezake zorientasunaren pertzepzioan⁷.

Eraitzen arabera, zorientasunak gora egiten zuen diru-sarreraren mailaren arabera, baina urteko 13.000 dolarretarainoko atalase bateraino; kopuru horretatik aurrera, uste litekeenaren kontra, zorientasunaren pertzepzioak behera egiten zuen.

Gaur egun, pertsona asko ari dira beren bizitza-modua aldatu nahirik, alternatibak nahi dituzte, eta elkarteak bultzatu nahi dute auzoetan edo hirietan, maila

⁶ Carrasco (2001) *La sostenibilidad de la vida humana ¿un asunto de mujeres?* Mientras Tanto 82. zk. 43-70. or.

⁷ Gardner, C. eta Assadourian, E. (2004). *Reconsiderando la vida nueva. "La situación en el mundo 2004"*. Worldwatch Instituteren txostena. Bartzelona, FUHEM/Icaria.

txikiagoan. Ondasun erlazionalak sustatzen dituzte, partekatzeko ekonomia, monetizatu gabea, erdian bizitza eta zaintza jarriko dituen (tradizioz emakumeek egindako lana).

Taldea berrasmatu nahi duten hainbat gizarte-alternatiba daude: ekoherrialdeen proiektuak, trantsizio-hiriak, nekazariak eta indigenek elikadura-buru-jabetzaren alde abiarazitako mugimenduak, produktu ekologikoen kontsumo-taldeak, tokiko txanponak, truke-sareak edo denboraren banketxeak, hiri geldoen mugimendua, eta, oro har, elkarlaguntza, auzotarren arteko harremanak eta elkarterako erabakietan parte hartzea bultzatzen duten ekimen guztiak. Gizarte-ekonomiari eta ekonomia solidarioari lotutako ekimenek eremu horretan dute hazteko toki egokia.

Bibliografia

ALBA RICO, Santiago eta FERNÁNDEZ LIRIA, Carlos: *El naufragio del hombre*, Hondarribia: Hiru, 2010.

CARRASCO, Cristina: *Mujeres, sostenibilidad y deuda social*, Revista de Educación, aparteko alea, 2009, Madril.

DALY, Hermann. eta COBB, John B.: *Para el bien común*, Mexiko: Kultura Ekonomikoaren Funtsa, 1993.

HERRERO, Yayo, CEMBRANOS, Fernando eta PASCUAL, Marta (koord.): *Cambiar las gafas para mirar el mundo. Hacia una cultura de la sostenibilidad*. Madril. Libros en Acción, 2011.

NAREDO, José Manuel: *Raíces económicas del deterioro ecológico y social. Más allá de los dogmas*. Madril: Siglo XXI, 2006.

PÉREZ, OROZCO, Amaia (2006): *Perspectivas feministas en torno a la economía: el caso de los cuidados*. Consejo Económico y Social, Colección Estudios, 190.

PULEO, Alicia: *Ecofeminismo para otro mundo posible*, Madril: Cátedra, 2011.

RIECHMANN, Jorge: *La habitación de Pascal*, Madril: La Catarata, 2009.

RIECHMANN, Jorge: *Biomimesis. Ensayos sobre imitación de la naturaleza, ecosocialismo y autocontención*. Madril: La Catarata, 2005.

SHIVA, Vandana: *Manifiesto para una democracia de la Tierra*. Bartzelona: Paidós, 2006.

MIES María eta SHIVA, Vandana: *Ecofeminismo: teoría, crítica y perspectivas*. Bartzelona: Icaria, 1998.

Ekonomia sozial eta solidarioa: Tradizioaren eta modernitatearen arteko ezinbesteko harremana

Cecilia Salazar de la Torre

Irakasle-ikertzailea. Garapenaren Zientzietan Graduondokoa
Universidad Mayor de San Andrés-en –CIDES-UMSA-. La Paz, Bolivia.



Merkatuak eta Estatuak ezin bete ditzaketen beharri zehatzek erantzuna emateko, Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) erabili izan da. Horregatik, ez da harrizkeria bere lehen oihartzunak kapitalismoa antolatzeke lehenengo aldietan eta, era berean, kapitalismoaren krisialdian nabarmentzea, eta, bi kasuetan, kapitalismoak biztanle guztien ongizatea bermatzeko duen ezintasunaz galdetzea (Guridi eta Mendiguren, s.f.).

Hala ere, egungo krisialdi kapitalistak beste osagai bat du, kultura interpretatzeko eredu berri bat azaltzen ari delako. Eredu horri jarraiki, antolakuntza kolektiboko forma batzuk ez daude Estatura murriztuta. Sarritan, bat dator horrekin Estatuak babes soziala emateko eta herritarren eskubideak bermatzeko iturri gisa duen nagusitasuna zalantzan jartzeko joera, auzi hori bereziki azpimarratu baitzen neoliberalismoaren garaian. Formatu horrekin, berriz osatu ziren Estatuaren, merkatuaren eta gizartearen arteko harremanak, pribatizazioaren eta ondasun komunaren informalizazioaren ildotik. Kapital sozial eta kulturalaren kontzeptuen erritmoan, Sonia Álvarezek arabera (2002), prozesu hori izan zen aldi berean, espazio publikoko instituzio espezializatuak (hau da, ongizatearen estatua) ahuldu egin ziren, eta familian eta komunitatean oinarritutako lehen mailako soziabilitate-moldeak berriz indartu ziren.

Hori horrela bada, hasierako ohar gisa, nolabait esan liteke lehen mailako loturek zutoinez eutsitako elkartasun-sistemen balioa handitu egin zela, giza garapenerako kontzeptualizazioak eta eredu neoliberalak bat egin zuten prozesuan sortu ziren irudikapeneren bidez. Antzeko garrantzia izan zuen zerbait esan zuten Bolivian, hau adierazi baitzuten neoliberalismoa zela-eta: Estatuaren logika homogeneizatzaileak xurgatu ez zituen herri indigena askoren irautearen ondorioz, kultura-aniztasuna onartzeko lehen zantzuekin batera “erosotasunik gabe” bizitzeko prozesuaren testuingurua zela¹.

Aukera horren aurrean, mereziko luke ESSri buruzko eztabaida areago zabaltzea, eta dilemak bereziki bideratzea Boliviakoa bezalako gizarteek proposatzen

¹ Gogoan izan behar da, esparru horretan, 1994. urteko Estatuaren Konstituzio Politikoaren erreforma, orduan, Bolivia herrialde multietnikoa eta plurikulturala dela sartu baitzen lehen kapituluaren. Egoera horrexetan ditugu Hezkuntzaren Erreformatarako Legea eta Herri Partaidetzarako Legea, 1994. urtekoak biak.

dituztenetara. Gizarte horren garapena desorekatua, osatugabea edo askotarikoa izan dela jo izan da (Zavaleta, 1990).

Horri dagokionez, bigarren oharrak kapitalaren/lanaren arteko harremanarekin du zerikusia, gizarte horietan, Europakoetan ez bezala, ekoizpen-gune txikietara egon baitzen murriztuta. Gune horietako gehienetan, erazteko ekonomietan aritzen ziren gehienbat, eta, beraz, ez zituzten sistema fordisten ezaugarriak. Sistema horiek errutina deshumanizatzaile eta alienatzaileetan finkatzen dira ekoizteko orduan, eta ondo oinarritutako kritikak jaso dituzte. Horiek horrela, argi dago ESSren inguruan dabilen ikuspegietako batek gizartekoitzeko, autoestimua lortzeko eta giza kontzientzia mendekotasunetik askatzeko prozesuari lotuta dauden beste balio batzuk eskuratzeko eragile gisa hartzen duela lana. Auzi hori tradizio anarkistak aldarrikatu du, eta Boliviako esperientzia horren barruan sartuta dago². Sistema horiek garatu ez zituzten herrialdeetan, berriz, hauek dira arazoaren iturria: ekoizpen-sistemetan dagoen informalizazio-maila handia, lan-indarraren jarraipena eta kontrola egiteko ereduaren gabezia, eta kontratuen egonkortasun eza, normalean enplegatzailearen subjektibotasun pertsonalari lotuta egoten baita. Lan-afiliazioko egitura horretan, biztanleen %75ek ez du loturarik sistema formalarekin. Ondoz ondoko aldaketa politikoak izan arren, erreferentzia hori ez da aldatu Boliviako historia garaikidean (Wanderley, 2013). Ehuneko horretan oinarrituta, ongizatearen estatua eraiki nahi izan zen. Hori biztanleen gutxiengo kopuru batentzat murriztu zen, eta, gainera, ahalmenik gabe geratu zen denboran sistematikoki jarduteko, eta, bestetik, arin agortu zen, lehengaiek nazioarteko merkatuan zuten prezioen mende zegoelako³.

Boliviako kohesio nazional-estatalaren euskarri materiala hori izanik, argi dago eremu politikoan dituen adarrak zein diren. Historikoki sistema informalean egon da txertatuta; eta sistema horietako harremanetan ere ez da instituzioen bitartekotzarik egon, herritarrengan eta subjektuen berdintasunean oinarritutako Estatuaren eta gizartearen arteko harremanaren ideia bilduta.

Esparru horretan, Europako biztanleak Estatu txikiagotzen ari dela ari dira sumatzen. Latinoamerika gehienez, eta bereziki Bolivian, bere existentzia urriarekin erkatuta ari da murrizten Estatuak. Horren aurrean, errealitate horren beste osagaia nekazaritzako gizartearen balioek duten agerpen nabarmena

² Latinoamerikako borroka sozialak ere tradizio horretatik edan zuen. Boliviari dagokionez, ikusi Silvia Riveraren eta Zulema Lehmen liburua: *Artesanos Libertarios*. Taller de Historia Oral Andina, La Paz, 1992.

³ “52ko Estatuak” izenez ezagutu zen, eta 1952. urteko iraultzak sorrarazi zituen erreformen ondorioa izan zen. Erreforma horien bidez, herritartasuna zabaldu zen, eta, horretarako, mirabetza ezabatu zen, eta boto unibertsala eta lurraren jabetza indibiduala ezarri ziren. Meatzaritzako ekonomia izan zen horren euskarri ekonomikoa, baina hori 80ko hamarkadan gelditu zen, eztabaiaren nazioarteko prezioak erortzearekin bat.

da. Izan ere, kontuan izan behar dugu, alde batetik, Bolivian landa-guneetako biztanleak izan direla nagusi XX. mendearen bukaera arte, eta, bestetik, nekazari indigenak oso berandu askatu direla lotura feudaleko loturetatik, 1952. urtean gertatu baitzen hori. Horiek horrela, bi ohar gehiago egin behar ditugu.

- Lehenik, harreman aitatiarrak indigenak diren eta ez diren artean zabaltzeko joera dugu; horren ondorioz, hierarkia eta/edo estigma sozio-kulturalek (edo gurasokeriak) hortxe irauten dute, eta arlo sozialean eta politikoan ere agertzen dira, segiziozetasunaren eta mendekotasun pertsonalaren bidez, lehen esan bezala⁴.
- Bigarrenik, nekazari indigenen munduari lotutako nekazaritzako balioen emulazioa dago, besteak beste, erkidegoaren antolakuntza kolektiboa eta naturarekin duen antzinako harremana. Bi auzi horiek balioa hartu dute berriz, alde batetik, zabaldu den giza garapenaren kontzeptuaren eskutik, horren arabera, nortasunik gabe ez baitago garapenik; eta, bestetik, garapen kapitalistaren hautabideak bilatzeko prozesuekin bat eginez, horiek hegoaldean eta aktore horien artean baitituzte esperantzarik handienak.

Esperantza horiek ez Estatuak ez kapitalismoak xurgatu ez dituzten subjektuak eta taldeak dira, adibidez, Latinoamerikako eta Boliviako gehiengo indigenak. Hala ere, auzi hori ondo argitu behar da.

Norabide horretan egindako urrats bat aurkitu dezakegu indigenek merkatu kolonialean eta kapitalistan izan duten parte-hartzea azaltzen duten azterketetan. Parte-hartze hori argi bereizi beharreko bi bidetatik joan da. Lehen bidea indigenek merkatuan izan duten parte-hartzeari dagokio; hor, talde etnikoa babestea izan da sakoneko helburua. Bigarren bideko parte-hartzeari dagokionez, arlo pribatuaren nagusitasunak gero eta desberdintasun handiagoak sorrarazi zituen talde etnikoan (Stern, 1987). Oinarri horretatik abiatuta, argi dago merkatuan parte hartzea edo ez parte hartzea ez dela behin betiko edo itxitako auzi bat. Lehen bideari dagokionez, adituen esanetan, komunitate indigenek ekoizteko gaitasun handiak izatea lortu zuten, eta soberakinak sortu zituzten, hala zerga-sistema koloniala eta errepublikanoa betetzeko, nola ekoizpenaren gainbehera-aldiak bermatzeko, besteak beste (Platt, 1982). Herrialdeko lurra izateko politikek irizpide liberalak eta indibidualistak zituzten oinarrian, eta, horren ondorioz, eredu horrek amore eman zuen, hemen “bigarren bidea” deitu dugunaren aurrean. 1953ko Nekazaritza Erreforma une garrantzitsua izan zen, behin betiko egin baitzuen joera horren alde (Urioste, 1984).

Ildo horretan, aurreko irakurketa osatzeko, merezi du berriz irakurtzea Perun, XX. mendearen hasieran, Mariáteguik komunitate indigenari buruz egin zituen ekarpenak. Latinoamerikako gizarte-zientzietako klasiko horren ustez, Peruko

⁴ Hori guztia, gaur egun barneko kolonialismoaren barruan dago.

Andeetan atzean utzi zituzten egitura feudal eta kapitalistak, eta horrek eragina izan zuen komunitate indigenetako zereginetan, “gorputz arrotzetan” txertatuta geratu baitziren (Mariátegui, 1947). Kasu batean, egitura feudalaren azpian, horren ondorioz, haziendak xurgatuko zuen Andeetan tradizioz zabaldutako lan kolektiboa, ugazaben onerako xurgatu ere, horiek beti ibiltzen baitziren premiaz, eskulan aski izateko, latifundioaren azalerak zuen hedadura betetzeko adina. Beste kasuan, egitura kapitalistaren azpian, erkidego indigenek eskulanezko poltsatza eskuragarri bilakatu ziren azkenean, eta iraupen-baldintzetan bizi dira gaur egun, arrazionaltasun kapitalistak noiz xurgatuko dituen zain.

Horri guztiari gaineratu behar zaio baldintza horietan erkidego indigenak elkartasun eta fakzionalismoko gune bilakatu direla, Xavier Albó bere azterlan batean dioenez (1997). Ideia hori geuretzat hartuz, tradizio kolektibistaren ondorioa izan daiteke hori, herrialdeko eskualde batzuetan bizirik irauteen baitu tradizio horrek, baina arrazionaltasun modernoak xurgatu duten moldeetan. Horiek Estatuaren aurrez aurre erkidegoak ordezkatzeko dituzten nekazaritzako sindikatuetan azaldu dira. Kontuan izan behar dugu Bolivian ezin izan dela sortu (edo, hobeto esanda, oso era mugatua sortu dela) Estatuaren eta gizartearen arteko bitartekotza-lana egingo duen instituziorik, adibidez, alderdi politikoak. Horren aurrean, gizarteko erakunde horiek eta beste batzuk dira, azken batean, korporatibismoaren eragin handia duen eragin-truke horren oinarria. Kasu askotan, erakunde horietan, zuzendaritzaren interes indibidualak daude, horiek politikan topatu baitute gizartean mugitzeko eta gora igozteko biderik egokiena.

Hala ere, ohar hauen bidez, ekarpena egin nahi diogu Latinoamerikako eta Europako gizarteetako testuinguru berezietan oinarrituta dagoen eta ESSren inguruan egin behar den elkarrizketari. Orain arte iradoki nahi izan dugu, Bolivia bezalako herrialde batean, prozesu historikoek markatu dutela komunitate- eta elkartasun-sentimendua, eta, hala ere, prozesu horiek ez dutela bat egin mendebaldean sortu zen kapitalismoan, oso berezia den eta Estatu instituzionalitate ezegonkor batean islatuta dagoen beste batean baizik. Oinarri hori harturik, testuinguruan kokatu ahal izateko behar den auzi nagusietako batek zerikusia du egoera bakoitzak dakarren herritar bihurtzeko prozesuekin, horiek funtsekoak baitira EESren ezaugarriak finkatzeko.

Izan ere, lehen aipatu dugun Guridi eta Mendigurenen lanaren arabera, ESSren atzean borondate politikoko ekintza bat dago, eginkizun eta eskubide-berdintasunaren kontzeptuek ekarritako antolakuntza kolektiboko prozesuetan subjektuak askatasunez atxikitzeko ekintzan sartuta. Ildo horretan, ekimen horiek abiarazten dituzten herritarrak dira horren euskarri.

O'Donnellek definizio zehatza ematen du horretaz. Hari jarraiki, herritarrak agente morala da eta “*bere gaitasun kognitiboa eta motibazionala erabiltzen*

du, bere egoeraren eta helburuen arabera arrazoizkoak diren aukerez erabakitzeko, eta, aurkako proba eztabaida ezinezin bat dagoenean izan ezik, epailerik onena dela jotzen da. Gaitasun horri esker, agente morala da, normalean bere hautuen eta horien zuzeneko ondorioen erantzulea dela sentituko baitu (eta besteek halakotzat hartuko baitute)” (O'Donnell, 2003).

Horrela aztertuta, agentetza duten eta kapitalismoaren arrazionaltasun xahutzailerak gaituzten kontzeptu moraletan oinarritutako ekonomia sorrarazten duten subjektuek egiten dituzten ahaleginak ekartzen dizkigu ESSk. Orduan, hautatzeko gaitasuna teilakatuta dago, norbanako modernoari berez baitagokio izaera hori, lotura feudaletik askatu zenez geroztik, giza praktikak sekularizatzeko adorea bultzatuta. Argi dago baldintza horietatik bat ere ezin izango litzatekeela garatu borondate horiek borondate orokor batean bateratuko ez balira, hain zuzen ere, hautatzeko askatasuna bermatzen duen Estatuan instituzionalizatutako borondatean; hau da, borondate horiek elkarren arteko berdintzat hartuko ez balira, eta, hortik abiatuta, haietan kide izateko sentipena nagusituko balitz, ezin iragarritzeko norabide irekiak egituratzen dituzten erabaki aske eta arrazoizkoen emaitza den sentipena.

Boliviak une honetan aurrez aurre dituen dilemak aztertuta, ESSk dituen errore lotutako erreferentzia batzuk aipatuko ditugu. Lehenengo herrialdeko pluraltasun ekonomikoari buruzko Estatu Konstituzio Politiko berrian agertzen diren lege-aurreerapenei lotuta dago. Lorpen hori esparru orokor gisa hartu behar dugu, ekimenak esparru horretan onartzen baitira, nahiz eta kontraesan nabarmenak izan (Wanderley, 2013). Bigarrenak lotura du gobernu burua nekazari indigena den buruzagi bat izatearekin. Kapitalismoaren hautabideko erreferentzetan jotzen da hori, bere izaera horrek berez ekartzen dituen ordezkaritza-multzo osoagatik, lehen esan dugunez. Hirugarren alderdiak “ondo bizitzea” kontzeptua eszenaratzeko moduarekin du zerikusia, sormenezko etorkizun post-kapitalistaren erreferente etiko gisa.

Auzi horien mende egongo balitz dena, nolabait esan liteke agertoki sinboliko orokor bat korapilatzen dutela hirurek, eta hor kokatzen dela ESS Bolivian, eta bide ematen duela horrek behar adina sendotasun izan dezan oztoporik gabe garatu ahal izateko. Hala ere, kontrako norabidean doazen beste eragile batzuk daude. Ikus dezagun zein norabidetan doazen.

Lehen esan dugunez, Boliviako herritarrak 1953. urtetik aurrera unibertsalizatu ziren, orduan onartu baitziren nekazari indigenen gehiengo zabalek arlo politiko, sozial eta kulturean hautatzeko zuten gaitasuna erabiltzeko eskubideak. Neurri hori osatzeko, luraren banakako jabetza banatu zen, eta sektore horietara bideratu zen, egoera horrek ekarri zituen beste promes batzuekin batera. Demokrazia liberal modernoaren iturria diren oinarri horien irismena herrialdeko egiturazko baldintzetara murriztu zen. Erauzketan oinarrituta zegoen

eredu ekonomikoarekin zuten lotura, herritarrei estatu-nazioko ordenako kide sentitzeko ziurtasuna emango zien euskarri jarraituak eta iraunkorrak sortzeko gaitasunik ez zuen ereduarekin. Horri dagokionez, herrialdearen nekazari-izaeraren (gehienbat, bizirauteko baldintzetan dago) eta meatzari-izaeraren (behin-behinekoa eta oso ezegonkorra da) arteko joan-etorri etengabea ikusi beharko dugu hor, Boliviako garapen-ereduak sorrarazten dituen oparoaldiak edo lehengaien prezioen erorialdiak kontuan izanik.

Hori horrela bada, badirudi Boliviak historikoki nekazari indigenen gehiengoa duen gizartea izan behar duela, eta hori izan dela azken urteetan zabalduko komunitateko balioak berriz ezartzeko oinarria, maila unibertsalean arautzen duten kultura interpretatzeko eredu berria lortzeko. Arazoa da azken 50 urteetan sekula baino gehiago hondatu direla Boliviako nekazaritzako lurren ekoizpen-gaitasunak, batez ere herrialdeko Andeen aldean, eta, horren ondorioz, bertatik egotzi dela lan-indarra. Ildo horretan, XX. mende bukaeratik hona, Bolivia hiri-giroko herrialdea izan da, landa-girokoa baino gehiago, eta horrek esan nahi du era dramatikoan jo duela nekazaritza-giroko gizarteari dagozkion balioak gainetik kentzera. Alabaina, balio horiek irtenbidea eman diote kapitalismoak ekarri duen giza bizitzaren suntsipen ezin itzulizkoari.

Horri gaineratu behar zaio instituzionalitate estatalik ez dagoela herrialdean, lehen esan dugun moduan, eta, horren ondorioz, tutoretza kultural eta politikoko sistemak irauten duela, gizarte feudaleko legatu baten gisa. Herritartasunaren balioak horren aurrez aurre jarrita, argi ikusiko dugu tartean dagoen amildegia: Bolivian, norbanakoaren izaera garatu da, herritartasuna erabiltzeko aukera dutenen arabera, eta horrek esan nahi du ez daudela bi-tartekotza pertsonalen mende beren eskubideak aldarrikatzeko edo mugiarazteko. Auzi horrek lotura estua du beren autonomiako iturri materialak eta ez-materialak garatu dituzten gizarteko mailekin. Auzi horrek ere garrantzia du gizonen eta emakumeen aurrez aurre jarrita. Harreman horretan, emakumeek, batez ere indigenek, generoko (eta etniako) mendekotasuna pairatzen dute oraindik, ezin baitute gutxieneko baliabiderik eduki beren banakotasuna lantzeko edo, bestela esanda, hautatzeko gaitasuna izateko.

Orduan, labor esan liteke Bolivian nekazari indigena izatea patu historiko bezalako zerbait dela, eta bertan izan den garapen kapitalistari lotuta dagoela, munduko ekonomia aldakorra, hala behar duen bitartean, elikatzen duten gure erazketa-ekonomietan sakon errotuta dagoen kapitalismoari. Esparru horretan, lehengaien prezioak jaisten direnean, nekazari indigenaren izaera herrialdean behin eta berriz pizten den laneko des-sozializazioari eusten dion malguki baten modukoa da. Horrekin batera, nekazaritzako sindikatukoa izatea komunitatearen beste aldea da, biztanleen zati handi horren soziabilitate politikoaren erreferentea, hortik abiatuta garatu baitute Estatuari presioa egiteko eta beraien eskubideak lortzeko gaitasuna. Hala ere, gogoan izan behar

dugu Bolivian ez dela egiturarik garatu eskulana xurgatzeko industrializazio-eskemen azpian. Horiek horrela, ezin ezkutuzko ebidentziatzat hartu behar da, azkenik, landa-girotik hiri-girora herrialdean izaten ari den trantsizioarekin batera, anomia kolektiboko edo hutsune ideologikoko zantzu larriak izango direla (eta badirela)⁵.

Hala ere, horren moduko ikuspegiak bazterrean uzten dute herrialdean ESS garatzeko aukera, bere inguruan dauden lorpen sinbolikoak gorabehera. Horren aldean, atzera itzuliko gara subjektuen agentetzara eta oinarri utilitarista eta deshumanizatzailea duen ekonomia nola garatzen den zalantzan jartzeko duen borondatera. Horri dagokionez, ziurrena, erantzunetako bat emakumeengan egongo da, hain zuzen ere, emakumeek “bizitzaren iraunkortasuna” deitu denarekiko duten kultura-hurbiltasunean.

Izan ere, ekonomia feministaren arabera, garapenari buruzko eztabaidaren ardatza erreproduktzioaren arloan kokatu behar da, hau da, ekoizpenaren arloaren “bestaldean”, Amaia Pérez Orozcok dioen moduan (2012). Egile horren ustez, erreproduktzioaren arloak berez dituen balio etikoak aintzat hartuta, erreproduktzioak arrazionaltasun kapitalista saihestu behar du, edo, behintzat, ez du bertan sartu behar. Europako krisialdiaren testuinguruan kokatuta, egileak garrantzia kentzen dio kontinente horretako zaintza-zerbitzuetan izaten ari diren merkaturatzeko prozesuei eusteko Estatuak duen rolari, eta modu pluralagoan pentsatzeko ideia sustatzen du, hau da, galdetu behar dugu zerbitzu horien erreferentea tokiko administrazioa edo autokudeaketa ote den, besteak beste.

Oinarri hori harturik, Boliviako kasuan berretsi behar da ez dagoela egonkortasunik biztanleak babesteko; historikoki biztanleek beren baliabideak erabili dituzte beren eguneroko dilemak konpontzeko. Egoera hori Ongizatearen Estatuak izan duen krisiaren emaitza da Europan, baina hemen, berriz, Estatu hori ez existitzearen emaitza da. Hortik abiatuta, Europan gizarteak doitzepanari emandako erantzun gisa agertzen dena, bizirauteko estrategien bidez (sarrera-iturri berriak bilatzea, krisien kostuak ordaindu gabeko lanera eramatea eta familiek eskuragarri dituzten baliabide guztiak erabiltzea), hemen etengabe agertu da: familiek behar izan dituzten sarrerak ez dira beti etorri kapitalaren/lanaren arteko loturatik, bazterketa horren kostuak mundu pribatura zuzenduta egon dira historikoki (hau da, emakumeen lanera), eta, azkenik, familiek kideen ahalik eta energia fisiko eta emozional gehiena erabili dute hornitzeko iturriak dibertsifikatzeko (hau da, haurrak eta helduak hartu dituzte barne). Hala ere, Bolivia bezalako herrialdeetan, hori guztia egitean, subjektuen herritartasun-eskubideak babesten dituzten instituzio publikoek

⁵ Beste herrialde batzuetan ez bezala, Boliviako gazteak ez dira mobilizatu, ez belaunaldi-talde ez herritar-talde gisa.

ez dute bitartekotzarik izan, eta subjektuak merkatu basati eta baztertzaileren arrazionaltasunaren arriskupean izan dira.

Horiek horrela, gizarteak Estatuak baino hobeto kudeatzen duela giza kapitala dioen ideia ondoz, Bolivian mundu pribatu ezegonkorrera eta emakumeen eskura murrizten ari da Estatuak bere gain hartu beharko lituzkeen erantzukizunak, lehen aipatu dugun testuan Sonia Álvarezek argi esaten duen moduan. Hori egitea, emakumeak herritar bihurtzeko prozesua alde batera utzita, are okerragoa da, bere mendekotasuna naturalizatzeko prozesua baizik ez baita korrelatua, emakumeek besteekin izango lituzketen betebeharen izenean diskurtsiboki ehanduta.

Horraingo iritsita, ESSk zubi hurbilagoak eratzen baditu ekoizpenaren eta erreproduzioaren artean, zalantzarik gabe, beharrezkoa da hori zabal dadin aurrera egitea, “bizitzaren iraunkortasunari” lehentasuna emateko. Horretarako, Bolivian, ezinbestekoa da horren baterako erantzukizuna duen eragile gisa hartzea Estatuak. Ezbairik gabe, horrek aukera politikoren bat du, aurrera egin baita Estatuaren eduki sinbolikoetan, ESSren ekimenetik hurbilen dagoen “gorputz orokor” gisa hartuta. Sinbologia hori Estatuak emakumeen alde egingako ekintza irmo bilakatzea da gizarteak duen borroka politikoaren zati bat.

Bibliografia

- Albó, Xavier, 1977, *Paradoja aymara: solidaridad y faccionalismo*. CIPCA, La Paz, Bolivia.
- Guridi, Luis eta Mendiguren, Juan Carlos P. S.f. *La dimensión económica del desarrollo humano local: la economía social y solidaria*. Euskal Herriko Unibertsitatea eta Hegoa Institutua.
- Mariátegui, José Carlos, 1943, *Siete Ensayos de Interpretación de la Realidad peruana*. Amauta. Lima, Peru.
- O'Donnell, Guillermo, 2003, “Democracia, Desarrollo Humano y Derechos humanos”, in: O'Donnell, Lazzetta eta Vargas Cullell (arg.), *Democracia, Desarrollo Humano y Ciudadanía*, Homo Sapiens eta PNUD, Santa Fe, Argentina.
- Pérez Orozco, Amaia, 2012, “De vidas vivibles y producción imposible”, in: http://anticapitalistas.org/IMG/pdf/de_vidas_vivibles_y_produccion_imposible.pdf
- Platt, Tristán, 1982, *Estado boliviano y ayllu andino. Tierra y tributo en el Norte de Potosí*, Instituto de Estudios Peruanos, Lima, Peru.
- Stern, Steve, 1987, “La variedad y ambigüedad de la intervención indígena andina en los mercados coloniales europeos: apuntes metodológicos”, in:

Harris et.al (arg.) *La participación indígena en los mercados surandinos*, CERES, La Paz, Bolivia.

Urioste, Miguel, 1984, *El Estado anti-campesino*. ILDIS, La Paz, Bolivia.

Wanderley, Fernanda, 2013, *¿Qué pasó con el proceso de cambio? Ideales acertados, medios equivocados, resultados trastocados*. CIDES, Colección 30 Aniversario. La Paz, Bolivia (prentsan).

Zavaleta, René, 1990, *El estado en América Latina*. Los Amigos del Libro, La Paz, Bolivia.

06

Finantza etikoaren izaera politikoaren eta emantzipazio ahalmenaren gaineko irakurketa feminista

Cristina de la Cruz Ayuso

Fiare Banka etikoa.



Nire bertsoa bada gordinegia, ez badu haren ahoak galgarik,
brontzeko mende batean entzuten delako da hala.
Baina (...) nire bertsoa ondratua da, sakonean.

Barbier, 1898:4

Sarrera

Artikulu honek diruaren ekonomiari eta hark finantza erlazioetan duen eraginarari buruzko irakurketa kritiko feminista biltzen du. Irakurketa horretarako, gizarte modernoan diruak duen esanahia adierazteko kapitalismoak hari buruz gorensten duen ezaugarri nagusia hartu dugu abiapuntu: diruaren izaera abstraktu, inbertsonal eta neutroa, hain zuzen. Diruaren “objektibazio” horrek kutsu androzentriko nabarmena du, bai deskribapenean bai justifikazioan, eta diskriminazio egoerak zuzitzeko bidea eman izan du. Eraikitako esanahi horrek denboran zehar aldagabe irauten du nagusitasun maskulinoaren pean, eta botere erlazio baztertzailerik, menderatzaile eta bidegabeak erreproduzitzen ditu. Lan honen bidez, bada, ekonomia feministaren ikuspegi alternatibo bat kontrajarri nahi diogu ikuspegi horri, zalantzan jartzeko diruaren zentzuaren eta gure gizarteetan dituen antolaketa molde sozialen ulkerera hegemoniko horrek finkatutako toki komun batzuk.

Izan ere, badira diruaren bestelako esanahi, erabilera eta elkarreragin batzuk, kapitalaren kulturaz bestelako botere logika eta arrazionaltasun batzuk bere egiten dituztenak. Praktikan, “ekonomia pertsonen zerbitzura” jartzeko helburua duten ekonomia solidario¹ proposamen alternatiboaren inguruan biltzen dira. Lan honetan, finantza etikoei erreparatuko diegu, batik

¹ Ekonomia solidarioaren esparruan, dinamismo handiko sareak eratzten ari dira mundu osoan. Ildo horretatik, bereziki aipatzekoa da Ekonomia Sozial eta Solidarioa Sustatzeko Kontinente Arteko Sarea (www.ripess.net). Espainian, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareen Sarea (www.economiasolidaria.org) ari da lanean, 500 elkarte atxiki baino gehiago bildurik. Ekonomia solidarioaren errealitateak sare horietatik haratago iristen dira, noski; baina ezin uka daiteke artikulaziorako ahalegin izugarria eta gero eta handiagoa egiten ari direla.

bat.² Ez, ordea, izendapen horrek biltzen dituen ekimen guztien multzoari, modu generikoan; izan ere, unibertso askotariko eta koloretsu bat osatzen dute, bizitasun handikoa eta askotarikoa. Finantza etikoen arloan, askotariko iturburuak, eskalak eta hedadurak dituzten ekimenak bereizten dira, eta ez da lan erraza horiek sailkatzea.³ Mikrofinantza erakundeak, nazioartera hedatutako erakunde arautuak, kreditu kooperatibak edo finantza zerbitzuen kooperatibak, hurbiltasuneko aurrezki talde lokalak nahiz bitartekaritza lanak egiten dituzten elkarteak, guztiak dira finantza sistema tradizionala arautzen dutenen guztiz kontrako balioetan eta funtzionatzeko moduetan oinarrituriko ekimenak. Eta, lan honetarako, ekonomia solidarioaren parte diren finantza etikoko ekimenak soilik hartuko ditugu erreferentzia modura (Gassiot, 2013; Sasia, 2012).⁴ Hain zuzen ere, bokazio politikoa bereizgarri duten horiek.

Finantza etikoak dira finantza erlazioen demokratizazioa bilatzen duten eta gizarte boterea eratzeko beste bide batzuk aldarrikatzen dituzten jardueren inguruan egituratutako ekonomia solidarioko proiektu politikokoak, gizarte boterea sortzeko beste bide batzuk proposatzen dituztenak. Finantza bitartekaritzaren esparruko balio jakin batzuk bere egiten dituzte; hain zuzen ere, kultura modernoan lantzen ez diren zenbait balio, merkatu “konbentzionalaren” alternatiba erradikal bihurtu direnak: solidaritatearen balioa, bestea bereizgarritzeko gaitasuna eta kalkulua bertan behera uztekoa; konfiantza, hurbiltasuna, tokikoa denaren balioa eta gizarte loturen kalitatea; irabazi asmorik eza, lankidetzeta eta partaidetzeta, “besteekin lotzen gaituen sendotasun zail baina indartsu hori” ahalbidetzen duten harreman-ondasun modura harturik (Illouz, 2013: 11). Izaera politikoko ekimenak dira, hertsiki. Eta, gainera, erlazioa dute “arloan jardun politikoarekin; izan ere, guztiek topo egiten dute (...) kapitalismoaren erreproduktzio proiektuaren –gaur egun neoliberalismoan gauzatua– berezko esku-hartzeekin, eta behartuta daude haren agenteekin aurrez aurre jartzera, haiekin negoziatzera edo, gutxienez, elkarrizketan aritzera” (Corragio, 2011: 167).

Finantza etikoentzat, arlo politikoen eta boterearen inguruko beste arrazionaltasun eta logika batzuen tematizazioa funtsezko auziak dira, eta praktika-

² Espazio falta dela eta, ez dugu finantza etikoen arloan sailka litezkeen ekimenen deskribapen xehea egingo. Ekimen horietako asko banku etiko eta alternatiboaren federazioaren inguruan egituratuta daude (www.febea.org), edo ekonomia sozialeko inbertsiogileen nazioarteko elkartearen inguruan (www.inaise.org), nahiz eta ez diren horien artean ageri aurrezki eta kreditua hurbiltasuneko testuinguruetan uztartzen dituzten parabanke ugari, mikro eskalan eragin nabarmena dutenak.

³ Finantza etikoen izaera askotarikoak ez du esan nahi ekimen bakartuak eta irismen mugatukoak direnik, aitzitik baizik. Kontua da beren burua finantza alternatibo modura eratzten duten ekimenei (ekimen etiko eta solidarioei) ez zaiela aitortzen “kapitalaren ekonomiaren” parte direnik (nahiz eta haiekin tolerantziak jokatu, nolabaiteko paternalismoak bultzatuta). Aitortza hori onartzeko errezeloek erretorika neoliberallean dute jatorria, eta erretorika horrek elikatzen ditu, ekimen horien emantzipazio ahalmenari zilegitasuna kentzeko helburuak.

⁴ Gai horri buruz, ikusi, halaber: http://www.economiasolidaria.org/finanzas_eticas.

ren bidez artikulatu dira, nagusiki: finantza alternatiba horien eraikuntza kolektiborako prozesuak proposatuz, kapital metaketaren logikan oinarritzen ez diren parametroetatik, eta ahalegina eginez pertsonak eta erakundeak elkarri lotzeko eta mobilizatzeke, solidaritatean eta elkarrekiko erantzukizunean oinarrituriko finantza erlazioen logikatik abiatuta, eta ekimen kolektibo hori guztia sustraituz argudio ahaltso baina, aldi berean, eztabaidagarri batean, “krediturako eskubidearen” argudioan (Cruz eta Sasia, 2008, 2010, eta Cruz, 2013).

Finantza etikoen arloko ekimen horiek mugari asko planteatzen dituzte, gogoeta kritikiko sakon eta iraunkorra eskatzen dutenak: proposatzen dituzten partaidetzeta moldeak, euskarri dituzten botere logikak, interes pribatuaren eta ekintza kolektiboaren arteko tentsioa harmonizatzeko behar diren orekak, sustatzen dituzten instituzionalizazio prozesuak, krediturako eskubidearen inguruabar etiko eta politikokoak, etab. Eta, hain zuzen ere, testuinguru horretan hartzen dute zentzua ekonomia feministaren ekarpenek, zirkuitu ekonomiko alternatiboa eraikitzeke bidean finantza etikoek topatzen dituzten erronka nagusiak ulertzeko, ekonomia feministak haien izaeraren eta hedaduraren gaineko oinarritzeko akordio batzuk finkatzeko aukera ematen duen heinean.

Ekonomia feministak zalantzan jartzen du diskurtso ekonomiko konbentzionala (Carrasco, 2006). Kritikatu egiten du merkataritza-ekonomiaren monetizatuaren egitura menderatzaile eta baztertzaila; berreskuratu egiten ditu ikusezin bihurtutako emakumeen esperientziak eta jardunak, bereziki zaintza lanei dagokienez, eta saiatzeko da esparru zabalago bat eskaintzen, merkataritza-erakundeak ez diren ekimen ekonomikoaren balioa esparru horretan sartu ahal izateko. Merkataritza hitza modu arautzailean erabiltzen da, eta maskulinotasunaren zentzu jakin bat islatzen du. Eta ekonomia feministaren helburuetako bat da, hain zuzen ere, ekonomia ardatz horretatik aldentzea eta bestelako ikusmolde, esperientzia eta jardun batzuetara irekitzea; era berean, ekonomia feministak oso *feministak* diren *mikropolitikak* ikaskuntzarako espazio bat aurkitzen du finantza etikoetan eta ekonomia solidarioaren esparrutik sustatutako esperientzia askotan.

Aitortu beharra dago finantza etikoak ez direla izan, bere horretan, ekonomia feministaren kezka nagusietakoa, eta, izatekotan, azkenaldian agertu direla ekonomia feministaren baitan, krisia dela-eta azaleratutako eztabaiden esku-tik: haren jatorriari eta ondorioei buruzko analisi; emakumeen finantza autonomian duen eragina, eta alternatibak eraikitzeke premia, “sistema kapitalista eta patriarkal hau gainditzeko, itogarria baita gizaki gehienentzat eta planetarentzat, osotasunean” (Jubeto, 2009). Testuinguru horretan kokatu behar dira hainbat ekimen jakini buruzko gogoeta feministak, bai emakumei begira antolatutako mikrofinantzaketa esperientzia batzuei kritika egin eta horiek zalantzan jartzen dituztenak (Gómez, 2006: 5), bai emakumeen tokiko sareek eta

solidaritate deszentratuko mekanismoek sustatutako ekonomia eta finantza solidarioen ereduren bat nabarmentzen dutenak (Latinoamerikako garapen komunitarioko ekimen batzuk, adibidez). Emakumeek jardun ekonomikoan dituzten presentziak eta absentziak berreskuratzen dituzte guztiek ere, aldi berean. Presentzia mugari bat, *presentzia absentea*, agerian uzten duena nola egon diren emakumeak arlo horretan ezkutuan eta ikusezin.

Lan honen asmoa ez da ekimen horien eta horietatik eratorri diren eztabaiden azalpen xehea egitea. Nire helburua da ekonomia feministaren ekarpen teoriko eta metodologiko nagusiak berreskuratzea, ikuspegi zabal batetik, kontuan harturik paradigma androzentriko tradizionalakiko loturak hausten dituen pentsamendu eta ekintza molde bat dela eta bidea ematen duela finantza etikoen emantzipazio ahalmena eta hark aldarrikatzen duen haustura azpimarratzeko, eskatzen baitu “bizitza hobe baterako bestelako ekonomia bat, zeinaren oinarri izango baitira bizitzaren iraunkortasunarekin berarekin loturiko prozesu sozial, ekonomiko, kultural nahiz ingurumeneko defentsa eta sustapena” (Askunze, 2013).

Hortaz, esan dugunez, kapitalaren kulturaren diruak duen esanahiaren irakurketa kritikotik abiatuta, ahalegina egingo dugu ekonomia feministatik eratorritako oinarritzako hiru akordio finkatzeko, gutxienez, agerian uzteko oinarri feminista horiek nola nabarmentzen dituzten, hain zuzen ere, finantza etikoen emantzipazio ahalmena eta izaera politikoa. Era berean, oinarri horiek ohartzatzen dute badirela oztopo instituzional eta egiturazko muga batzuk eta, horiek behar den heinean kontuan hartzen ez baditugu, finantza etikoen asmoak eragozteko arriskua ekar dezaketela. Lanaren amaieran, horri buruz gogoeta egiteko elementuren bat aipatuko da.

Dirua, askatasunerako bitarteko gisa

Ekonomia monetizatuari egindako kritika feministek ebidenteegia izan arren nekez kontuan hartu ohi den egia bat azpimarratzen dute. Finantza etikoen esparruan, ordea, egia horixe da ardatz nagusietakoa. Diruak pertsonei askatasuna ematen diela eta askatasun hori egituratzen duela dioen baieztapenarekin du lotura. Dirua ez da askatasun molde bat. Baina askatasuna ematen du.

Hortxe kokatzen dira, hain zuzen ere, finantza krisiak emakumeengan izandako eraginari dagokionez hausturazko ekonomia feministak dituen kezka asko eta asko. Krisiak kalte handia ekarri die emakumeei, askatasun eta autonomia galera moduan. Kredituak eskuratzeko zailtasunek eragina dute gizonengan, noski; gizonak baitira finantza produktuen erabiltzaile nagusiak. Baina are eragin handiagoa dute emakumeengan, beren generoarekin lotura duten arazoengatik, hain zuzen ere: aurreiritziak, jasotzen dituzten soldatek

eragindako gizarte desabantailaren ondoriozko bermerik eza; lan iraunkorra lortzeko zailtasunak; ondasunen jabetza mugatua, etab. Horren guztia- ren ondorioz, emakumeek finantza autonomiarako aukera mugatuagoa dute, eta, beraz, zailtasun gehiago dituzte ongizate materiala lortzeko eta beren bizitzaren gaineko erabakiak askatasunez hartzeko (Carrasco, 2013). Emakumeak izan dira, halaber, mikrofinantzen sektoreko murrizketen kalte- dun nagusiak. Garabidean diren herrialdeetako finantzaketa programe- tako parte-hartzaileen %80 emakumeak dira, Munduko Bankuaren datuen arabera (Gálvez eta Torres, 2010).

Ekonomia solidarioak krediturako eskubideaz egiten duen aldarrikapenean, ozen entzuten dira mugimendu feministek askatasunen eta berdintasun ma- terialaren alde egiten duten defentsa sakon eta zinezkoaren oihartzunak; eta defentsa horrek bidea ematen du, halaber, kapitalismoaren argudio indartsu eta hegemoniko bat deuseztatzeko, zeinaren bidez justifikatzen eta iraunaraz- ten baitira oinarritzakoak izan arren diruaren bidez baino eskuratu ezin diren on- dasun eta zerbitzuen gaineko interferentzia bidegabeak. Ez da izango, agian, pertsonaren askatasuna mugatzen duen interferentzia bakarra; bai garrantziz- koenetakoa, ordea. Merkatuak mesedetu egiten ditu berdintasunaren guztiz kontrako diren banaketa bidegabeak, “*eraman beza dirua duenak*” irizpide kamutsari jarraituz (Ovejero, 2008:115). Egoera horretan, diruak babestutako premiak asetzeko tresna huts gisa ageri da kreditua.

Esan bezala, ordea, egia ebidenteegi horri ez zaio aitortzen beti halako biri- biltasunik. Izan ere, susmopean jarri ohi da kapitalaren kulturaren egiturazko zapalkuntza eta diskriminazio egiturak agerian uzten saiatzen den edozein oi- narri: “gizarteek modu asko dituzte askatasunaren banaketa sustatzeko, eta, gurea bezalako gizarte batean, non ematen baita askatasuna eta eusten bai- tzaio diruaren banaketaren bidez, sarritan ez da behar bezain aintzat hartzen diruak askatasuna egituratzen duela, eta gizarte horretan askatasuna diruaren banaketak murriztuta egon ordez askatasuna mugagabea delako ilusioa sor- tzen da” (Cohen, 2000: 60).

Kapitalaren kulturak bere alde argudiatzen dituen arazoak ere aski ezagu- nak dira: pertsona pobreak eta finantza sistematik baztertutakoak ez daude, berez, askatasunaz gabetuta. Ez zaie askatasunik falta. Kontua da ez dutela beti izaten askatasun hori gauzatzeko modurik. Baliteke pertsona horiek zail- tasunak izatea askatasun hori erabiltzeko, baliabide edo gaitasun faltagatik; edo, bestela, ezin eskuratu izatea baliabideak, ondasunen jabeen erabaki- gatik, zeinak baitute, gainera, estatuen babesa. Hala, jabetza pribatuan oi- narrituriko merkatu ekonomian, ondasunen jabeek erabakitzen dute nik egin dezakedan hori nire diruak egin dezakeenera mugatzea. Norberak akordio edo truke pribatuak egiteko duen askatasunak kontratu bidez soilik konpro- metitzen ditu merkaturak inplikaturako aldeak. Hala, “ondasun eta zerbitzu

pribatu nahiz estatal asko eta asko diruz beste inola ezin dira eskuratu; horiek lortzeko, beharrezkoa da, eta, aldi berean, aski, dirua ematea. Horiek dirurik gabe lortzen saiatzen dena interferentzia jasateko arriskuan egongo da” (Cohen, 2000: 61)⁵.

Lizuna da kapitalaren kulturak halako indarrez eragozteko interferentzia, jabetza pribaturako eskubideari dagokionez, eta pertsonen eta herrien pobrezia eragitea, aldiz, gaur egun eta gure gizartean bizitza duina izateko funtsezko botere titulu diren “jabetzak” eskuratzeko *interferentzia ez-zilegiak* sustatuz. Dirua bitarteko sozial bat baino ez da, “ezinbesteko” aukerako baldintza bihurtzen dena merkatua denean premia jakin batzuk asetzeko alternatiba bakarra. Finantza bitartekaritzaren inguruabarrak marrazteko garaian bi alderdi horien artean sortzen den lotura ez da neutroa. Ezta tolesgabea ere. Logika jakin bati jarraitzen dio, ikuspegi konbentzionaletik, eta oso bestelako logika bati, “bizitzaren iraunkortasuna” hartzen denean gako modura. Hori da ekonomia feministaren bereizgarri nagusietako bat, eta horixe da, halaber, ekonomia solidarioak sustatzen duen *finantza etikoaren* ikuspegiaren muina.

Azpimarratu beharra dago, gainera, kapitalismoak aldeztzen duen jabetzaren tesia ez dela bateragarria “gizarte askea” lortzeko xedearekin; baina ez hori bakarrik: ikuspegi feministatik, ez da nahikoa, eta kamutsa da. Ikuspegi feministak gogorarazten digu galdu egin dugula jabetza ulertzeko beste modu eta zentzu batzuk imajinatzeko gaitasuna, eta horrexegatik gogoan izan eta azpimarratu behar dugula emantzipazioa dela jabetzaren euskarria: ikuspegi etikotik hartuta, jabetzak zabal eta berdintasunez banatuta egon behar du, bere eginkizuna bete dezan (alegia, autonomia babestea eta pertsonen bizimodu independentea eskaintzea).

Ekonomia solidarioak zirkuitu ekonomiko alternatibo bat eraikitzea proposatzen du, pertsonen askatasunen banaketa ez-baztertzaila berreskuratzeko eta bermatzeko, emantzipazioaren ikuspegitik. Alde horretatik, indar handiko tresna dira finantza etikoak, ez soilik finantzen arloan, baita politikan ere, egitura ekonomiko menderatzaileetan agertzen diren diskriminazioaren gako batzuk azaleratzen dituen heinean. Gure gizarteetan askatasuna ulertzeko dugun modu horrek gizarte desabantaila eta bazterketa dakarkio herritarren ehuneko gero eta handiago bati. Eta horrek agerian uzten du gizarte horietan gero eta handiagoa dela berdintasunik eza, emakumeen kalterako bereziki; eta, horrez gainera, agerian uzten ditu egiturazko diskriminazio egoera zenbait, orain artean esparru arautzaile egoki baten bidez gainditu ezin izan dituenak.

⁵ “Gure gizartean, bide bakarra daukagu dirua balio duten gauzak –hau da, gauza gehienak– lortzea eta erabiltzea eragotzi ez diezaguten: horiek ordaintzea” (Ibidem).

Diruak eraikitzen dituen botere erlazioak

Merkatu ekonomiari egindako kritika feministetatik ateratzen diren irakaspen nagusien artean, aipatzekoa da, halaber, politika neoliberalak ekonomiaren arloan eratzten dituzten botere erlazioei buruzkoa. Kapitalismoaren moneta eta kreditu sistemak erlazio logika asimetrikoa sustatzen du, eta logika horrek sendotu egiten ditu kapitalaren jabetza dutenen eta ez dutenen arteko mendekotasunezko mekanismoak, hartzekodunen eta zordunen arteko mendekotasunezko mekanismoak. Horrela, gizarte kontrolerako ahalmen handiko tresna bihurtu da zorra, eta finantza-elkarreragin gehienak ziprztintzen ditu. Kontsumoaren bidez, erlazio iraunkorra dugu betirako “zordun” egin nahi gaituen ekonomia horrekin.

Jakina, aipatu izan da kreditua-zorra binomioari loturiko finantza-esklabotasun lauso hori (Lazzarato, 2013). Argudio askok elikatzen dute eztabaida: ekonomia konbentzionalaren funtzionamenduari buruzko argudioek, ekonomiaren funtzionamendu horren zergatiari buruzkoek, hura nolakoa den justifikatzen dutenek, den bezalakoa izatea salatzen dutenek, etab. Eta, zalantzarik gabe, gehienak dira beharrezko diagnostikoak. Maila jasoagoan edo apalagoan, azken batean, denak saiatzen dira azaltzen finantza-botereak zer eta nor diren; nola funtzionatzen duten eta haien botereak zer-nolako eragina duen pertsonen bizitzan eta bizitzaren beraren iraunkortasunean. Guztiek aldarrikatzen dute, gutxi-asko, finantza botereen gaineko kontrola edo proposatzen dute makro eskalako irtenbideak ezartzea, sistema iraultzeko. Ez dute kontuan hartzen, ordea, pentsamendu neoliberalaren oinarria arautzailea dela, funtsean, eta, beraz, botere horiek gure gizarteetan dituzten ondorioei eta eraginari buruzko argudiorik sendo eta biribilenak aintzat harturik ere, ez luketela inola ere aldaturiko haren balio esparrua.

Horrexegatik da hain garrantzizkoa eta premiazkoa *bestelako* esanahi batzuk, *bestelako* proposamen batzuk eta *bestelako* jardun batzuk sustatzea, finantzen esparruan ez ditzagun modu uniboko eta eksklusiboan erlazioanatu konfiantzaren moduko balio bat eta kaudimena; hau da, bitartekaritzan, itzulketarako berme ekonomikoak izan ez daitezen erlazio etikorako neurri bakarra; ez dadin izan kreditua, azken batean, gizarte erlazioak leherrarazten dituen mekanismo baztertzaila. “Mailegatzea” ahalmen bat da, eta garrantzizkoa da aztertzea zer elementuren bidez ematen diogun ahalmen horri zentzua eta balioa. Finantza etikoko esperientziek bitartekaritzarako bide alternatiboak eraikitzea bilatzen dute, besteak beste, “mailegatze” ekintza horretan kaudimena izan ez dadin faktore erabakigarria.

Non olet: diruaren eta haren gizarte-boterea objektibatzea

Azkenik, feminismoaren kritikak utzitako beste irakaspen hau nabarmendu nahi dugu: gizarte modernoan diruari izaera inpersonal eta neutroa atxikitzen

eta aitortzen dion iritzari feminismoak egiten dion kritika, hain zuzen. Azaldu beharrik ez dago zer-nolako ahalegina egiten den diruak izaera soil-soilik instrumentala duela nabarmentzeko, eremu “puru” batean jardungo balu bezala, orbangabe. Eta usaingabe!

Diruari egozten zaion “non olet” ideia horrek Vespasiano enperadorearen pasadizo batean du jatorria. Honelaxe jaso zuen Suetaniok pasadizo hura, “De vita duodecim Caesarum” bere obraren VIII. liburuan: “agindu zuen Vespasianok ordainduko komun publikoak ezartzea hiri guztian; haren seme Titok zerga bidegabe hura ezarri izana aurpegiratu zion, lotsagabea iruditzen zitzaiolako zergak biltzea halako premia lotsagarri batez baliatuta. Vespasianok aurre egin zion, ordea: hartu zuen txanpon bat, eta, semeari sudurraren parean jarrita, galdetu zion ea haren usainak gogaitzen zuen. Semeak erantzun zion: *non olet*. Eta Vespasianok esan: *Eta, halere, gernuan du jatorria.*”

Argudio hori mila bider errepikatu da, malezia lotsagabez ia beti, adierazteko diruak baduela bertute berezi bat: trukerako objektuen ezaugarrien eraginpe-
tik kanpo gelditzea, eragiketa guztietatik garbi eta aratz irteteko. Horrela, ekonomiaren mekanismoa askatuz joan da haren jatorrizko printzipio eta balioetatik, ingurune eta testuinguru erabat instrumental eta neutro batean kokatu arte.

Diruaren esanahiak gure gizartean erreferentzia, zentzu eta justifikazio esparru gisa duen kontakizun eraikia erreproduzitzen dugu, arretarik eman gabe haren eragin ideologikoari eta kontuan hartu gabe oharkabean jokatzeko horrek hura iraunarazten duela. Dirua gizarte erlazioen kalterako eragile suntsitzaile arriskutsu eta etekinzeala dela uste dugu; baina, aldi berean, ez diogu atxikitzen inolako kontsiderazio moralik hark sustatzen dituen eragiketa ekonomikoetan. Ez bata eta ez bestea ez dira egia, ordea.

Alde batetik, dirua ezin daiteke neutroa eta inpersonala izan, oso zabaldua eta onartuta dagoen arren hala dela. Har dezagun, adibidez, diruaren bertsio moderno eta plastifikatu hori, kreditu txartela. Ezin pertsonalizatuagoa da; are anonimoagoa eta pertsonalizatuagoa bihurtzen du dirua, haren erabilera, mugimendu eta abarrak erregistratzen dituzten ordenagailuen eraginez. Ekonomia ez da loretxo bat bezala berez ernatzen den zerbait. Ez da bilakaera natural baten emaitza. Giza errealitatearen parte diren faktore batzuen esku-hartzeaz gertatzen den prozesuaren emaitza da, batez ere. Diruaren formak eta erabilerak nabarmen aldatu dira, eta biderkatu; baina sofistiko horrek diruaren pertsonalizazio handiagoa ekarri du, hain zuzen ere: “jendeak ez ditu berdin sentitzen diru mota guztiak eta ez du gauza bera pentsatzen diru mota guztiei buruz; zer motatako dirua den, horren arabera gastatzen, aurretzen edo ematen da, horren arabera helburu, arrazoi eta pertsonentzat erabiltzen da” (Zelizer, 2011: 268).

Dirua ez da neutroa. Merkataritza-esparru maskulinoaren imajinarioak ageriarazten du hala. Horrela, errugabetu eta lausotu egiten du arduradunen aurpegi, eta ez du argi ikusten uzten zer ondorio dituen diruaren erabilerak pertsonen bizitzan, kapital metaketaren zerbitzura jartzen denean.

Diruaren izaerari eta eraginari buruzko diskurtsoa logika ez-merkantiletik eraikiz, haren esanahi “maskulino” problematizatu egiten da, eta sakon birplanteatu. Ekonomia feministak oso aktiboak izan dira horretan, eta finantza etikoko ekimenek zabaldu egin dute esanahi horren inguruan *posible denaren* esparrua, sormen handiz eta esperientzia zehatz eta “errealen” bidez.⁶

Bestalde, ez da egia dirua gizarte erlazioen suntsitzaile arriskutsua denik. Dirua trukerako bitarteko unibertaria da. Walzerren hitzetan (1993), onuragarria, gainera; trukea funtsezkoa baitugu beste gizon eta emakume batzuekin partekatzen dugun bizitza honetan. Pertsonen gizarte lotura aldakorrek definitzen ditugu diruari ematen diogun gizarte balioaren bidez. Jakin badakigu kapitala dela (ez dirua, hertsiki) berdintasunik eza eragiten duen tresna ahaltsuena, baina diruaren inguruan eraiki dugun gizarte erlazioen historiak jaso ditu ekonomia konbentzionalak sustaturiko sistema menderatzaileei aurre egiteko beste modu batzuk ere; trukerako sistemak bestelako logika batzuetatik definitu eta, batzuetan, eraldatu dituzten moduak. Ekonomia solidarioak, “gizarte merkatuen” edo “finantza etikoen” moduko ekimenen bidez, agerian uzten du ekonomiaren esanahi sozial batzuen garrantzia eta horiek gizarte jardueretan duten eragina. Merkatuen gaineko kontsiderazio moral orotatik haratago, ekonomia feministek kritika planteatzen dute merkatu hori sistema ekonomiko buruaski eta mugagabe baten baitan ulertzeari buruz.

Horren aurrez aurre, gizarte logika alternatibo bat proposatzen dute, modu automatikoan lotuko ez dituen beharrak asetzea eta irabazia eta errentagarritasuna, eta ardatz gisa duena “bizitzaren iraunkortasunaren” ideia. Ikuspegi kritikotik aztertzen eta galdetzen dute zein diren gizarte batean bizitzari eusteko baldintza materialak: “merkatuek nola diharduten ulertzeak ez dauka interesik bere horretan; beharrak asetzea edo sortzea nola eragozten edo ahalbidetzen duten jakiteko aukera ematen duen neurrian dauka horrek interesa. Gainera, ondasunen eta zerbitzuen gakoak jada ez da merkatuan trukerako gai diren edo ez, baizik eta zer giza premia asetzen dituzten, eta nola” (Pérez, 2004:110).

⁶ Ikusi, adibidez: Fiare proiektua: www.proyectoifiare.com; Oikocredit Internacional: www.oikocredit.org; Coop57: finantza zerbitzu etiko eta solidarioak: www.coop57.coop; Bakea eta Itxaropena Solidaritate Funtza: www.fondodesolidaridad.org; Interes Solidario baten aldeko Elkartea, O Peto: www.opeto.org; *Acció Solidària Contra l'Atur*: www.acciosolidaria.cat; GAP: Grupo de Apoyo a Proyectos: www.gap.org.es; Ekonomia Solidarioko Sarea: www.economiasolidaria.org; Bank Track: www.banktrack.org

Finantza etikoetarako oinarritzko hiru akordio, eta amaierako koda bat (feminista hori ere), ohartarazpen modura

Lan honen xedea soila da oso. Irakurketa kritikoa egin nahi izan dugu diruaren ekonomiaz eta horrek finantza erlazioetan duen eraginaz, haustura aldarrikatzen duen ekonomia feministaren ekarpenetatik abiatuta. Irakurketa horren bidez, begirada feministaren ikuspegia ekonomia solidarioaren errealitateetara irekitzen eta zabaltzen saiatu gara; izan ere, gure iritzian, analisirako funtsezko oinarria eskaintzen du, haren printzipioetako batzuei zentzua emateko eta horiek kontzeptualizatzeko. Zehazki, ekonomia solidarioak sustatzen eta babes-ten dituen proiektuetako batean gauzatzen direnak: finantza etikoetan gauzatzen direnak, alegia.

Ildo horretatik, akordio horien ezaugarri batzuk nabarmendu ditugu artikuluko honetan, feminismoan sakon sustraituak:

1. Finantza etikoen izaera politikoa eta pertsonen askatasunen banaketa ez-baztertzailerik eta berdintasunezkoaren alde egiten duen apustuan oinarritzen da krediturako eskubideaz egiten duen defentsa, eskubide-berme gisa ulertuta; hau da, beste eskubide batzuk ahalbidetzen edo bermatzen dituen eskubide gisa ulertuta, zeinak bultzatzen baitu aitortza hori posible egingo duten bitartekaritzako bestelako zirkuitu batzuk abian jartzera. Kredituari buruzko hurbilpen horrek bizitzaren iraunkortasunetik eta zaintza espazioetatik hurbilago kokatzen ditu finantza etikoak. Haien kezka ez da, izan ere, etekina lortzea eta kapitala metatzea.
2. Finantza etikoen emantzipazio ahalmena beste logika eta erlazio batzuen inguruan egituratzen da: konfiantzan, zaintzan eta bizitzaren iraunkortasunean oinarrituriko logika eta erlazioetan, hain zuzen ere. Eta logika eta erlazio horiek boterea deskolonizatzea eskatzen dute eta dakarte, nagusitasun moderno, androzentriko eta kapitalistatik aparte dauden beste ezagutza eta egiteko modu batzuk ahalbidetzeko. Dirua ez da, berez, beharrezko bitartekoa; aitzitik, ezinbesteko gogobetetzailerik da, premia jakin batzuk asetzeko bide bakarria merkatua denean (Pérez, 2004:110). Horregatik da beharrezkoa “gizarte merkatuak” eta gisa horretako mekanismoak antolatzea, dirua eredu hegemoniko nagusi horretatik askatzeko.
3. Finantza etikoen eraldaketarako balioak eskatzen du hausturazko ekonomia feministaren eskemetan sakontzea eta arlo ekonomikoari esanahi berria ematea, kode patriarkal menderatzaileak eta diruaren eta finantza erlazioen neutraltasun faltsua salatzeko. Finantza etikoek hurbiltasunean, konfiantzan eta solidaritate deszentratuan oinarrituriko hurbiltasuneko zirkuitu ekonomikoaren eta laguntza sareen balioa aitortzen dute.

Finantza etikoek buruzko ideia horiek beste talde batzuek ere partekatzen dituztela esan liteke. Arrazoiz, seguru asko; baina diskurtso feministak beste edozeinek baino argiago eta zehatzago nabarmatzen ditu ekonomia solidarioaren baitako finantza etikoen helburuak ulertzeko funtsezko zenbait alderdi.

Ekonomia feministak behin eta berriz salatu du ekonomiak, besteak beste, gutxi begiratzen diela pertsonen bizi baldintzei; eta, hala, bestelako lankidetzaren molde batzuk aldarrikatzen ditu, arlo ekonomiko eta gizarte arloa “beste modu batera” uztartzeko (berdintasunez). Erlazio ekonomikoak eraikitzeke beste modu kolektibo batzuk, gizarte zorraren eta gizarte loturaren ideia sendotuko duten gizarte lankidetzako bestelako molde batzuk, lankidetzan, osagarritasunean, elkarrekikotasunean oinarrituak. Hurbilketa berriak, hainbat kontzeptu ikuspegi feministatik finkatzeko, hala nola, autonomia, subiranotasuna, elkarrekikotasuna eta ekitatea.

Finantza etikoak garrantzi handiko nodulua izango dira ekonomia feministan: ekonomia solidarioko beren jarduerak eta esperientziak zabaldu egiten dute, ahal den heinean, finantza-bitartekaritzaren esparruan posible dena. Lan honetan, finantza etikoen izaera politikoa aldarrikatu dugu. Ekonomia feministak “bizitzaren iraunkortasunaren” alde egiten duen apustuak aukera ematen du haren emantzipazio nahiak proiektatzeko. Baina, hala ere, ez dugu ahaztu behar kapitalaren kultura sendotasun handiz eta modu hegemonikoan erreproduzitzen dela. Eta kapitalaren kultura horrek kutsu androzentriko, merkantilista eta etnozentrkoa dituela. Ildo horretatik, hausturaren aldeko ekonomia feministak ekonomia solidarioari egiten dion ekarpen jakingarria da, halaber, modu “naturalean” topatzen ditugun balizko oztopo iraunkor horiei antzematen laguntzeko eskaintzen dion “alerta” funtzioa, oztopo horiek eragotzi egiten baitute (hori ere modu “naturalean”) bizitzari eusteko “bestelako” politika bat egiteko bidean aurrera egitea eta bizitza askatzailea izatea.

Bibliografia

- Alsina, O. (koord.) (2002). *La Banca Ética: mucho más que dinero*. Barcelona: Icaria.
- Askunze, C. (2013). “Necesitamos un cambio de modelo económico”. In <http://www.mrafundazioa.org/es/articulos/necesitamos-un-cambio-de-modelo-socioeconomico> (Azken deskarga: 2013ko azaroa).
- Barbier, A. (1898). *Poésies. Jambes et poèmes*, Paris, 1898.
- Brandeis, L.D. (2012). *El dinero de los demás. Y como lo utilizan los banqueros*. Barcelona: Ariel.

- Carboni, V. (2011). "Banking on ethics". Campagna per la riforma della banca mondiale. <http://www.crbm.org/2011/08/26/banking-on-ethics/>. 2013ko ekainean jaitsia.
- Castro, M. eta Romero, N. (2011). "Cooperativas de crédito y banca ética ¿un camino por explorar?" *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 72. zk., 262-300. or.
- Comín, A. eta Gervasoni, L. (koord.) (2012). *Democracia Económica: Hacia una alternativa al capitalismo*. Bartzelona: Icaria.
- Carrasco, C. (2006). "La economía feminista: una apuesta por otra economía", in Vara, M^a J. (koord.): *Estudios sobre Género y Economía*. Madril: Akal, 29-62. or.
- Carrasco, C. (2013). "El cuidado como eje vertebrador de una nueva economía". *Cuadernos de Relaciones Laborales*, 31. lib., 1. zk., 39-56.
- Cohen, G.A. (2000). "Libertad y dinero". *Estudios públicos*, 80.
- Coraggio, J.L. (2011). *Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital*. Quito-Ekuador: Abya-Yala.
- De la Cruz, C. eta Sasia, P.M. (2008). "El Proyecto Fiare: Intermediación Financiera desde los principios de la Economía Solidaria". *XI Jornadas de Economía Crítica*, Bilbao. http://www.economiasolidaria.org/files/sasia_santos.pdf 2013ko maiatzean jaitsia.
- De la Cruz, C. eta Sasia, P.M. (2010). "La banca ética como herramienta de acción política", *Icade Revista de las Facultades de Derecho y Ciencias Económicas y Empresariales* 80. zk., 185-210. or.
- De la Cruz, C. (2013). "El alcance político de las finanzas éticas", en Banca Ética: ¿es posible? *Dossier EsF8*. zk. Urtarrila (hemen eskuragarri: <http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/DOSSIERES-EsF-8-BANCA-%C3%89TICA.pdf>). (Azken deskarga: 2013ko azaroa).
- Fergusson, A. (2012). *Cuando muere el dinero*. Madril: Alianza
- Gálvez, L. eta Torres, J. (2010). *Desiguales*. Bartzelona: Icaria.
- Gassiot, R. (2013). "Las finanzas éticas como instrumento al servicio de la economía solidaria. La experiencia de Coop57", in *Cuadernos de Trabajo Social* 26. lib., 1. zk., 75-84. or.
- George, S. eta Sabelli, F. (1994). *La religión del crédito. El Banco Mundial y su Imperio Secular*. Intermón, Bartzelona.
- Gómez Gil, C. (2006). "El dilema de los microcréditos en las políticas de desarrollo". Bilbao: *Cuadernos Bakeaz*, 76. zk.

- Illouz, E. (2013). "Contra el deseo", in Bartzelona. *La Maleta de Portbou. Revista de Humanidades y Economía*, 1. zk.
- Jubeto, Y. (2009). "Debates actuales en la economía feminista. Aportaciones de los Congresos de Economía Feminista", http://geneconomia.ciem.ucr.ac.cr/sites/default/files/documents/debates_jubeto.pdf (Azken deskarga: 2013ko maiatza).
- Lazzarato, M. (2013). *La fábrica del hombre endeudado. Ensayo sobre la condición neoliberal*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Melián, A.; Sanchis, J.R: eta Soler, F. (2010). "El Crédito Cooperativo como instrumento financiero para el fomento del emprendimiento en tiempos de crisis". *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 68. zk., 111-139. or.
- Pérez de Mendiguren, J.C. (2009). "Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate". *Papeles de Economía Solidaria*, 1. zk. Bilbao: REAS Euskadi.
- Pérez Orozco, A. (2004). "Estrategias feministas de deconstrucción del objeto de estudio de la economía". *Foro Interno*, 4.
- Ovejero, F. (2008). *Incluso un pueblo de demonios: democracia, liberalismo, republicanismo*. Madril-Buenos Aires: Katz.
- Sasia, P.M. eta de la Cruz, C: (2008). *Banca ética y Ciudadanía*. Madril: Trotta.
- Sasia, P.M. (2012). "La Banca Ética en Europa: el enfoque del crédito como criterio de configuración de un espacio de alternativa", *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 75. zk.
- Soler, F.V., (2002). "La identidad cooperativa como garantía de futuro: las cooperativas de crédito ante la trivialización de sus principios", *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 40. zk., 215-242. or.
- Walzer, M. (1993). *Las esferas de la justicia*. Mexiko: FCE.
- Zelizer, V. A. (2011). *El significado social del dinero*. Mexiko: FCE.

Ekonomia solidario eta feministak tokian tokiko garapenerako politika alternatiboegi egin dizkion ekarpenak: Ekuadorko Lojako kasua

Lorena Salcedo Carrión

Ekuadorko Emakume Herritar eta Anitzen Asanbladako kidea.



Ekueadorren eta, batez ere, Lojako probintzian, nekazaritza migratzailea gaur egunera arte garatu diren ekoizpen-jardueretako bat izan da, eta gizartearen antolaera horren arabera egokitu da. Jakituria horri esker, nekazariak 20 urte baino gehiago daramatzate agroekologia aukera politiko moduan sustatzen. Horrez gain, emakumeak agerian jartzea ere lortu dute, haien ugalketa-zereginari beste zentzu bat eman nahian. Gaur egun, ekonomia sozial eta solidarioaren ondorioz alternatiba ekonomikoak bultzatu direnez, parte hartzeko eremu ezin interesgarriagoa sortu da, batez ere, emakume ekoizle agroekologoentzat. Izan ere, egunero-egunero, jo eta ke lan egiten dute, ekoizpenaren, ugalketaren eta erkidegoaren arloan dituzten eginkizunak bete ahal izateko.

Lojako probintziako agroekologiaren esperientzia: antolatzeko prozesuaren hausturak edo jarraipenak

Lojako probintzia Ekuadorko hegoaldean dago, 448.966 biztanle ditu eta, eurretatik, %50,82 emakumeak dira. Biztanle guztiak kontuan hartuta, 249.171 lagun hiri-gunean bizi dira, %55,50, alegia. Joera hori, gainera, areagotu egin da, erroldako datuei erreparatuz gero. Hiri eta landa inguruneetako biztanleen piramideak kontuan hartuta, argi dago hiri-inguruneen biztanle-maila handiena 29 urtera artekoa dela. Hiri eta landa inguruneak erkatuz gero, esan gabe doa landa-inguruneen biztanle-piramideak 65 urtera arte hedatu dela. Gainera, oso itxura berezia ere badauka landa-ingurunean, 65 urtetik aurrera berriro zabaltzen delako. Beraz, badirudi errealitate berria ezarri dela landa-ingurunean eta mundu hori adinekoz beteta dagoela.

Azken bi erroldetako datuak alderatuz gero, agerikoa da biztanleen kopurua %1,15 hazi dela eta kopuru hori urri samarra dela 10 urteko tartea dagoela kontuan hartuta. Hain zuzen ere, 44.131 biztanle berriak ez datoz bat herrialdeko beste hiri batzuetan gertatutako hazkundearekin, itzuli diren migratzaileak direlako.

Probintziaren azalera 11.065,42 km²-koa da. Andeatako mendikatearen konformazio naturalaren ondorioz bertako erliebea oso berezia denez, zenbait altuera ditu, eta El Niño Hegoaldeko Oszilazioko korrante beroaren zein Humboldtoko

korrante hotzaren baldintzapean dago bertako klima. Hori dela eta, era guztietako ekoeskualdeak daude lurralde honetan, eta, horren ondorioz, herrialdeko biodibertsitate handiena ere bertan dago. Bertako paisaia naturalean, geografia malkartsua nagusi denez, mendiz inguratutako lurraldea da, eta zenbait lekutako altuera 360 metrokoa da itsas mailaren gainetik (imgm); eta beste batzuetakoa, 3.815 metrokoa ere bai (imgm). Bestetik, bertako berdetasuna argi eta itzalez beteta dagoenez, lurpetik azaleratzen diren ibaiek zeharkatutako bailara txikiak ere badaude ikusgai. Herriak oso urrun daude euren artean, mendien artean sakabanatuta. Lurralde honetan lan egiteko, beraz, magaletan ereiteko indarra eduki behar da. Horrez gain, talentu aparta ere behar dago, zer hazi den egokiena eta produktua noiz erein behar diren jakiteko. Era berean, espiritu askea ere eduki behar da, giza indarrak naturaren aurrean nolako boterea daukan sentitzeko. Hori dela eta, lurralde hauetan, mendiak gris-berdeak dira, lurzoruak zenbait koloretakoak dira eta, sarri askotan, ur gutxi egoten da, eta, beste askotan, ur ugari. Bertan, gizon eta emakumeek lurra lantzen dute eta euren ugalketa-jardunei eusten diete. Gehienetan, ordea, emakumeak dira lan-zama handiena daramatenak, betidanik bizitzako inguruabarrak hartu dituztelako euren gain.

Datu estatistikoetara itzuliz gero, badago probintziako landa-ingurunekeo eraldaketak antzematerik, baita bere bi ezaugarri bereizgarri ere: %92,95en alfabetismoa, nazio-mailako %91,96 baino handixeagoa delako; eta gizon alfabetatuen kopuru handiagoa (%93,06), emakumeen kopuruaren aldean (%92,15). Bestetik, nabarmendu behar da, ekonomikoki aktiboak diren biztanle (EAB) nekazarien kopuruak behera egin duela; izan ere, 2001eko eta 2010eko errolden artean %44tik %30era jaitsi da, landa-inguruneetik hirira mugitutako bizilagunen adierazgarri. Dena dela, ordainetan, merkataritzako¹, eraikuntzako eta zerbitzuetako EABren kopuruak gora egin du. Datu horiek, hain zuzen ere, landa-gizarteko banaketa sexual eta ekonomikoaren erakusgarri dira. Bertan, gainera, nekazaritzako EAB gehienak gizonak dira; eta merkataritzakoak, emakumeak.

Nekazarien² eta landa-munduaren arteko loturari erreparatuz gero, XX. mendean gertatutako aldaketak ekarri behar ditugu gogora. Rubiok adierazten duen bezala, nekazaritzak industrializazioaren oinarria izateari utzi zionean, agerikoa da landa-ingurunekeo ekoizleak ekoizpenetik kanpo geratu zirela, baina, batik bat, euren diru-sarrerek behera egin zutelako eta eskari nazionalari

¹ Emakumeen Kontseilurako eta Genero Berdintasunerako Trantsizio Batzordea. Emakumeen eta genero-berdintasunaren agendarako intsumo teknikoak. 2012ko martxoa. Honako hauex adierazten da bertan: “emakumeak negozio txiki eta ertainetako eragile ekonomikoak dira, batik bat. Hala ere, ekarpen handia egiten dute merkatuko mekanismoetako diru-sarreraren zein lanpostuen sorrera nazionalen eta bizi-kalitatea hobetzeko baliabideetan”.

² Honako hauex adierazi nahi dut: nekazariak nekazaritzan oinarritutako jarduerak garatzen dituzte, eta beste era bateko ohitura edo eredu kulturalak dituzte, hiri-guneetan bizi direnen aldean.

erantzuterik izan ez zutelako. Hori dela eta, inportazioen bidez estali behar izan zen eskari hori. Egile horren esanetan, menderakuntza baztertzaila sortu zen krisiaren ondorioz:

“Izan ere, nekazariak eta enpresari txikiak zein ertainak zeuden inplikatura. Gainera, baztertzaila ere bazen, menderakuntza horren ondorioz nekazariak ez zutelako euren ekoizpen-modua berregiterik. Hori dela eta, porrot egin eta beste diru-sarrera batzuk bilatu behar izan zituzten bizirauteko. Zenbait ekoizle, beraz, baztertuta geratu ziren, eta beste batzuk agroindustriaren menpean sartu ziren. Horrela, bada, banakako bazterketa izan bazen ere, talde osoa menderatu zuten. Oso esplotazio-modu harraparia denez, oinarritzako aberastasun-iturria suntsitzen da. Gainera, ikuspegi ideologikotik ezkutuan dagoela ere esan daiteke”.

Landa-ingurunearen bazterketa eta menderakuntza halaxe ulertuz gero, inolako zalantzarik gabe baieztatu dezaket Lojako probintzian bi gertakari horiek goizago hasi zirela eta ez bakarrik XX. mendeko azken hamarkadetan. Izan ere, lurra eskuratzeko aukera berdintasunezkoa ez izateagatik eta lehortea zein antzeko fenomeno naturalak gertatzeagatik sortu ziren. Landa-ingurunekeo lana emakumetu eta landa-gunetik hirira migratzeagatik ondorioak 60ko hamarkadatik igarri dira Lojako probintzian. Beraz, horren guztiorren ondorioz, Lojako bizilagunek etengabe migratu dute Ekuador osoan zehar eta herrialdeetik kanpo ere bai, baina, batez ere, Espainiara.

Emakume nekazariekin hitz egitean, familien ekonomietan nolako erantzukizunak hartu dituzten euren gain azaltzen dute. Hain zuzen ere, seme-alaba nerabeei irteteko baimena eman behar diete, euren lan-indarra saldu dezaten. Hartara, horrelaxe sortutako baliabideen bitartez badago familien premia askori aurre egiterik. Ikuspegi horretatik, lurraldeko landa-dinamikak osatzen dituzten prozesuetan inplikaturako sistema sozio-ekonomiko nahiz sozio-ekologikoetan eragina daukan sistema izango da genero-sistema³.

Bestetik, lurraren jabetzari dagokionez, esan gabe doa pilaketa-prozesu ezin nabariagoak gertatu direla. Kopuruari eta kalitateari begira, nekazaritzaren erreforma lurra berdintasunez banatzen saiatu bazen ere, bereizketa sozial esanguratsua egin zen. Horrez gain, zenbait ekoizpen-unitatek ez zeukaten landuak izateko besteko tamainarik, eta egoera are larriagoa zen, unitate hori herentziaren ondorioz azpibanatuta zegoenean.

Oso interesgarria da ekoizleen Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ekoizpen Unitatearen (NAEU) tamaina nabarmentzea. Lojan, adibidez, 4 gizon ekoizle daude

³ Portillo, B.; Rodríguez, L.; Hollenstein, P.; Paulson, S.; Ospina, P. 2011. “Género, Ambiente y Dinámicas Territoriales Rurales en Loja”. 85. lan-agiria. Landa Ingurunekeo Lurralde Dinamiken Programa. Rimisp, Santiago, Txile.

emakume ekoizle bakoitzeko. NAEUren tamaina kontuan hartuta, honako hauxe esan beharra dago: zenbat eta txikiagoa izan tamaina, orduan eta emakume gehiago daude. Horrela, bada, tamaina hektarea batetik beherakoa denean, 2 gizon ekoizle daude emakume ekoizle bakoitzeko. Beraz, tamaina handiagoa den neurrian, gizon gehiago daude emakumeen aldean⁴.

Hori dela eta, egiaztatzen da nekazaritza eraldatzeko prozesuak gizona jarri zuela agerian lurraren edukitzaille moduan. Horregatik, benetako botere sinboliko handiagoa izan zuen elikagaien hornitzaile moduan. Gizona ekoizlea da, beraz; eta emakumea, familia zaintzen duena.

Hartara, errealitate berria dugu aurrez aurre. Jendeak lurra eskuratu ahal izan zuen arren, ez zuen bere lan ezegonkorreko alternatibarik eduki. Lurra eskuratzeko sistema horren ondorioz, ordea, ekoizpen-sistema dibertsifikatua ezarri zen, eta autokontsumoa zein salmentarako soberakinak bateratzen dira bertan. Dena dela, familia-harremani eutsi behar zaie ezinbestean, sistema hori bermatu ahal izateko. Era berean, zenbait estrategia ere erabili behar dira hori lortzeko; esate baterako, soldatapeko lan-harremanak, aldi baterako migrazioak, autokontsumorako ekoizteko eremuen iraupena eta soberakinen salmenta. Gainera, jarduerak abeltzaintzarekin dibertsifikatzen badira, lurraren erabilera estentsiboa ere ezarri beharra dago. Estrategia horiek, hain zuzen ere, indarrean daude oraindik.

Lurra berak jakituriari eutsi eta gizartearen antolaera sustatzen du. Batetik, jakituriak eta nekazaritzak familien elikadura bermatzen dute, eta, arlo horretan, emakumeak dira nagusi, euren ugalketa-zereginari eutsi diotelako, hazien kalitatea antzematen ikasi dutelako eta haziak hautatzen eta biltegitzen dakitelako. Edonola ere, hazi-barietate berriak eta elikadura-ohitura berriak ezartzeko orduan merkatua eta migrazioa bera ere oso boteretsuak direla aitortu beharra dago, eragin handia dutelako gizartearen eta familien beste antolaera batzuetan.

Bestetik, taldeak mobilizatzeko eta antolatzeke indar bateratzailea ere badu lurra. Lojako probintziako herritar mestizoen erakunde adierazgarrienak nekazariak dira: Hegoaldeko Nekazarien eta Herritarren Erakundearen Federazio Bateratu Probintziala (FUPOCSP) eta Lojako Emakumeen Herri Batasuna (UPML). Biek eliza katolikoan eta askapenaren teologian dute jatorria, eta familia nekazarien premien alde borrokatzen dira, gizarte-maila esplotatua dira-eta. Horrez gain, lortu ez arren, lur-ekasiaren arazoa konpondu nahi izan zuten, eta lurzorua kalitatea hobetzeko lan egin zuten, ahalmen berriak sortu nahian. Era berean, behar besteko ekarpenak ere egin dira, indarreko garapen-ereduetarako alternatibak proposatzeko. Horretarako, ekoizpen

⁴ Nekazaritza eta Abeltzaintzako Errolda Nazionaletik aztertutako informazioa. 2001.

agroekologikorako jardunak eta antolaerak ezarri dira gizon zein emakume nekazariarentzat. Egitate horiek oso aitortuak dira gaur egun.

Eremu horretatik, nekazarien egikera eta jakituria beste dimentsio batera iristen dira. Izan ere, badakite euren familia-eremuak zaintzen eta ekoizten, eta, horrez gain, etxe handia, mundua zaintzen badakitela ere sentitzen dute. Euren hazien balio kultural, politiko eta ekonomikoa aitortzen hasi dira, ekoizpenaren eta elikaduraren arteko lotunari erreparatu diote eta agroekologian oinarritutako nekazaritza “berria” sustatzen dute. Zer dute buruan? Konturatzen dira betidanik jakin izan dutela nekazaritza hori egiten, euren baratzeei eusteko aukera ematen diena zen-eta. Oso gogoan dute betiko nekazaritzaren eragina, besteak beste, honako ondorio hauek izan zituelako: hazi berriak erabiltzea; intsumoen mende egotea; ilargiaren faseak zeinen garrantzitsuak diren ahaztea, hau da, euren jakitateak alde batera uztea; eta emakumeak ezkutuan uztea. Hain zuzen ere, emakumeek dute osotasunaren parte den nekazaritza mota honetan egunero egin beharreko gauzen ardura: ereitea, zaintzea, elikatztea, partekatzea, irakastea, aurrera egitea...

Une honetan, argi adierazi behar dut nolako errespetua diedan emakume horiei, itzalpean ahalik eta erresistentzia handiena egin ahal izan dutelako gure bizia bermatzeko. Vandana Shivaren esanetan, honako hauxe diren haziei eutsi ahal izan diete emakumeek: “bizi-iturria, gure aniztasun biologiko eta kulturalaren adierazpena, eboluzioko iraganaren eta etorkizunaren arteko lotunea, eta hazi-hazleak izan diren komunitate nekazarien iraganeko, oraingo eta etorkizuneko belaunaldien jabetza bateratua”.

Aukera horretatik, agroekologia erakunde nekazarien proiektu politikoa da gaur egun, lurra eta ingurumena zaintzeko premiaren ondorioz antolatu zirenetik. Izan ere, ereindako lurretarako behar beste ur dagoela bermatzen dute, eta haziak gordetzen dituzte, jakin badakitelako egokienak direla horrelako lurzoruetarako eta klimarako. Horrez gain, agroekologiari esker, euren lur-zatiko edo baratzeko ekoizpena ere dibertsifikatu dezakete, hau da, elikaduraren burujabetzarekin estu lotutako proiektua garatu dezakete. Jardun agroekologikoak landa-lurraldean sortzen dira. Nolanahi ere, landa eta hiri inguruneen arteko harreman berrien bila, hiri bera probintziako hiriburutik hurbil dauden landa-inguruneen bitartez hornitzen denez, gaur egun zeresan handiko eremua da Sare Agroekologikoaren esperientzia, teknika agroekologikoak ezartzeko orduan.

Beraz, talde sozial horiek beste era bateko nekazaritza bultzatzen dute, eta tokian tokiko garapenerako alternatibak proposatzen dituzte. Izan ere, behar besteko gaitasuna dute, ekoizteko, ingurune naturala babesteko, ingurumen-krisia prebenitzeko eta soberakinak merkaturatzean sortutako esperientzien ondorioz ezarritako toki-ekonomiak suspertzeko. Hori horrela izanda ere, oso

kontuan hartu beharra dago kapitalak sustatutako zenbait esplotazio-moduk bere horretan dirautela. Izan ere, modu agroekologikoan ekoizteko gaitasunak sortu edo berreskuratu badira ere, ezin izan da ekoizitakoa erosten duen eskari sendorik eratu. Alde horretatik, Lojako Sare Agroekologikoak erronka hori bere gain hartzeko erabakia hartu du.

Dena dela, horrez gain, agroekologiako adituek zenbait interesen arabera diskurtsoak sustatu dituzte. Batzuen ustez, nekazaritza organikoaren edo nekazaritza ekologikoaren baliokidea da agroekologia. Aipatutako bi erakundeen esperientziatik, era guztietako animaliak eta landareak eduki behar dira agroekologia garatzeko. Gainera, tokian tokiko azoketan egiten diren merkaturatze-prozesu alternatiboetan ere parte hartu beharra dago, eta natura bera errespetatu behar da, naturarekiko eta naturatiko elkarrekotasuna egon dadin. Era berean, antzinako lan-ereduak berreskuratu behar dira, eta helburu bera duten erakundeekin egon beharra dago harremanetan, elikaduraren burujabetzarekin eta tokian tokiko merkaturaren dinamizazioarekin lotutako nazio-mailako eta tokian tokiko erabaki politikoetan eragina eduki ahal izateko. Halaber, aurreikuspenen arabera, kanpoko intsumoekiko mendetasuna ahalik eta txikiena izatea ere bada helburua, elikagarrien eta energiaren birziklapena etengabekoa da-eta. Hain zuzen ere, ekoizpenaren eta bizimoduaren arteko osagarritasuna lortu beharra dago, eta, horretarako, tokian tokiko baliabideak ondo erabili, lurzorua erabilera hobetu eta onibarraren⁵ plangintza egin beharra dago, antolakundea bera alde batera utzi gabe.

Gaur egun, Estatuak edo sektore pribatuek agroekologia sustatzeko egin dizkieten zenbait eskaintzaren aurrean, nekazariak zenbait prozesutan daude inplikaturik, baina ez diete uzten kanpoko intsumoekiko mendetasuna gutxitzen edo animalien zein landareen aniztasuna bermatzen. Ez da gauza bera elikaduraren burujabetzarako ekoizpena eta merkaturaren gustuak asetzeko ekoizpena eskaintzea. Alde horretatik, ekoizpenaren aldeko arrazionaltasuna lehenesten da, eta, bertan, ugalketa sozialerako estrategia guztiak erabili behar dira erantzunak emateko: familiako kide guztiek lanean parte hartzen dute, eta emakumeen lan-zama orokorra areagotu egiten da. Izan ere, merkaturako eskarien pentzudan ere egon behar dira behar bezala estali ahal izateko, eta ekoizpen-barietate berri asko are gehiago zaindu behar dira, berez sistema agroekologikoetako intsumoak eta energia ez direlako bateragarriagoak izango lurzoru-motarekin eta ekoizpen-moduekin.

Atal honi amaiera emateko, nabarmendu nahi nuke nekazaritzan oinarritutako jarduera ekonomikoek nolako ekarpena egin duten tokian tokiko ekonomian; jarduera horiek, funtsean, familiako eskulanean egon dira oinarrituta, emakumeen lana aitortu gabe eta behar besteko diru-balioa eman gabe. Beraz, geure

⁵ Testuinguru horretan, nekazaritzako jarduerak garatzen direneko lur-eremua da onibarra.

buruari galdetu behar diogu ekonomia sozial eta solidarioaren dinamika eta printzipioak ekoizle agroekologiko txikiak diren emakumeen lana balioesteko eta aitortzeko gai diren.

Agroekologiatik ekonomia sozial eta solidarioa egindako iragaitzak

a. Agroekologiaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko osagarritasunak

Bat nator beste autore batzuek adierazitakoarekin, agroekologia jarduera anitza dela diotenean. Izan ere, tokian tokiko sistema sinbolikoetan oinarritutako jardun eta jakitate askori ematen die zentzua, eta, agrosistemak maneiatzea ere lortzen duenez, familien elikadura bermatzen du. Horren haritik, zehaztu nahi nuke agroekologiak aukera ematen duela jakitateak zein zereginak aitortzeko prozesuetan lan egiteko eta elikaduraren burujabetza sentitzeko edo ezartzeko. Edonola ere, baieztatu dezaket oraindik emakume agroekologoak euren ugalketa-zereginagatik aitortzen dituztela funtsean. Hori dela eta, bali-teke proposamen horri eusteko ehundutako afektuen eta jakitateen sare konplexua behar beste ez balioestea, nahiz eta bere xedea ongizatea sortzea den.

Irabaziei barik⁶ ongizateari lehentasuna emateko logikaren ondorioz, emakumeek egindako lan-modu guztiak aitortu behar dira. Ez dago emakumeen jakituriaren bidez eskaintutako zainketaren balioa gutxiesterik: “sukaldaritza eta mahaia harreman sozial, emankor, ekonomiko, kultural, ingurumen-arloko eta teknologikoen sare konplexuko azken kate-mailak dira. Bertan, gainera, landa-ingurune emakumeek elikagaiak ekoizti, banatu eta kontsumitzen dituzte, eta, horren bidez, ondo baino hobeto dakite zer gertatzen den lur-zatiko ekoizpenean, onibarrean, osasunean, ibaien kutsaduran, basoa soiltzeko prozesuan, lurren higaduran...”

Ekonomia solidarioak, ordea, gaur egungo eredu ekonomikorako alternatibak sortzea proposatzen digu, eta, horretarako, gizakien eta merkaturaren arteko oreka erdiesteko lan egin beharra dago. Premiak asetzeagatik kontsumoa gaintzea da xedea. Horretarako, behar besteko zubiak ezarri behar dira, beste era bateko gizartea eratzeko, nortasunak nahiz lurraldeak aitortzeko eta ugalketarako premiak estali behar direla nabarmentzeko. Coraggioren esanetan, ekoizpenaren arloa eta ugalketaren arloa lotzea da helburua, ekonomia-izaera soziala bermatzeko. Dena dela, lan-kategoria horretan oso interesgarria da nolako balioa ematen zaien ekoizpenaren zein ugalketaren arloei, horretarako talde sozialak eduki behar dira-eta.

⁶ Ávila Dora, Carmona Gloria eta beste batzuk. Duintasunez bizitzeko lotuneak ehuntzea. Landa-ingurune emakumeen esperientziak eta proposamenak, elikaduraren krisiaren, klima-aldaketaren, sorten jaitsieraren eta genero-arloko desberdintasunen aurrean. Chiapas. 2011.

Aurreko paragrafoetan ikusi dugun bezala, bere garaian agroekologia *lehengo* nekazaritza egiteko modua zela aitortu bazen, ekonomia sozial eta solidarioa elkarrekikotasun zein konfiantzako egintza ekonomiko solidarioa dela diote gaur egun. Nekazariak horrelaxe *ulertzen zuten* merkatuarekiko harremana, hau da, kontsumoko premiei aurre egiteko harreman moduan.

Beste era bateko gizarterako aukerak eratzen jarraitu nahi izanez gero, bi kategoria horien arteko osagarritasunak milaka urteko jardunetan oinarritu behar dira. Gainera, prozesu hegemonikoei aurka egiteko jarreraren adierazgarri ere badira. Hori dela eta, emakumeen jakitatea ezkutuan egon da agian, nahiz eta gizartean bertan balioetsi den, hau da, batez ere gizarte-maila berekoek, historiari dagokionez baztertuta egon direnek balioetsi duten arren. Eta, hain zuzen ere, baztertutakoak dira gaur egun borrokarako aukera diren utopietarako alternatiba biziak ikusarazten dituztenak.

Probintziako familia nekazariak ezarri dituzten jardun agroekologikoei esker, badago sektore gehiagotara hedatzerik. Hona hemen emakume nekazari agroekologoak adierazitakoa:

“Hauxe diotsot senarrari: begira nola gaixotzen den lurtxoa, kimikoak erabiltzen direnean; eta begira zeinen eder jartzen diren ereindako lurrak, kimikorik gabe. Horrelaxe erein behar duzu zuk”.

Horrez gain, tokian tokiko merkatuetan merkaturatzeko soberakinik ere bada, eta gehienetan zeregin hori emakumeek eurek garatzen dutenez, esparru publikoetan sartzeko moduko ikaskuntzak sortzen dira. Aldi berean, esperientzia horri esker, tokian tokiko merkatu agroekologikoa ezarri ahal izan da, eta, horren osagarri, tokian tokiko bermeetarako partaidetzazko sistema ere jarri da abian. Bertan, hain zuzen ere, Lojako Sare Agroekologikoa da arlo horretan ordezkagarritasun handiena duen erakundea. Hori dela eta, merkaturatzeko esperientzia hori nola eratzen den, emakumeek zer egiten duten eta udalerriek haien ekarpena nola hartzen duten ulertu behar dugu.

b. Emakume ekoizle agroekologikoen jardueren bidez, tokian tokiko garapenarekin lotuneak sortzeko aukerak

Hurrengo hausnarketan, aurretiaz nabarmendu behar dugu emakumeek ekoizle txiki moduan egindako jardun agroekologikoak ditugula hizpide. Gero, ordea, euren baratze eta/edo soloetan zuzenean egindako lanen ondorioz euren baliabideen bitartez lan egiten duten emakumeak ere izango ditugu aztergai. Izan ere, nekazaritzako, abeltzaintzako, merkaturaketako eta eskulanaren salmentako zenbait jarduera garatzen dituzte bertan. Euren diru-sarrerak eze-gonkorak dira, eta, lan horiek guztiak egiteko, lanaldi luzeak izaten dituzte. Hala ere, txirotasun ekonomikoan bizitzen jarraitzen dute.

Emakumeek agroekologian daukaten jakituria barazkiak eta ortuariak landatzeko espezializazioan dago oinarrituta, hau da, produktu horiek lur-sail txikietan, familien baratzeetan erein daitezke, eta emakumeek euren gain hartu ohi dituzten jardueren barruan zaindu daitezke. Horrelako produktuak azokan bertan eskaintzen dira. Emakume ekoizle txiki horiek tokian tokiko merkatuetara hurbiltzean, merkatu agroekologikoa eratu da, eta horrek beste alternatiba komertzial batzuen bidez garatutako operazioen nozioa gainditzen du. Izan ere, emakume ekoizleen arteko trukerako ideiak sortzen ari dira, emakume ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko elkarrizketari eusten zaio banakako hurbilketak sorrarazten dituen zubi moduan eta udal-gobernua horrelako merkatuetarako sarbidea antolatzen ahalegintzen da, horrelako emakume ekoizleak egon badaudela kontuan hartuta.

Lurralde-oinarri zehatza dago printzipio eta teknika agroekologikoak ezartzeko eta barazki zein ortuarietako kontsumitzaileekin harremanetan jartzeko, baina, batez ere, Lojako kasu berezian. Hori dela eta, agerikoa da produktu agroekologikoak asteko zenbait egunetan tokian tokiko merkatuetan egiten diren azoka libre horietan⁷ merkaturatzen direla.

Azoka libreetan, ohiko produktuak eta agroekologikoak daude salgai. Argi dago lehiapeko gunea dela eta “leialtasun-mailak” ere badituela ekoizleen zein kontsumitzaileen artean. Dena dela, hortxe bertan nabarmentzen dira sistema ekonomikoari eusteko mekanismoak. Herri-ekonomiarekin lotutako adierazpenak hartzen dira kontuan, bertan familia ekoizleen edo nekazarien produktuak erosten dituzten bitartekariak direlako nagusi. Halaber, produktuak banan-banan eskaintzen dituztenak ere badaude, eta, azkenik, taldean landutako ekoizpena merkaturatzeko asmoz antolatzen direnak ere badaude. Ekoizle eta merkaturatzaile agroekologikoak elkartzen dituen erakundeko zenbait kide horrelako ekoizpeneranzko iragaitza-prozesuan daude, eta beste batzuk kategoria horretan bertan daude jada.

Ekoizpen-moduaren ñabardura horiek egiaztatzeko orduan, merkatu agroekologikoaren printzipioak konfiantza eta gardentasuna direla kontuan hartuta, emakume ekoizleek eurek ziurtatu nahi dute nolako produktuak merkaturatuko diren, hau da, ekoizpen agroekologikoa edo iragaitzazko egoerakoa den argitu nahi dute. Horrela, bada, Tokian Tokiko Bermeetarako Partaidetzazko Sistemak (BPS) sortzen dira, hau da, “gizartea sustatu eta kontrolatzeko mekanismoak dira; nekazarien zein ekoizleen erakundeen ekimenaren ondorioz eratzen dira eskaintako produktuen inguruko konfiantza sortzeko eta gizarteko nahiz Estatuko kontsumitzaileei eta zenbait eragileri eskaintzen

⁷ Azoka libreetan, harreman zuzenagoa ezarri nahi dute ekoizleen eta zenbait produktutako eskatzaileen artean. Sarbidea borondatezkoa bezain zabala da, eta gobernu autonomo deszentralizatuek zehaztutako araudiak bete behar dira. Lan egiteko orduan, karpa bat erabiltzen dute, klimatik babesteko eta azokan esleituta duten lekua mugatzeko.

diete eurekin parte hartzeko aukera⁸. Bermerako prozesu partekatu bezain eraginkorra eratu nahi dute, egiaztapenaren printzipioak ezagutu eta ezarriko dituzten ekoizle antolatua, agintariak eta kontsumitzaileak inplikatzen. Sistema egituratzeko orduan, zenbait maila kontuan hartu eta zenbait eragile antzematen dira”.

Tokian-tokian, udal-gobernu autonomoarekin ezarritako lotuneari esker, azoka librean sortzean leku berezia dago produktu agroekologikoak merkaturatzeko. Horrelako ekoizpena sustatzeko suspergarritzat hartu badaiteke ere, baliabide gehiago eduki behar dira horretarako, emakume ekoizleen seme-alabak zaintzeko eta artatzeko zerbitzuak egon behar direla kontuan hartuta. Nolanahi ere, bitartekaritza politiko horretan gizonak instituzioarekin duten harremana nabarmentzen da, gizonak direlako horrelako koordinazioak sortu eta premiak proposatzen dituztenak. Dena dela, aitortzen da lorpen handia izan dela eremu fisikoa eta beharrezko altzariak edukitzea. Emakumeek, gainera, ez dute adierazten beste eskari batzuk asetzeko asmorik dutenik; agian, produktuak merkaturatzeko “karpa” izatea ziurtatzea delako euren lehen oinarria.

Beste eragilea tokian tokiko unibertsitate publikoa da; eragile horrek erantzun teknikoak ematen dizkie ekoizpeneko arazoei. Iragaitzako egoeran edo agroekologian bertan, ikerketen bidez sortutako informazioa erabili beharra dago, sistema agroekologiko bakoitzeko arazoei aurre egiteko. Eragile hori tokian tokiko talde teknikoko kidea denez, funtsezkoa da BPSren funtzionamendua ziurtatzeko, emaitzak eskaintzen dituelako eta euren errealitatetik bertatik prestatzen dituelako emakume ekoizleak. Bestetik, oso garrantzitsua da emakume ekoizleen jakintza balioestea. Esparru horretan, hain zuzen ere, emakumeak funtsezkoak dira, badakitelako nola erabili behar den onibarra eta nolako arazoak sortzen diren eta, onibarren edo baratzen arteko bisitaldi gurutzatuen bitartez, behar besteko informazioa jasotzen dutelako.

Nekazaritza Ministerioak ekoizpenaren arloan daukan zuzendaritzari esker, zenbait eragileren inplikazioa are handiagoa da. Eragile horrek, hain zuzen ere, ekoizpen-prozesuak sustatu nahi ditu, biztanleen kontsumorako elikagaiak daudela ziurtatzeko. Ezarritakoaren arabera, instituzio horren barruan egongo da kalitateari buruzko araudia zehaztu behar duen erakundea, AGROCALIDAD izenekoa. Gaur egun, AGROCALIDADek berak adierazi du zer araudi bete behar den, Ekuadorko ekoizpen organiko, ekologiko eta biologikoa bultzatzeko eta arautzeko. Agiri horretan, gainera, ekoizpen agroekologikoa araupetuko ez denez, badirudi ekoizleek lan egiten jarraitzeko askatasun-maila handiagoa izango dutela. Edonola ere, lehiapeko eremuak bere horretan iraungo du, BPSak Ekuadorko Agroaren Kalitatea Ziurtatzeko Agentziak (AGROCALIDADek, alegia)

⁸ Lojako Sare Agroekologikoa. Lojako Sare Agroekologikoko bermeitarako partaidetzako sistema. 2013.

kontrolatuko dituelako. Hori dela eta, baliteke BPSren hasierako espirtua desitxuratzeko, hau da, norberak eta erakundeek eurek baratzearen jarraipena egitea, Estatuak taldean kontrolatzeko edo ziurtatzeko abian jarritako barne-sistemaren eraginpean egon beharrean⁹. Aipatutako araudia ezartzeko argibide eta zehaztapenetan, oso lagungarria da merkatu agroekologikoen egitura nazionala, eta RAL bera bertako kidea da. Tokian-tokian, ordea, ekoizleek bermeitarako partaidetzako sistemei buruzko bilerei eusteko hartutako erabakia da lagungarriena.

Emakume ekoizle txikiek erakundea indartzeko zeregina hartu dute euren gain. Horretarako, zenbait jardura garatu dituzte, euren ekoizpena hobetzeko eta haien proiektu zein aukera politikoarekin bat egiten duten eragileekin koordinazio-maila handiagoa edukitzeko. BPS abian jartzeko orduan, zenbait lan eta erabaki maila kontuan hartzen dituen egitura daukate. Bestetik, azpimarratu behar da taldeek eurek izendatzen dituztela Berme Batzordeko kideak eta sustatzaileak, baratzea kudeatzeko aholkularitza teknikoan lagundu diezaieten. Zeregin horretan, Konpromiso Agroekologikorako Barne Lantaldearen iruzkinak eta proposamenak hartzen dituzte kontuan.

Egitura horren oinarria Ekoizleen Batzarra da. Instantzia horren ezaugarri bereizgarrien artean, BPS bakoitzaren printzipioak, arauak eta funtzionamendua zehazten direla nabarmendu beharra dago. Horrez gain, partaidetza handieneko eztabaida-gunea ere bada, talde edo erakunde horretako kide guztiek parte hartzen dutelako bertan. Era berean, behar besteko abala ere ematen du, emakume ekoizle bakoitzak zer printzipioren arabera lan egin behar duen bermatzeko. Erakunde horietan, gainera, emakumeak dira nagusi. Bertan, hain zuzen ere, agroekologiaren nondik norakoak nabarmentzen dira, eta eztabaidatu eta negoziatu egiten dute, ekoizpen-jardunak aitortu daitezen eta ekoizpen agroekologikorako iragaitza-prozesuak hasi daitezen. BPSak, ordea, ez dira modu agroekologikoan norik ekoizten duen eztabaidatzeko leku egokienak, emakume ekoizle agroekologikoak direla defendatzean nekazaritzaren esanguren inguruan lehiatzeko erabilitako lekuak baizik.

Hauexek dira gainerako hiru guneak:

- a. Konpromiso Agroekologikorako Barne Lantaldea (CICA). Oinarrizko erakunde bakoitzeko emakume ekoizleak dira bertako kideak, eta esperientzia tekniko zein soziala dute. Instantzia horrek batzarrean xedatutakoa betetzen dela ziurtatu behar du, baina, aldi berean, erakundeko emakume ekoizle agroekologikoekin garatutako ekintzak ere babestu eta kontrolatu behar du. Bere lanaren helburua motibatzea eta jarraipena egitea izango denez,

⁹ 2013ko uztailan, Arautegi Orokorrari buruzko Araudia eraldatu zen, Ekuadorko ekoizpen organiko, ekologiko eta biologikoa sustatzeko eta arautzeko, eta Asanblea Nazionalan bertan eztabaidatu zen.

tresna teknikoak erabili beharko ditu, BPSak eutsitako ekoizpen agroekologikoa edo iragaitzazko egoerako ekoizpena nola egiten den jakiteko. Instantzia horretan, emakume ekoizleen arteko topaketa sustatzen da, eta era guztietako jakitateak nahiz esperientziak trukatzeko dituzte. Bertan, era berean, elkarrekotasuna suspertzen da, eta bisitaldiak egiten dira, haziak eta landare-espezieak trukatzeko.

- b. Tokian Tokiko Lantalde Teknikoa. Hauek dira bertako kideak: ekoizleen erakundeak eta udaleko edo antzeko instituzio publikoetako ordezkariak, GKE-etako ordezkariak edo unibertsitateak. Lantalde horrek BPS jartzen du abian, tresnen erabilgarritasuna berrikusten du, behaketak¹⁰ egiten ditu eta emakume ekoizle bakoitzarentzako gomendioei buruzko txostenak egiten ditu. Instituzioetako talde teknikoek protagonismoa eta zuzendaritza ematen dituzte, eta, emakume ekoizleek emandako informazioaren eta proposamenen bidez, zubiak ezartzen ari dira, RALeko bi emakume ordezkariak parte hartzen dutelako bertan.
- c. Lurraldeko Berme Batzordea. Hauek dira bertako kideak: ekoizleen erakundeetako ordezkariak, kontsumitzaileak, tokian tokiko lantalde teknikoetako ordezkariak eta tokian tokiko gobernuak. Bere zeregin handienaren arabera, tokian tokiko bermeak onartzen direnean sortutako gatazketako bitartekaria da. Izan ere, instantzia horretan bertan zehaztu daitezke ekoizpena sustatzeko, trukatzeko eta ekoizpen agroekologikoa bermatzeko politikak. Aipatu beharra dago tokian tokiko esperientzian oraindik ere ezinezkoa izan dela kontsumitzaileen taldeak eratzea.

Tokian tokiko egitura horrek bere erakundea abian jarri eta bere jakintzak defendatu dituenean, talde horrek gaitasun handia duela egiaztatu ahal izan da. Sarean bertan gizonak eta emakumeak badaude ere, gehienetan emakumeak dira aurpegia ematen dutenak, euren lana aitortua eta balioetsia izan dadin. Dena dela, badute euren buruari egindako aitortuak, ekoizleak direlako eta ez merkaturatzaileak. Aldi berean, euren buruaz egindako azalpen hori ere bada ezaugarrietako bat, azoka libreterara hurbiltzen direnek erosiko dituzten produktuak osasungarriak bezain freskoak direla ziur jakin dezaten.

Talde honek asko irakatsi dio udalerrinari, erakundeari eusteko irmotasunari dagokionez. Zenbait mailatan, produktu osasungarriak eskaintzean herritarren osasuna bermatzeko erakutsitako interesa balioesten da. Karpa bera ez da emakume ekoizleak eta kontsumitzaileak elkartzeko lekua bakarrik, kontsumitzaileentzako elkargunea ere badelako. Izan ere, nolabaiteko elkartasun-maila adierazi nahi diete ekoizle moduan euren eta gainerakoen ongizatearen alde lan egiteko adorea dutenei.

¹⁰ Herritarren Behatokia ordezkarietarako mekanismo demokratikoa da, eta, horri esker, herritarrek zein erakunde bateratuek badute kudeaketa publikoko prozesua zaintzerik.

Emakumeen lanak erakutsiko digu nolako ahalmena duen erakundeak kontsumitzaileei hornitzen jarraitzeko, naturaren mugak kontuan hartuta. Estatuak koherentziaz jokatu behar du, eta Ekuadorko Konstituzioan nahiz Elikaduraren Burujabetzari buruzko Lege Organikoan ekoizpen agroekologikoa eta bere merkaturaketa suspertzeko adierazitakoa sendotu egiten dela bermatu behar du. Inolako zalantzarik gabe, egiaztatu da sektore txiroak eta, euren artean, emakumeak direla krisietatik irteteko alternatibak eskaintzen dituztenak. Horrez gain, gizartearen ongizatea bera ere ziurtatzen dute.

Emakumeentzako mikrokredituak: Peruko erdialdeko oihaneko emakume kooperatibisten esperientzia generoko mikrofinantza solidarioetan

Ela Pérez Alva

Elva Pérez Alva. Feminista autonomoa herri-hezitzailea “*Gorputzaren autonomiaren aldeko makinak*” taldeko militantea eta Universidad Mayor de San Andrés-en –UNMSM-ko irakaslea. Lima, Perú.



“Mikrokredituaren bidez, akurien hazkuntza hobetu nuen, askoz hobeto elikatu nuen neure familia eta beste gastutxo batzuk ordaintzeko negoziotxo ere jarri nuen abian: belarritakoak eta xaboi usaintsua erosi ahal izan ditut, neuk ere oso gustuko dudalako apaintzea, neure burua hobeto ikustea eta eder sentitzea.”

Julia, José Gálvez Lantaldekoa
La Florida KNK

“Ekonomialari feministak garenez, gogoan izan behar dugu arlo pertsonala politikoa dela eta arlo politikoa ekonomikoa dela. Emakume, ekonomialari, lesbiana eta diziplina ekonomikoko biziraule moduan, nire nortasunak eta hogeita zortzi urtetan diziplinan bertan bizi izan ditudan esperientziek teoria ekonomikoari buruz egiten dudana azterketan daukate eragina.”

Michele Pujol*¹

Sarrera

Lan honetan, Familiaren Garapenerako Lantaldearen bidez (CODEFAM) antolatutako emakumeen taldeen historia azaltzen da. Hain zuzen ere, Peruko Juningo eskualdeko Chanchamayoko probintziako erdialdeko oihanean kokatutako La Florida Kafegintzako Nekazarien Kooperatibako (KNK) emakume bazkideen partaidetzarako instantzia da. Gaur egun, kafea da herrialdean esportatzen den produktu nagusia (MINAG, 2013; JNC, 2013). Beraz, lehentasunezko sektore ekonomikoa da Peruko hainbat emakume nekazari txikiren familientzat.

CODEFAMekin lotuta dauden emakumeek generoko mikrofinantza solidarioen estrategia garatzen dute euren ekintzen ardatz moduan, “Emakumeentzako Mikrokredituak”, alegia. Horrela, bada, lurralde-lana egituratzen da euren probintziako zenbait barruti, herrixka txikiago eta erkidegotan.

¹ Hemendik hartutakoa: Pérez (2006).

Estrategia horrek CODEFAMeko bazkideak izan nahi duten emakumeak bilatzea du helburu. Horretarako, lan handia garatzen dute bertako presidentek eta zuzendaritza batzordeak, informazio-bileren bitartez emakumeak sentibilizatzen baitituzte, kreditua eskuratzea eta CODEFAMek sustatutako ekintzetan parte hartzea oso abantailatsua dela adierazi nahian. Kredituen dirukopurua txikia den arren, handitu egiten da emakume bazkideak ordaintzeko ardura erakusten duen neurrian. Dena dela, ez da lar gehitzen, gehienezko kopurua seiehun dolarrekoa da-eta. Horrez gain, honako hauxe ere hartzen da kontuan kreditua emateko orduan: enpresa-gaitasunen garapena, teknikaren zein ekoizpenaren arloa eta norberaren jabekuntza.

Hori dela eta, mikrofinantzen estrategia da, kredituak ematen direlako eta ikuspegi integralagoa ere hartzen delako kontuan. Bertan, hain zuzen ere, beste instantzia batetik prebentzioari eta sustapenari begira zabalduetako beste ekintza batzuetarako kreditua egituratzen da: hezkuntza-lantaldea. Lantalde horrek Peruko Kooperatibei buruzko Legearen aitorpena dauka, eta, bestek beste, hezkuntzaren, osasunaren zein gizarte-segurantzaren arloan abian jarritako politika sozialez arduratzen da kooperatiban.

Esperientzia horren ondorioz, CODEFAM bera instituzionalizatu egin ahal izan da, eta La Florida Kooperatibako estatutuetan, politiketan eta egitura organikoan ere agertzen da. Era berean, urteko ekintzetarako baliabideen fondoa ere sortu ahal izan du, kooperatibako administrazio zentralak erabilitako fondoetatik aparte.

Esperientzian bertan egiaztatu ahal izan denez, kreditua emateko prozesuan zenbait erantzukizun eta kargu dituzten emakumeen arteko elkartasun-sareak ehuntzen dira. Izan ere, kreditutik haratago, euren eguneroko bizimoduko premiak antzeman eta premia horiei aurre egiteko ekintzak jartzen dituzte abian; esate baterako, indarkeriaren prebentzioa, buru-estimua sendoagoaren lorpena, sexu eta ugalketa arloko osasunaren sustapena...

Artikuluak generoari buruzko azterketen arloan arakatzeko zantzuak agerian jarri edo eskaini nahi ditu, zainketaren ekonomia birbaloratzeko eta aldaketa-balioa ez ezik erabilera-balioa ere badagoela adierazteko. Horrez gain, honako arlo hauek miatzea ere badu helburu: Gibsonen eta Grahamen esanetan (2011), premian, soberakinean, kontsumoan eta ondasun bateratuetan oinarrituta dagoen ekonomia bateratu iraunkorra; eta, Quesadaren esanetan (2013), munduaren irudikapen abstraktu moduan egindako ikerketa ekonomikoak gainditzeko prozesua, bertan emakumeak eta eurek garatzen duten funtsezko jarduera kanpoan utzi eta baztertu egiten direlako.

Lau zatitan dago banatuta: lehenengoan, historia azaldu edo esperientziaren oroimena berreskuratzen da; bigarrean, gatazken bilakaera eta kontrola aztertzen dira; hirugarrean, esperientziaren zenbait erronka eta arrisku azaltzen

dira; eta, laugarrean, etorkizunerako aurreikuspenak nabarmentzen dira hur-bilketa moduan.

Halaber, lan honek Peruko erdialdeko oihaneko kafegintzako kooperatibetako emakumeen esperientzietako laguntasunaren lekukotasunaren berri ematea ere badu xede, ia-ia hamarkada bat eman baitut eurekin lan egiten eta partekatzen.

Historia bera barik, historian bertan zeresana duen oroimena azaltzea da helburua

La Florida Kafegintzako Nekazarien Kooperatiba 1966ko urriaren 30ean sortu zen La Floridako udalerrian, Apurimac, Ayacucho, Cajamarca, Ancash eta Juningo eskualdeetako berrogeita hamar familia nekazariren bultzadaren eta nekazariaren ondorioz. Bitartekarien larregikeriengatik kokoteraino zeudenez eta indar kolektiboa oso garrantzitsua zela bazekitenez, kolono moduan finkatu ziren La Florida izeneko eremuan, nahiz eta bertan ez zegoen ez zerbitzurik ez bide-azpiegiturarik.

Egoera horri aurre egiteko, kooperatiba antolatu zuten, eta, horretarako, bazkide bakoitzak bere kafea eraman zuen bertara. Horrez gain, honako erronka hauri ere ekin zieten elkarrekin: 300 kilometrotik gorako errepidea irekitzea, seme-alabentzako eta erkidegoko auzokideentzako eskolak eraikitzea, denda kooperatiboak abian jartzea eta makinak zuzkitzea. Hirurogeita hamarrek hamarkadaren erdialdean, oso aliatu handia izan zen euren herrialdera itzultakoan La Florida Suitza Elkartea sortu zuten boluntario suitzarren taldea.

Erakundearen goraldia 1988tik 1989ra gertatu zen, 1.400 bazkide aktibo baino gehiago zituen-eta. Edonola ere, Peruko indarkeria politikoak bertako buruzagien artean izan zuen eragina, mehatxuak jaso zituztelako, erail egin zituztelako, migratzera behartu zituztelako eta haien azpiegiturak sabotatu zituztelako.

Bertan geratu eta indarkeriaren kalteak jasan zituzten familia urriek kooperatiba berri sortzeko erabakia hartu zuten 1992. urtean. Euren erakundea berri antolatu eta bidezko merkataritzako sareetan sartu ziren. Harrezkero, kafea merkaturatzen duten enpresa handiei eta Estatuari berari aurre egin behar izan diete. Izan ere, Estatuak berak ez du nekazaritza-arloa babestu nahi, eta zerga-jazarpenari ekiten dio behin eta berriro.

Gaur egun, honako hauxe da bere xedea, 2013-2018ko Plan Estrategikoan adierazitakoaren arabera: *“honako zerbitzu hauen bidez, bazkideen, euren familien eta erkidegoaren garapen integrala sustatzea: kalitateko kafea eta bere eratorriak merkaturatzeko zerbitzuak eskaintzea; eta herrialdeko erdialdeko oihaneko ekoizpena iraunkortasun-baldintzetan hedatzeko eta babes-teko eta emankortasuna hobetzeko zerbitzuak ematea.”* (2013: 2).



Bertako bazkideen kafea ekoiztea eta munduko merkatuetara merkaturatzea da helburu nagusia, eta Juningo eskualdeko Chanchamayoko probintziako Perureko barrutiko Yurinaki eta Ubirikiko arroak dira eragin-eremu nagusiak.

Zenbait urteren ostean, eta ez da kooperatibako zuzendarien merezimendua bakarrik izan, lankidetzako agentziek ere bultzatu baitute prozesua, “bazkide zuzenak” diren emakumeekin hasi ziren ekintzak egiten, hau da, euren lurren titular moduan kooperatibako erroldan inskribatuta zeuden emakumeekin. Horrez gain, bazkideen emazteak eta alabak ere hartu zituzten kontuan, kooperatibako gobernu eta erabaki instantzietan oso agerpen ahula eta/edo urria zutela konturatu ziren-eta. Eremu hori Familiaren Garapenerako Lantaldea izan zen (CODEFAM): “emakumeak ordezkatzeko dituen organoa da, eta La Florida Kafegintzako Nekazarien Kooperatibako familia-unitateetan garatutako lana balioesten du. Horrez gain, honako hauexek ere badira bere zeregin nagusiak: familiaren garapena kafegintzako emakumeen jabekuntzaren ikuspegitik kudeatzea, genero-berdintasuna sustatzea eta kooperatibako familia bazkideen ekonomiaren administrazioa hobetzea.” (CODEFAM, 2013: 4).

Horretarako, eskualdekako 18 lantaldetan antolatuta dago CODEFAM (kooperatibaren lurralde-ekintzaren eremua), eta zuzenean inskribatutako 380 emakume bazkide ditu². Urtero, emakume horiek kudeaketaz arduratuko diren ordezkariak aukeratzen dituzte: presidentea, presidenteordea, idazkaria,

² Guztira, 2.000 bazkide daude kooperatiban, baina %10 baino ez dira bazkide zuzenak.

lehenengo ordezkoa eta bigarren ordezkoa. 2008-2012ko Plan Estrategikoaren esparruan, euren xedea zein den zehaztu ahal izan dute: “La Florida KNK-ko familia kafe-ekoizleen garapena sustatzea eta, horretarako, bertako bazkideek enpresen kudeaketarako dituzten gaitasunak eta trebetasun sozialak garatzea eta partaidetzapean dibertsifikatutako ekoizpen-jarduerak sendotzeko zerbitzu finantzario solidarioak nahiz antolara bultzatzea.” (2008: 5).

Gutxi gorabehera, badira zazpi urte proposatutako estrategia abian jarri zela: “Emakumeentzako Mikrokredituak”. Kafe-laborantza ez beste ekoizpen-jarduerara dibertsifikatu batzuetarako ematen dira kredituak. Presidenteak kudeaketari buruz egindako txostenaren arabera, honako hau da mikrokredituen inbertsioaren helburua: banana-sailak artatzea (105), behi-azienda gizentzea (20), upategi txikiak handiagotzea (13) eta, neurri txikiagoan, ananaren, jengibrearen eta artoaren laborantza artatzea (CODEFAM Txostena, 2013: 10).

Horrez gain, nabarmendu beharra dago ekoizpen-jarduerak horiek errentagarriak izan behar direla, eta, aldi berean, mikronegozio berriak sustatzeko eta eusteko gaitasunak ere garatu behar dituztela, elkartasunaren, lankidetzaren eta leialtasunaren balioak kontuan hartuta. Izan ere, oso ate egokia da, genero-berdintasuna, emakumeen jabekuntza eta kooperatibako gobernu³ zein babes organoetako partaidetza bultzatzeko orduan.

Nolanahi ere, strategiaren azalpen orokorretik haratago, nola bilakatzen da emakumeentzako mikrokredituen esperientzia?, nolako gatazkak sortzen dira eta nola aurre egiten zaie?, badago mikrofinantzen esperientziaren eta ekonomia feministaren arteko egituraketarik?

Ubirikin eta Yurinaquin zirriparra denean, harriak daude bertan: gatazken bilakaera eta kontrola

“Bizitzako arazoak sortzean, gogora datorkigu Ubiriki eta Yurinaqui ibaietan zirriparra dela harriak arrastaka daramatzatenean. Gauza bera gertatzen da kooperatiban, batzarretako ahotsak harriak bezain zaratatsuak dira-eta.”

Mamisha, Miguel Grau Lantaldekkoa.
La Florida KNK

Mabel Belucci feminista argentinarrak dioenez, emakumeen historia apurka-apurka eratzen ari da. Ahoz aho igorritako herri-kontakizuna izango balitz

³ Kontseiluak eta lantaldeak kooperatiba osoko zuzendaritza-instantzia politikoak dira, eta ez bakarrik CODEFAMekoak, zuzendaritza-karguak baititu “emakumeen eremua” izateagatik.

bezala, forma hartzen ari da... Aipamen-falta, datu zehaztugabeak... Asko eta asko “pasadizoen antzera ahoz azaldutako kontakizunen bitartez” berreskuratu dira.

Bere baieztapenari erreparatzen badiogu, aitortu behar dugu ez dela nahikoa zenbat mikroreditu ematen diren esatea edo zertan inbertitu diren jakitea edo kreditu-jarduera handieneko hilabeteak zein diren adieraztea. Hori dela eta, prozesu horretan elkarreraginean dauden emakumeen beraien ahotsa ere berreskuratu behar da, eta euren adostasun zein desadostasunen berri ere eman behar da.

Emakume protagonisten ahotsak berreskuratzean, emakumeentzako mikro-redituen esperientziaren bilakaeran gertatutako gatazka erabakigarri nagusiak hiru eratakoak direla egiaztatu dezakegu:

- Batetik, norberak ikusitako eta presidentearen denboraren erabileraren ondorioz sortutako tentsioak daude. Presidente bera esperientziaren ordezkaria eta liderra da, eta, bera barik, ez legoke ezer egiterik, neurri handi batean.
- Bestetik, taldeak berak antzemandako eta kreditua ukatzen dietenean emakumeen artean sortzen den egonezinean islatutako tentsioak ere badaude.
- Azkenik, genero-harremanetan eragin zuzena duten tentsioak ere badaude. Etxeko lanak egiten zituzten emakumeek jasotako kredituak administratzeko lanak garatzen dituzte orain. Hori dela eta, etxetik kanpoko beste zeregin batzuk hartu dituzte euren gain, eta ekonomia sozial zein solidarioko dinamiketan sartu dira.

Ez daukat behar besteko astirik...

Esperientzia suspertzeko ardura handiena CODEFAMeko presidentek hartzen du bere gain. Nahiz eta zuzendaritza-batzordearen menpe egon, bere kargu eta erantzukizunagatik lan handiena garatzen duela adierazten du:

“Izapidez gainezka nago, bazkideek azkar ibiltzeko eskatzen didate, mugikorrera deitzen didate... Nik, ordea, ez estutzeko esaten diet, guzti-guztia ondo egin behar dela, arreta handiz jokatu behar dela eskabidea, elkarrizketa edo inguruko bisitaldia behar den bezala egiteko. Zeregin ugari dira, ikaragarri laguntzen didan sustatzailea ere sartu behar dut tartean eta denbora aurrera doa... Deitu egiten didate, noiz emango dieten galdetzen didate eta ez dute ulertzen zein den bidea. Hori dela eta, osteratxo egin behar da leku guztietatik, den-dena ondo azaldu ahal izateko.” (Julia, CODEFAMeko presidentea).

Horretarako zenbait ikaskuntza ezarri behar dira, presidentea bera da protagonista nagusia eta bere erantzukizunaren esparruan apurka-apurka ezartzen

dituen gaitasunak indartu behar dira; esate baterako, kreditua erabiltzeko beharrezkoak diren jakintzak edo negoziatzeko trebetasunak. Askotan, ezinbestekoak dira emakume eskatzaileekin jarduteko orduan⁴.

“... Izugarri ikasi nuen. Helburu bakarra ez da batuketak eta kenketak egiten ikastea. Finantza-arloko lana da, honako hauxe egin beharra dagoelako: estatistikako taulak prestatzea, kredituak aztertzea, kreditu-plana eta negozio-plana egitea, ordainketen kronograma antolatzea, bazkideak konbentzitzea eta ordaindu egin ahal izango dutela egiaztatzea... Orain, aditua naiz... Bururatu ere ez zait egiten nirea ez den dirua galtzea, ziur bazkideek erreklamatu egingo lidaketela...” (Blanca, CODEFAMeko presidentea, 2010).

Kreditua ematean presidentearen eta bazkideen artean sortzen den loturaren ondorioz, inplikaturako emakumeen bizitza pertsonal zein afektiboan eragina daukaten harremanak ere ezartzen dira.

“Oso epe laburrean lortu dut. Emakumeekin hitz eta hitz egiten dut, kreditua hartu dezaten, baina erantzukizunez egin behar dute, ez egite aldera. Etxean zer ordaindu behar duten, nolako gastuak dituzten azaltzen didate. Euren ekonomia aztertzen dugu, eta euren etxea ikusten dut bisitaldietan. Hau edo bestea gertatzen zaie azaltzen didate. Laguntza ere eskatzen didate. Ondoren, Hezkuntzako arduradunari jakinarazten diot, artatu ditzan eta lagundu diezaien. Zenbateko epean ordaindu dezaketen aztertze eskatzen diet, arazo gehiagotan sartu ez daitezen eta lasai egon daitezen, besterik gabe.” (Julia, CODEFAMeko presidentea).

Era berean, oso garrantzitsua da presidentek bere lana garatzen duenean lurraldearekin ezartzen duen harremana. Kooperatiba oso handia da, eta bazkideak oso urrun eta isolatuta dauden erkidego, herririka eta barrutietan bizi dira Chanchamayoko probintziako jurisdikzioan. Hori dela eta, presidentek beste zailtasun batzuk ere baditu bere karguaren garapenean.

“Hain lurralde zabala denez, ez daukat behar besteko astirik denetara iristeko. Hala ere, onartu egin behar dut lehen ezagutzen ez nituen lekuak ezagutzen ditudala orain eta neure probintzia alderik alde zeharkatu dudala, CODEFAMI eta emakumeentzako kredituei esker.” (Julia, CODEFAMeko presidentea).

Esperientzia bera oso aberasgarria da. Berrito ere, presidentek zenbait gaitasun indartzen dituzenez, beste era batera irakurtzen du ingurunea, modu

⁴ Credifloridak finantzen eta kredituen administrazioaren arloko prestakuntza ematen die emakume zuzendariari. Kreditu-instituzioa da, aliantza estrategikoa du CODEFAMekin eta kooperatibak berak sortu zuen.

konplexu eta osoagoan, hain zuzen ere. Inolako zalantzarik gabe, bere bizi-esperientziaren aberasgarri da bere erantzukizunaren garapenean egiten duen ibilbidean apurka-apurka eskuratutako jakintza.

Halaber, nabarmendu beharra dago CODEFAM zentralerako presidentea eta osagai dituen eskualdeetako 18 lantaldeetako presidenteak lurralde-lantalde bakoitzean hilabetez hilabete antolatutako informazio-bileren bitartez hurbiltzen direla bazkideengana. Izan ere, batzarretan ematen diete informazioa, “aurrez aurre” hitz egiten dute esperientzia honekin bat egin nahi duten emakume guztiekin, euren premiak, eskariak, kezkek zein diren azaltzen diete emakumeek...

Edonola ere, nahiz eta prozesu hori guztia oso aberasgarria izan eta bertan inplikaturako emakumeen artean ikasbide ugari sorrarazi, ageri-agerikoa da denboraren erabilerak tentsio handia sortzen duela emakume buruzagien artean, eta, batez ere, CODEFAMeko presidentearen eta eskualdeetako lantaldeetako presidenteen artean. Beraz, ahulezia kritikoa da esperientzia osoari begira, eurak barik ez dagoelako ezer egiterik, euren erantzukizuna handia delako eta hainbat zeregin hartzen dituztelako euren gain, baina, batez ere, presidenteak, oraindik ere CODEFAMen instituzionaltasuna hauskorra izan arren.

Auzokoekin haserretzen zara

Zer gertatzen da emakumeren batek kreditua lortzen ez duenean? Ondo onartzen du ezezkia edo erabaki horrek ondorioak ditu erkidegoko harremanetan? Oso gai latza da eskualdeetako presidenteentzat. Nolanahi ere, ez dira kredituen administrazioan bakarrik sortzen, instantzia horiek CODEFAMeko ekintzaren esparruan zehaztutako eginkizun gehiago betetzen dituztelako eta jarduera hori zeregin nagusietakoa delako.

Lurraldeko bizilaguna izateagatik hurbil dagoenez, eskualdeko presidentea ageriko aurpegia da emakumeentzako mikrokredituen eguneroko bizimoduan. Izan ere, kreditua esleitzeko prozesua jartzen du abian, bazkidea eta haren eskabidea Eskualdeko Batzarren aurrean aurkezten dituzte. Beraz, erantzukizun handia da beretzat, baita askotan zaila den erabakia ere, bazkide berriari bere abala ematen dion ala ez ebatzi behar duelako:

“Birritan pentsatu behar dut... Ondo baino hobeto jakin behar dut noren aldeko bermea aurkezten dudan. Batzuetan, amakideak diost bere lehen-gusinak bazkidea izan nahi duela, baina nik agindutakoa beteko duen jakin behar dut... Txarto geratuko dena neu naizela diotsot, baina, batzuetan, ez dute ulertzen eta nirekin haserretzen dira... Batzuetan, txarto ez geratzeko, beldurrez ematen diet bermea. Zorionez, orain arte berandutu baino ez dira egin. Dena dela, modu berean eskatzen diet.” (Juana, José Olaya Eskualde Lantaldeko presidentea).

Kooperatibako bazkidea den ala ez kontuan hartu gabe, auzokide, adiskide edo senideren bati kreditua ukatzen badiozu, argi eta garbi dago eragina izango duela eskualdeko presidenteak erkidegoaren esparruan egunez egun dituen harremanetan. Azken batean, taldeak presio-mekanismoak erabiltzen ditu, erkidego bereko kideen arteko elkartasuna ziurtatzeko.

Edonola ere, oso gai garrantzitsua da, tentsio handia sortzen delako kredituaren esleipena egokitasunez eta eraginkortasunez kontrolatzeko premiaren eta emakumeek eta, batez ere, eskualdeetako presidenteek euren erkidegoko bizimoduan gizarteratzeko ehundu dituzten prozesuen artean.

Beraz, nekez konpondu daitekeen tentsio iraunkorra igartzen da, honako arrazionaltasun hauen arteko kontraesana nabarmentzen delako: kredituak erabiltzeko orduan eduki beharreko arrazionaltasun ekonomiko, sozial eta solidarioa eta erkidegotik bertatik familien, adiskideen edo bizilagunen sareen interesak oro har nabarmentzen dituzten arrazionaltasunak.

Zeregin berriak onartzea eta harreman berriak ezartzea?

Etxeko lanak, zainketako lanak eta ekoizpen-lanak edo ekonomikoak uztartzean kreditu-profilak lortzen dituzten emakume antolatuen adierazgarri da mikrokredituen esleipena. Esperientzia horren bidez, prozesuak suspertzen dituzten emakumeei aurpegia jartzen zaienez, eguneroko konfiantzazko harremanak sortzen dira euren artean, kreditu-politikan gauzatutako hitzarmen kolektiboen mugapean.

Oso garrantzitsua da bereiztea kooperatibako antolakuntza-egiturak berak babes osagarri instituzionalak eskaintzen dituela, eta, neurri handi edo txikiagoan, esperientziaren beraren lagungarri direla. Kooperatibako Hezkuntza Lantaldea CODEFAMekin zuzenean koordinatzen den organoa denez, bertako arduradunaren bidez inplikatu da jardueretan. Horretarako, prebentzio zein sustapenerako ekintzen (hezkuntza, osasunean eta gizarte-segurantzian, besteak beste) eta teknika zein ekoizpen arloko ekintzen plangintza egiten du, gaitasunak garatzen ditu eta norberaren zein zuzendarien jabeakuntza sustatzen du, besteak beste. Bertan, gainera, eskualdeetako lantaldeen bitartez kreditua eskuratzen duten emakumeak egituratzen dira. Era berean, lotura organikoa du kooperatibako administrazio-kontseiluarekin, kooperatibako batzar nagusietan ezarritako eta hitzartutako arauak eta prozedurak ere egituratzen baitira berarekin.

Horrez gain, CODEFAMeko koordinatzailea ere badago, zeinak presidenteari laguntzen baitio bazkideekin garatutako lan zuzenean eta, batez ere, gizarte-erlorkia den aholkularitza teknikoan.

Esperientziaren esparruan, beraz, ez da arbitrarioa kreditua lortzen duten emakumeek euren egoera pertsonal eta familiarra berrantolatzen dutela onartzea, zenbait kasutan euren eguneroko lana berregituratzen dutelako kredituaren bidez abian jarritako ekoizpen-jarduerei eta/edo zerbitzu-jarduerei lehentasuna ematen dietenean.

Hori horrela izanda ere, oso garrantzitsua da azpimarratzea sustapen horri hasiera ematean ez dituztela euren bizitzako beste esparru batzuk oso-osorik deuseztatzen. Are gehiago, alde batera ere ez dituzte uzten inoiz. Hori dela eta, zeregin berriak hartzen dituzte euren gain, eta harreman berriak ezartzen dituzte, baina batez ere familia-mailan alde aurretik ezarritako harremanak eta zereginak bertan behera utzi gabe.

Azken horrek lotura izan dezake kredituak esleitzeko zikloarekin, are gehiago areagotzen delako kafearen nekazaritza-kanpainak behera egiten dueneko hilabeteetan. Izan ere, horixe bera da erdialdeko oihaneko nekazari ekoizle txikien familien ardurapeko jarduera nagusia. CODEFAMek 2013an egindako txostenean nabarmentzen denez, ekainean (50) eta abenduan (36) eman ziren kreditu gehien, eta, urtarrilean (24) eta otsailean (2), behera egin zuten.

Hori dela eta, argi eta garbi dago emakumeek ez dutela kafe-ekoizle moduan garatzen duten jarduera nagusia bertan behera uzten eta ekoizpen edo zerbitzuen arloko ekintzailatza txikiak abian jartzen dituztela horren osagarri.

Beharbada, horren ondorioz, ez dituzte oso-osorik bertan behera uzten familia-mailan ezarri dituzten harremanak eta zereginak. Beraz, zeregin eta harreman berri horiek are gehiago ehundu behar dituzte alde aurretik familia-mailan ezarrita zituzten zeregin eta harremanekin.

Horrez gain, zuzenean lotuta dagoenez, oso garrantzitsua da emakumeek erronka handiari aurre egin behar diotela adieraztea, familiako gizonak eta kooperatibak berak, baina bertako zuzendariak, batez ere, etengabe ebaluatzen dutelako emakumeek jarduera berri horretan benetan asmatu duten ala ez. Agerikoa denez, “etengabeko ebaluazio hori” eredu patriarkalaren ondorio zuzena da, emakumeak zeregin eta harreman tradizionalen menpe izan nahi dituelako eta ez duelako beste arlo batzuetan gizarteratzea nahi; soldatapeko lanaren munduan, esate baterako.

Beraz, esan gabe doa testuinguruak ez dizkiela emakume kafe-ekoizleei erraztasun guztiak ematen, zeregin eta harreman berriak euren gain hartu eta garatzeko orduan. Hala ere, kredituari esker, zeregin eta harreman berriak jarri ditzakete abian, eta, alde aurretik zituztenei inolako kalterik egin gabe, hedatzeko eta agerian jartzeko aukera eskaintzen diete.

Emakume eta erakunde moduan arriskatzea, erronka botatzea

Emakumeentzako mikrokredituak ebaluatzeko dinamikak emakumei etengabeko erronka botatzen die bi unetan: talde-ebaluazioan eta bazkide bakoitzaren ekoizpen-jardueraren, kaudimen moralaren eta berme solidarioaren ebaluazio zorrotzaren arabera kreditu-eskabidea onartzean sortutako arriskuan. Landa-ebaluazioa emakumeentzako erronka nagusia da. Nabarmendu beharra dago ikaskuntza horretan zehar prozedurak eta eskakizun solidario bezain arduratsua hobetu direla. Horri esker, prestigioa eta zilegitasuna irabazi dira eskualdeetako lantaldeetan, eta, horren ondorioz, erkidegoko beste emakume batzuen artean ere sortu da CODEFAMekin eta kooperatibarekin bat egiteko interesa.

Emakumeen elkartasuna zenbait zereginetan adierazten da: kudeatzaileak, laguntzaileak, kredituko subjektuak, ebaluatzaileak, bazkideak eta auzokideak dira; zenbait gune ehuntzen dira lurralde bakoitzean; eta familia bera (zabaldua) ere inplikatu da, “aurrera egiteko” ikuspegian zehazten duelako “zainketa-eremutat” hartutako ekonomia familiarra osatzeko aukera hori.

Bestetik, erronka handia da berme-fondoa eratzea. Zazpi urte inguruan, bazkideei emandako kredituen babesa izan da, baita fondoak administratzen dituen instituzioarentzako bermea ere (Crediflora). Fondo hori bi eratara eratu da, hain zuzen ere:

| 1. Berme Fondoa: La Florida Suitza Peru Elkarteak | 2. Berme Fondoa: CODEFAMeko bazkideak |
|--|---|
| 2006. urtean, La Florida Suitza Peru Elkarteak 27.500,00 \$-ko dohaintza egin zion kooperatibari, CODEFAMeko kideentzako laguntza finantzario moduan. Dohaintza hori CREDIFLORIDAn gordailatu zen, sinatutako hitzarmenaren arabera administratzeko asmoz. Gaur egun, handitu egin da eta, beraz, 36.573,24 \$-koa da bere kapitala. | Lantalde Nagusiaren kudeaketaren eta CODEFAMeko bazkideen ekarpen bitartez, CODEFAMeko Berme Fondoa sortu zen, eta %3ko deskontua egiten da esleitutako kreditu bakoitzeko. 2009. urtean, eskualdeetako 18 lantaldeetako emakume ordezkariak egindako bileran, emandako kreditu bakoitzeko kobrantza kapitalaren %10ekoa izango zela erabaki zen. Bi ehuneko horiek, ordea, errealitatearen eta premien arabera aldatu ahal izango dira, CODEFAMeko Lantalde Nagusian halaxe erabakiz gero. |

Era berean, erronka handia da CODEFAMeko Lan Planean urtez urte⁵ antolatutako ekintzen dinamismoa, kredituen arloko ekintzaren ardatz nagusia kontuan hartuta. Horretarako, funtsezko lorpena izan da planaren osagai bakoitzerako esleitutako ehunekoak banatzea, 2013an egin den bezala:

| 1. taula: 2013ko ULPren Osagaien arabera Aurrekontua | | | |
|--|--------------------------------------|---------------------|---------------|
| Zk. | Osagaia | Aurrekontua /g | Aurrekontua % |
| I | Kudeaketa sendoagoaren lorpena | 1.613,00 | 7,39 |
| II | Kreditu-arlokoa | 6.675,00 | 30,56 |
| III | Gaitasunen garapena | 3.420,00 | 15,66 |
| IV | Landa-inguruneko negozioen sustapena | 502,00 | 2,30 |
| V | Kudeaketa administratiboa | 9.630,00 | 44,09 |
| Guztira | | 21.840,00 /g | 100,00 |

Planean, zenbait osagai dituzten jarduera ugari zehazten dira⁶; *kredituak emateko prozesuarekin* lotuta dauden jarduerak: barruko kreditu-politika gizarteratzea, kredituen ebaluazioa eta jarraipena egitea eta datu estatistikoak prestatzea; *enpresa, teknika eta ekoizpen arloko gaitasunen garapenarekin* lotutakoak: honako hauxe egitea: “emakume bazkideen lurretako nekazaritza dibertsifikatzeko proiektuko” profila, “bananen laborantzaren kontrola” tailerra, “mikrokredituak eta landa-inguruneko negozioak” proiektu eredugarria eta “elikaduraren segurtasunari” buruzko ikastaroa; eta *norberaren jabekuntzarekin* lotutakoak: honako tailer hauek antolatzea: “komunikazioa eta talde-lana”, “familiako gatazkak”, “kontratuen eta agirien prestaketa”, “generoa eta buru-estimua” eta “jabekuntza ekonomikoa eta erabakiak hartzeko prozesua”.

Horrez gain, barruko koordinaziorako eremua ere sendotu da, CODEFAMeko eskualdeetako emakume presidentekin egindako ohiko eta ezohiko bileren bitartez. Bestetik, sustapenerako ekintzak ere jarri dira abian; tokian tokiko azokak, esaterako. Horretarako, kudeaketa publikoak eta pribatuak egin dira emakumeen produktuak eta zerbitzuak saltzeko, eta behar den moduko zabalkundea ere egin da irratian nahiz telebistan.

⁵ Aurrekontu handiagoa behar izanez gero, CODEFAMek kutxa txikiko fondoak ditu, Hezkuntza Sailak eta CETPRO La Floridak (Goi Hezkuntzako Ekoizpen Zentro Teknikoa) finantzaturako jardueren koordinazioari eta kontrapartidari esker.

⁶ Aipatutako jarduerak 2012ko Txostenean eta gaur egungo presidentek egindako 2013ko Lan Planean azaltzen dira, eta artikulua honetako azterketari begira berrantolatu dira.

Esandako guztia ikuspegi integralaren erakusgarri da. Dena dela, azpimarratu behar da emakume bazkideek garrantzi handia ematen diotela esparru pertsonalari, aztarna handia uzten die-eta. Kreditua jaso duen emakume baten esanetan, “*ez naiz inoiz emetasuna lantzen duen tailer batean egon. Geure bizitzari buruz galdetzen digute, eta hori oso garrantzitsua da emakume moduan... Beraz, guztia lana eta lana ez dela pentsarazi zidaten, neuretzako denbora ere izan behar dudala konturatu nintzen. Nork bere esperientziak aitortu edo ezagutu behar dituela azaltzen ziguten, hobera egiteko eta nor bere buruarekin pozago egoteko. Nire ustez, oso garrantzitsua izan zen hori entzutea. Alabari azaldu nion, bera ere emakumea da-eta. Gaztea den arren, senarra eta semea ditu, eta ez da bere buruaz arduratzen...*”.

Etorkizunari begira: elkartasunen sareak eta zainketa kontuan hartzen duen ekonomia feminista ehuntzea

Ekonomia elkartasunean eta lanean oinarrituta badago -Razeto (1993)-, balio horiek lehentasunezkoak izan behar dira goi-mailako printzipio kualitatibo moduan. Hori dela eta, modu kualitatiboan handiagoak diren elkartasun-mailak ezarri behar dira jardueretan, erakundeetan eta instituzio ekonomikoetan, enpresen, merkatuen nahiz politika publikoen mailan. Horri esker, eraginkortasun mikro eta makroekonomikoa areagotzen da, eta gizarte osoaren mesederako onura sozial eta kulturalak sortzen dira.

Landa-inguruneko ekoizpena eta emakumeek arlo horretan betetzen duten zeregina kontuan hartuta, nekazaritza garatzen duten lana babesteko zerbitzuak bermatu behar dira. Edonola ere, egoera hori desberdintasunen adierazgarri ere bada gaur egun. CODEFAMeko Emakumeentzako Mikrokredituen bidez, emakume antolatuek zerbitzu hori eskuratzeko giltza dute euren elkartasun-sistematan oinarrituta. Mikrofinantzetako ekintza hau orain dela zazpi urte abian jartzeko eta eusteko garatutako zereginak ematen die indarra. Alde horretatik, benetako eta gaur egungo erantzuna da, emakume txiroek kredituak eskuratzeko aukerarik ez dutela kontuan hartuta, nahiz eta nekazaritzako politika publikoetatik urrun dauden lurraldeetan arazo sozial larriei aurre egin behar dieten eta merkatuak eskaintutako finantza-zerbitzuetatik kanpo uzten dituzten.

Esperientzia horren arabera, ageri-agerikoa da ekonomiari buruzko eztabaida zabalagoa garatu beharra dagoela. Emakumeek ekonomiaren funtzionamenduan egin dituzten ekarpenak antzeman eta agerian jartzen badira, beste era bateko arrazionaltasun bat balioetsi ahal izango da.

Emakumeek negozioa edo ekoizpen-jarduera abian jartzeko edo zerbitzua eskaintzeko kreditua eskatu nahi dutenean, euren baliabideetara jotzen dute,

oro har: euren jakintzak, gustuak, trebetasunak, intuizioa eta interesak, baita euren erabakietan eragina duten beste emakume batzuenak ere (ama, amaginarreba, amama, alabak, izebak, amakideak eta auzokideak). Nahiz eta esperientziarik ez izan edo baliabide ekonomiko gutxi eduki, familiari laguntzeko edo integratzeko ideia igortzen dute aurrera egiteko sistema moduan. Dena dela, euren abiapuntu bakarra ez da merkatua identifikatzea eta plana atontzea. Riane Eislerrek proposatutakoaren arabera (2007), zainketaren ekonomiak egunez eguneko lanean du ardatza, emakumeek mendeko langile moduan duten izaera aztertzen du, eta, bertatik, seme-alabak, natura, familia... zaintzeko lan-jardunak aldarrikatzen ditu. Onartutako kreditua nola erabiliko duten pentsatu duten emakumeak, mendetasunean daude edo mendetasun hori ote da zer egingo duten pentsarazten diena?

Zer jarduera ekonomikori ekingo dioten erabakitzen dutenean, denbora gehiago hartzen dute euren hasierako proposamena ebaluatu ahal izateko. Pozez txoratzen daude euren ideiegatik eta hazkuntza-aurreikuspenengatik, eta beste batzuen iritziak zein esperientziak entzuten dituzte. Beraz, sentitzen dutena alde batera utzi gabe, beste aukera batzuk ere agertzen dira, eta arlo pertsonal, familiar zein bateratutik eurentzat onena denaren arabera neurtzen dituzte.

Gu inklusiboa agertzen da euren hizkuntzan: “larregi ez arriskatzea, oraindik ere seme-alabak eskolan daude-eta”, “amakideak teilatudun lekua daukanez, labea bertan jarri dezakegun esango diot”, “oraingoan, apala izango naiz, gutxi eskatuko dut, eta, apurka-apurka, dirutxo gehiago eskatuko dut”, “ananak ditut eta auzokoak ere bai; elkartzen bagara, aurreztu egingo dugu, eta bion artean egin ahal izango dugu marmelada”. Beste era bateko ekonomia batzuei buruzko hizkuntzak agerian jartzen du era guztietako eragiketak, lan-sistemak, harremanak, enpresak, harreman ekologikoak eta garapen-dinamikak daudela ekonomia bateratu iraunkorrean. Izan ere, premian, soberakinean, kontsumoan eta ondasun bateratuetan dago oinarrituta, Gibsonek eta Grahamek iradokitzen duten bezala (2011). Hori dela eta, geure buruari galdetu behar diogu egunez egunekotik nola identifikatu ahal izango ditugun emakumeen hizkuntzan gu inklusiboa kontuan hartzen duten beste esaldi batzuk. Horretarako, ezinbestekoa izango da beste era bateko ekonomia bateratuak agerian jartzea.

Egunez eguneko lana aldarrikatzen denean, esperientzia honen ondorioz sortzen diren eskariak eta eskubide-proposamenak zehazten dira, eta emakumeek eremu horretan garatzen dituzten zereginetakoak berreratzen dira. Emakumeek iraunkortasunez zer eta nola ekoitzi dezaketen aitortu beharra dago. Zainketa emakume asko mugiarazten dituen elementu nagusia dela ulertu, aitortu eta balioetsi beharra dago. Lana kontuan hartu beharra dago, afektuak lehenesten dituzten denborak, espazioak eta harremanak direlako

eta inolako preziorik eta baliorik ez duelako. Nagusi den teoria ekonomikoari egin behar zaio aurka, soldatarik gabeko lana gutxietsi, baztertu eta ezkutatu egiten duelako. Horrez gain, familiak berak zainketarako eta biziraupenerako lanean jarritako afektu horiek ere birbaloratu behar dira, baina kide bakoitzak eta, batez ere, emakumeek jarritakoak ere bai.

Quesadak adierazten duenez (2012), munduaren irudikapen abstraktu moduan egindako ikerketa ekonomikoak gainditu behar dira, emakumeak eta eurek garatzen duten funtsezko jarduera kanpoan utzi eta baztertu egiten dituztelako. Emakumeen gaia baino ez da ekonomiaren ekoizpen-dimentsiotik banatu ezin den ugalketa-dimentsioari buruz eztabaidatzea?

Bibliografia

- Eisler, Riane (2007). *La verdadera riqueza de las naciones: Creación de la Economía del cuidado*, San Frantzisko: Berrett-Koehler.
- Gibson-Graham, J. K. (2011). *Una política postcapitalista*, Bogota: Siglo del Hombre Editores, Unibertsitate Pontifikal Javerianoa, Psikologia Fakultatea, Pensar Institutua.
- Pérez, A. (2006). *Perspectivas feministas en torno a la economía: El caso de los cuidados*. Madril: Kontseilu Ekonomiko eta Soziala.
- Quesada, M. (2012). “La perspectiva de género en el comercio justo: una reflexión económico- antropológica” in *Red de Revistas Científicas de América Latina, el Caribe, España y Portugal*, Mexiko DF: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa.
- Razeto, L. (1993). *Los caminos de la Economía de la solidaridad*. Txileko Santiago: Ediciones Vivarium.

Beste batzuk

La Florida Kafegintzako Nekazarien Kooperatibako barne-agiriak:

Familiaren Garapenerako Lantaldeko Kreditu Politikak. La Florida KNK. 2012ko otsaila.

- 2013ko CODEFAM Txostena, Julia Velázquez presidenteak egindakoa.
- 2008-2012ko Plan Estrategikoa, La Florida KNK. CODEFAMen kapitulua, 2008.
- 2013-2018ko Plan Estrategikoa, La Florida KNK. CODEFAMen kapitulua, 2013.

